

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2017

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@euskadi.eus

[945-01 90 77](tel:945-01-90-77)

Argitaratzailea: Eusko Jurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

AURKIBIDEA

0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA	1
1. EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA	10
1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera	10
1.2 Analisia herrialdeka	12
1.3 Espainiako ekonomia	18
2. EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA.....	20
2.1 Ekoizpen arloak.....	20
2.2 Eskaria.....	26
2.3 Atzerriko inbertsioa EAEn.....	43
3. LAN MERKATUA	46
3.1 Biztanleria eta jarduera.....	46
3.2 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa.....	53
4. PREZIOAK.....	56
4.1 Deflatoreak.....	56
4.2 Kontsumo prezioak.....	57
4.3 Industria prezioak.....	61
5. LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK.....	63
5.1 Produktibitatea.....	63
5.2 Soldatak	65
5.3 Lan kostuak	77
6. ARLO PUBLIKOA	79
6.1 Itundutako zergen diru bilketa	79
6.2 Eusko Jaurlaritzaren jarduera ekonomikoa	82
7. FINANTZA ARLOA	85
7.1 Moneta politika.....	85
7.2 Truke tasak	88
7.3 Balore merkatua.....	89
7.4 Aurrezkiak, kredituak eta gordailuak	90


7.5 Familien finantza egoera	96
7.6 Gizarte aurreikuspena.....	99
8. AURREIKUSPENAK	102
8.1 Ingurunerako aurreikuspenak.....	102
8.2 EAEko ekonomiaren aurreikuspenak.....	106

0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2017an, EAEko ekonomiak aurreko bi urteetako hedatze erritmoari jarraipena eman zion eta %2,9 areagotu zuen BPG erreala, hots, aurreko datua baino bi hamarren gutxiago bakarrik. Horri esker, hiru urtez jarraian eskuratu ditu %3,0aren inguruko aldakuntza tasak. Izan ere, 2017ko bigarren erdian jaso zuen hazkundera tamaina horretakoa izan zen eta 2018ko hasierakoa, berriz, tasa hori gainditu zen. Beraz, oraingoz ez da moteltzeko zantzurik hautematen. Urte osoko emaitza Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak aurreikusi zuena baino zertxobait hobea izan zen, atzeko haizeen desagerpena aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakundeek iragarri zutena baino astiroago gauzatzen ari delako. Horren ondorioz, inguruneko herrialdeen bilakaera aurreko urteetako baino dinamikoagoa izan zen eta EAEko kanpo arloak portaera neutroa izan zuen, BPGaren aldakuntzari hamarren bakar bat kenduz.

EAEko eta munduko ekonomien hazkundera
Urte arteko aldakuntza tasak

1. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

Munduko ekonomiak indartsu egin zuen gora 2017an eta nabarmen hobetu zituen bai aurreko datua bai aurreko bosturteko osoarena, %3,8ko aldakuntza tasa bat jasota, herrialde bakoitzak duen erosteko ahalmenaren parekotasunaren (EAP) arabera neurtuta. Tasa hori krisiaren

aurreko balioena baino txikiagoa den arren, laurogeietan, laurogeita hamarretan eta milurtekoaren lehen hamarkadan eskuratutako batez bestekoaren gainetik dago. Herrialde bakoitzeko EAP erabili beharrean truke tasari dagokion pisua ematen bazaio, gehikuntza tasa hori %3,2ra mugatzen da. Horrek esan nahi du EAEko ekonomiaren hazkundera ez dela munduko ekonomiak lortu zuena baino askoz ere txikiagoa izan. Are gehiago, alderaketa herrialde garatuekin egiten bada, EAEko gehikuntza tasa nabarmen handiagoa da.

Hain zuzen ere, herrialde garatuen multzoa %2,3 hazi zen, batez beste, 2017an, aurreko urteko emaitza alde handiz gaindituz. Hobekuntza horretan parte hartu zuten eremuko bi ekonomia handienek, hots, AEBek eta Eurogunea. Bi kasuetan, urte osoko aldakuntza tasa %2,3an kokatu zen eta 2016ko datua hobetu zuten. AEBei dagokionez, susperraldia inbertsio pribatuaren gorakada garrantzitsu baten eta kanpo saldoaren hobekuntza baten eskutik iritsi zen. Esportazioaren bultzadari esker kanpo saldoak bere ekarpen negatiboa nabarmen murriztu zuen. Halaber, kontsumo pribatuak hedatzeko joerari eutsi zion, langabezia tasa, urteko batez bestekoan, %4,4an kokatu zen testuinguru batean. Tasa hori enplegu betetzat jotzen da. Herrialde horretako inflazioan oraindik tentsiorik nabaritzen ez den arren, moneta agintariek interes tasak normaltzeko politikari atxiki zioten eta hiru igoera erabaki zituzten 2017an zehar eta beste bi gehiago 2018ko lehen erdian. Aldi berean, aktibo gutxiago erosi zuten.

EKONOMIA EREMUEN PISUA, HAZKUNDEA ETA EKARPENAK
1. taula

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpenak
Ekonomia aurreratuak	41,3	2,3	0,95	Garatu gabeak	58,7	4,8	2,82
AEB	15,3	2,3	0,35	Txina	18,2	6,9	1,26
Eurogunea	11,6	2,3	0,27	India	7,4	6,7	0,50
Japonia	4,3	1,7	0,07	Errusia	3,2	1,5	0,05
Erresuma Batua	2,3	1,8	0,04	Brasil	2,6	1,0	0,03
Kanada	1,4	3,0	0,04	Mexiko	1,9	2,0	0,04
Besteak	6,5	2,7	0,18	Besteak	25,4	3,7	0,94

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Europako ekonomien artean, Erresuma Batuaren eta gainontzeko herrialde nagusien bilakaera kontrajarria azpimarratu behar da. Alde batetik, ekonomia britainiarrak moteltzeko prozesu garbi batean dago murgilduta, 2014an jasotako %3,1 hartatik 2017an eskuratutako %1,7ra doana. Abiadura galera hori neurri batean lotuta dago Europar Batasunetik irteteko prozesuak (Brexit) eragindakako ziurgabetasunari. Beste aldetik, Alemaniak, Frantziak eta Italiak, neurri handiago edo txikiago batean, beren aldakuntza tasak hobetu zituzten eta 2017an azken urteetako emaitzarik gorena eskuratu zuten. Orobat, herrialde horien hazkunde tasetan bateratzeko joera hauteman da, zeren eta beraien erritmoen arteko aldeak murriztu baitziren, 2016an puntu bat izatetik 2017an zazpi hamarren izatera. Espainia zertxobait aldentu zen Euroguneko beste hiru herrialdeetatik, beraren maximoa 2015ean lortu zuelako eta moteltze arina bizi duen arren, oraindik %3,0aren gaineko tasak bildu zituen.

BPG ERREALAREN BILAKAERA**2. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Munduko ekonomia	3,5	3,5	3,6	3,5	3,2	3,8
AEB	2,2	1,7	2,6	2,9	1,5	2,3
Japonia	1,5	2,0	0,4	1,4	0,9	1,7
Txina	7,9	7,8	7,3	6,9	6,7	6,9
Europar Batasuna	-0,4	0,3	1,8	2,3	2,0	2,4
- Alemania	0,5	0,5	1,9	1,7	1,9	2,2
- Frantzia	0,2	0,6	0,9	1,1	1,2	1,8
- Erresuma Batua	1,5	2,1	3,1	2,3	1,9	1,7
- Italia	-2,8	-1,7	0,1	1,0	0,9	1,5
- Espainia	-2,9	-1,7	1,4	3,4	3,3	3,1
- EAE	-2,0	-1,7	1,6	3,0	3,1	2,9

Iturria: NDF (munduko ekonomia, Japonia eta Txina), BEA (AEB), Eurostat eta Eustat (EAE).

Azaleratzen eta garatzen ari diren herrialdeen multzoak ere nabarmen hobetu zuen bere hazkunde tasa 2017an, aurreko urteko %4,4tik %4,8ra. Txina oraindik eremu horretako motor handiena bada ere, bizkortze hori gainontzeko eremuari esker lortu zen. Zehazkiago adierazita, Txinako ekonomiak %6,9ko gehikuntza eskuratu zuen, aurreko datua baino bi hamarren gehiago eta herrialde hartako gobernuak ezarri zuen helburua (%6,5) baino askoz ere gehiago. Indiak %6,7ko gehikuntza jaso zuen, kasu horretan aurreko urteko datua baino lau hamarren


gutxiago. Petrolioak ekoizten duten herrialdeek ahalbidetu zuten eremuaren gorakada hori, 2016ko beherakadak atzean utzi zituztelako, lehengai horren garestitzeari esker. Hala eta guztiz ere, Brasilek (%1,0), Errusiak (%1,5) eta Nigeriak (%0,8) 2017an izan zituzten gehikuntza tasak oso apalak izan ziren.

Adierazienez, EAEko ekonomia %2,9 hazi zen 2017an, hots, aurreko urtean baino bi hamarren gutxiago bakarrik. Beraz, hazkunde erritmoak %3,0aren inguruan egonkortasuneko irudia eskaintzen du, dagoeneko hiru urtez luzatu dena. Krisiaren aurrean EAEko ekonomiak sortzen zuen BPGa azkenean 2016an berreskuratu bazen, 2017an emaitza hori finkatu zen eta hobekuntzako laugarren urtea kateatu zen. Izan ere, 2008ko datuari 100eko balioa ematen bazaio, 2013an %93,4ra jaitsi zen eta 2017an %103,8ko maila lortua zen. Hazkundearen bizitasunak, 2017an ere, Eusko Jaurlaritzak osatu zuen taula makroekonomikoan aurreikusitakoa gainditu zuen.

BPG errearen eta enpleguaren bilakaera EAEn 2. irudia

BPG. 2008 = 100

Enplegua. 2008 = 100



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

BPGaren hobekuntza baten ondoren, enpleguak denbora behar izaten du erantzuteko eta oraingo honetan ez da beste modu batean gertatu. Izan ere, enpleguaren hobekuntza ekoizpenarena hasi eta handik urtebete batera etorri zen. Hala ere, landunen gehikuntza nabarmena izaten ari da. Zehazkiago, 2017an %2,1 hazi zen, aurreko bi urteetan bezalatsu. Horri esker, 2008-2013 epealdian galdu ziren lanaldi osoko 119.000 lanpostu baliokideetatik


56.000 inguru berreskuratu dira dagoeneko. Beste urtebete batez, zerbitzuek lortu zuten emaitza onena 2017an, hala balio absolutuetan (14.500 enplegu garbi) nola erlatiboetan (%2,2ko gehikuntza), baina industriak (%1,7) eta eraikuntzak (%1,6) ere balio esanguratsuak jaso zituzten urte horretan. Aurrekoaren ondorioz, urte osoko langabezia tasa %11,3ra murriztu zen, aurreko balioa baino bi puntu beherago.

Eskariaren aldetik, 2017ko hazkundera aurreko urteetakoaren antzekoa izan zen, zeren eta ekarpenaren pisu guztia barne eskariaren eskutik iritsi zelako, kanpo saldoak portaera neutroa erakutsi zuen bitartean. Izan ere, 2016an kanpo saldoak hamarren bat ekarri zion hazkunderari eta 2017an, berriz, hamarren bat kendu. Portaera hori urrun dago EAEren aldeko hazkunde diferentziala zegoen susperraldiko bestealdi batzuetan gertatu zen joeratik, zeren eta garai horietan barneko bizitasunaren zati bat kanpora ateratzen baitzen, inportazioen areagotzearen ondorioz, gehikuntzari ekarpen negatibo esanguratsua emanez. Gaur eguneko zikloan, oreka handiagoa hautematen da esportazioen eta inportazioen artean, bakoitzaren ekarpena neutralizatzen duena.


EAEko BPGari eginiko ekarpenak

3. irudia

Barne eskaria



Kanpo eskaria



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Barne eskariaren bi osagaiek gehikuntza tasa esanguratsuak jaso zituzten 2017an, bereziki kapital eraketa gordinak. Agregatu hori %3,5 handitu zen, hirugarren urtez jarraian %3,0ko langa gaudituz. Halere, inbertsioaren bi atalek oreka aldatu dela nabaritzen da, zeren eta ekipamendurako ondasunetan eginikoak gehikuntza erritmoa moteldu baitu eta gainontzeko inbertsioak emaitza hobetu baitu. Eraikuntzaren susperraldia da gainontzeko inbertsioaren bizkortzea eragin duten faktoreetako bat. Beste aldetik, 2015ean eta 2016an ekipamendurako inbertsioan jaso ziren erritmo biziak moteltze arina iragartzen zuten 2017rako. Kontsumoaren agregatuan, administrazio publikoen gastua %2,4 areagotu zen, aurreko epealdien antzera eta, bosgarren urtez jarraian, ekonomiaren hazkundearen azpian. Kontsumo pribatuak ere eutsi zion aurreko urteetako erritmoari, %3,0ko gehikuntza bat jasoz. Enplegu sorrera esanguratsuak, urtearen zati handiengan inflazio apala egoteak, konfiantzaren hobekuntzak eta aktiboen jabetzak ekarri duen irabazi txikiak familiak animatu dituzte kontsumoaren hazkundera eusten.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

3. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Barneko azken kontsumoa	-1,6	-1,1	1,9	3,1	2,9	2,8
Familien kontsumoko gastua	-1,8	-0,9	2,3	3,3	3,1	3,0
Herri administrazioen kontsumoa	-0,9	-1,8	0,7	2,1	2,3	2,4
Kapital eraketa gordina	-6,9	-4,9	-0,2	3,8	3,1	3,5
Ekipamenduko ondasunak	-4,9	-3,6	3,3	7,3	5,3	4,7
Gainontzeko inbertsioa	-7,9	-5,6	-1,9	2,0	1,8	2,7
Barne eskaria	-3,0	-2,0	1,5	3,2	3,0	3,0
Esportazioak	-4,6	1,0	5,9	1,0	1,7	3,0
Inportazioak	-6,0	0,4	5,5	1,4	1,5	3,1
BPG	-2,0	-1,7	1,6	3,0	3,1	2,9
Lehen arloa	11,0	-3,1	-20,0	13,1	2,0	-3,0
Industria	-5,2	-2,8	2,2	3,1	2,9	2,7
Eraikuntza	-7,7	-4,6	-1,7	1,1	1,8	2,5
Zerbitzuak	-0,4	-1,0	1,7	3,5	2,8	3,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-2,4	-1,5	1,9	5,0	3,3	3,7
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	0,4	0,7	2,6	1,5	2,1	2,7
Gainontzeko zerbitzuak	0,5	-1,6	1,0	3,6	2,8	2,8
Balio erantsi gordina oinarritzko preziotan	-2,1	-1,7	1,4	3,3	2,7	2,9
Ekoiizkinen gaineko zerga garbiak	-1,1	-1,6	3,8	0,2	6,8	3,0

Iturria: Eustat.

Sektorekako analisiak agerian uzten du 2017an hiru sektore nagusien hazkunde erritmoak bat egiteko joera arina erakutsi zuela. Izan ere, aurreko urteetan industriak eta zerbitzuek erakutsi zuten garapen sendoari eraikuntzaren bultzada neurritsua gehitu zitzaion. Horrek egiaztatu zuen aurreko bi ekitaldietan hauteman zen eraikuntzaren susperraldi hasiberria. Aurrekoaren ondorioz, sektore dinamikoenaren, hots, zerbitzuen (%3,1) eta eraikuntzaren (%2,5) arteko aldea puntu erdi batekoa baino apur bat handiagoa izan zen, aurreko urtean zegoen aldea erdira murriztuz. Industriak (%2,7) bere erritmoa berriro bi hamarrenetan apaldu zuen arren, urte amaierako eta 2018ko hasierako datuek ez dute pentsarazten sektore horretan moteltzeko joera mamitzen ari denik.

Zerbitzuen taldeen analisiak iradokitzen du sektore osoa oinarri egonkorretan eta sendoetan bilakatzen ari dela. Alde batetik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %3,7 esanguratsu bat handitu zuen bere balio erantsia, aurreko datua nabarmen gaudituz. Beste aldetik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituen blokeak %2,7ko gehikuntza eskuratu zuen, azken sei urteko handiena. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek 2016ko datua (%2,8) berdindu zuten.

EAE-KO EKONOMIAREN BESTE ALDAGAI NAGUSI ZENBAIT

4. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB28=100)	119,7	117,2	119,0	119,8	120,9	122,4
Biztanleko BPG EAPan neurtuta (EB15=100)	109,3	107,5	109,0	110,5	111,7	114,0
BPG erreala merkatu prezioetan	-2,0	-1,7	1,6	3,0	3,1	2,9
Enplegua	-3,3	-2,9	0,2	2,1	1,9	2,1
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	1,4	1,3	1,4	0,9	1,2	0,8
BPG nominala merkatu prezioetan	-1,9	-1,3	2,2	3,2	3,4	3,9
BPGaren deflatoea	0,1	0,4	0,6	0,2	0,3	1,0
KPI (urteko batez bestekoak)	2,3	1,6	0,2	-0,3	0,0	2,0
Kostu guztiak langile bakoitzeko	0,7	1,7	-1,0	-0,6	-0,9	0,5
Langabezia tasa	11,8	15,1	16,1	15,3	13,4	11,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomiaren susperraldia finkatzen den heinean, hobera egiten du Europako herrialdeekiko posizio erlatiboak. Izan ere, 2017an EAEko biztanle bakoitzeko BPGa, EAPan neurtuta, 28 kidez osatutako Europar Batasuneko batez bestekoaren %23,0 inguru gainetik kokatu zen eta %14,0 batean gainditu zuen 15 kidetako EBko batez bestekoa, hots, eremuko herrialde garatuena. Hori dela eta, urtez urte berreskuratzen ari dira 2008tik bizi diren bi atzeraldietan galdu ziren posizioak.

Hainbat urtez ekonomiak gora egin ondoren, prezioak hasi dira goranzko tentsio txiki bat nabaritzen, baina oraindik ez da oso esanguratsua. Hain zuzen ere, BPGaren deflatoarea %1,0 handitu zen. Tasa hori oso apala da, kontuan hartuta 1995etik izan duen batez bestekoa %1,9 dela eta Europako Banku Zentralaren helburua inflazioa %2,0aren apur bat beherago jartzea dela. Hala ere, tasa horrek atzean uzten ditu aurreko sei urteetan jaso ziren balio ia hutsalak. Beste aldetik, KPIak %2,0ko igoera izan zuen urteko batez bestekoan, baina urte hasieran petrolioak izan zuen garestitzeak baldintzatuta. Iazko bigarren erdian inflazioa azkar moteldu zen eta 2018ko hasieran ere helburutik urrun dago oraindik.

2017an BPGak eta enpleguak izan zuten gorakadak %0,8 handitu zuen itxurazko produktibitatea, azken hogeita bi urteetako batez bestekoa (%1,1) baino zertxobait gutxiago. Produktibitatearen igoera beharrezkoa da biztanleriaren ongizatea hobetzeko. Produktibitatearen irabaziaren eta soldaten igoeraren arteko lotura oso estua izan da urte askoan. Hala ere, nazioarteko erakunde batzuek adierazi dute azken bi hamarkadetan bi aldagai horiek norabide ezberdina hartu dutela eta soldatak ez direla hazi produktibitatearen erritmoan. EAEkoaren kasuan, lotura estua hautematen da oraindik aldagaiak termino nominaletan aztertzen direnean, baina desbideratzea gauzatu da termino errealetan, soldatak produktibitatea baino gutxiago hazten ari direlako.

Soldaten analisiak iradokitzen du 2008tik aurrera dispertsioa gertatu dela soldata apalenen kaltetan, 2008tik 2016ra doan epealdian murriztu direlako. Soldaten jaitsiera hori bereziki garrantzitsua izan da soldata apala duten emakumeen kolektiboan. Dispertsio hori azaltzen duten faktoreetako bat sektore ekonomikoen bilakaera da, industriaren soldatak zerbitzuetaoak baino askoz ere gehiago igo direlako, eta emakume gehienek zerbitzuetan lan egiten dute. Soldaten dispertsioan eragina duen beste faktore bat lanbidea da. Agerian geratu denez, lanbide altuetan soldaten gehikuntza handiagoa izan da, okupazio baxuetan bere horretan geratu diren bitartean. Beste aldetik, epealdi horretan gazteak kaltetuta atera dira, beraien soldata nabarmen jaitsi delako.

Zergen diru bilketaren ikuspegitik, 2017an oso gehikuntza garrantzitsua jaso zen, neurri handi batean BEZaren doikuntzak izan zuen igoerari esker, kupoari buruzko akordioaren ondorioz. Efektu hori kenduta ere, datuak positiboak izan ziren, zerga nagusietan gorakada garrantzitsuak lortu zirelako, hala zuzeneko zergetan (PFEZ eta Sozietateak) nola zeharkako besteetan (zerga bereziak). Diru sarreren gehikuntzak eta gastuen murrizketak lagundu zuten kontu publikoak onbideratzen eta zorpetze maila gutxitzen.

Moneta politikaren alorrean, egoera parametro normalagoetara bideratzeko lehen mugimenduak eman dira. 2017an eta 2018ko lehen erdian, AEBek esku hartzeko interes tasa hainbat aldiz igo dute, une hauetan %2,0an kokatuta dagoelarik. EBZk, ordea, oraindik ez du interes tasa igo, baina bonuen erosketa murriztu du. Kreditua errazago lortzeko aukera egon arren, EAEko ekonomia, oro har, zorpetze maila gutxitu du, bai arlo pribatuan bai arlo publikoan.

Datozen urteei begira, Eusko Jaurlaritzako aurreikuspenek seinalatzen dute BPGa %2,8 haziko dela 2018an eta %2,3ra motelduko dela 2019an, hurrengo urtean %2,0an kokatuko delarik. Apaltzeko joera hori herrialde garatu nagusi guztietan gauzatuko da, bereziki espainiar ekonomian, eta azken urteetan susperraldia lagundu duten faktore batzuen amaierak eragingo du. Moneta politikaren norabide aldaketa eta AEBek hasi duen arantzel gerratik nazioarteko merkataritzan eratorriko diren tentsioak dira kanpotik EAEko ekonomia baldintzatuko duten arrazoi nagusietako bi. Aldi berean, enplegu sorreraren eta kontsumo pribatuaren hazkunde motelagoak azalduko du hazkunde erritmoaren leuntzea barne ikuspegi batetik.

Hazkundearen jarraipenak enpleguaren hobekuntza ekarriko du. Aurten lanpostuen kopurua %1,9 haziko dela aurreikusten da, 2019an, berriz, %1,4 eta 2020an %1,0. Portzentaje horiek adierazten dute hiru urte horietan 40.000 lanpostu garbi gehituko zaizkiola gaur egun daudenei. Orobat, langabezia tasak beheranzko joerari eutsiko dio eta 2019ko bigarren erdian %10,0aren azpian kokatuko da, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako ezarri zituen helburuetako bat betez.

1. EAE-KO EKONOMIAREN TESTUINGURUA

1.1 Munduko ekonomiaren bilakaera

Azken hamar urteak gertakari negatibo sorta batek baldintzatu ditu. Hasieran, 2008-2009 epealdiko munduko finantza krisia gertatu zen. Ondoren, 2010-2012 urteetan bizi zen zor subiranoko krisia. Azkenik, 2014aren eta 2016ren artean oinarritzko produktuen prezioak mundu osoan egokitu ziren, lehengaiak esportatzen dituzten herrialdeetan bereziki kalte eginez.

EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

5. taula

	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2016	2017	2016	2017	2016	2017
Mundua	3,2	3,8	2,8	3,0	---	---
Ekonomia garatuak	1,7	2,3	0,8	1,7	6,2	5,7
AEB	1,5	2,3	1,3	2,1	4,9	4,4
Japonia	0,9	1,7	-0,1	0,5	3,1	2,9
Europar Batasuna	2,0	2,4	0,2	1,7	8,6	7,6
Alemania	1,9	2,2	0,4	1,7	4,1	3,8
Frantzia	1,2	1,8	0,3	1,2	10,1	9,4
Erresuma Batua	1,9	1,8	0,7	2,7	4,8	4,4
Italia	0,9	1,5	-0,1	1,3	11,7	11,2
Espainia	3,3	3,1	-0,2	2,0	19,6	17,2
Garapen bidean daudenak	4,4	4,8	4,3	4,0	---	---
Asia	6,5	6,5	2,8	2,4	---	---
Amerika Latinoa	-0,6	1,3	5,6	4,1	---	---
Ekialdeko Europa	3,2	5,8	3,2	6,2	---	---

Iturria: NDF, Txinako National Bureau of Statistics eta Eurostat.


2017an, munduko jarduera bi urtez jarraian moteldu ondoren, BPGaren hazkunde tasak gora egin zuen eta %3,8ra iritsi zen. Balio horrek 2016an jasotako %3,2aren aldean bizkortze garrantzitsua ekarri zuen eta azken sei urtean munduak lortu duen hazkunde tasarik gorena da. Ekonomia adierazleen bilakaera kontuan hartuta, badirudi munduko jarduerak hazkundearen

norabidea berreskuratu duela. Horixe da NDFk zenbatetsi duena. Erakunde horrek uste du munduko ekonomiak epe laburrean erritmo horri eusteko eta baita gairatzeko aukerak dituela, baldin eta merkataritza politikaren balizko aldaketek ekarriko dituzten ziurgabetasunak eta arriskuak saihesten baditu, munduko finantza baldintzak bat-batean narriatzen ez badira eta tentsio geopolitikoak baretzen badira. Izan ere, erakunde horrek %4,0aren inguruko hazkundeak zenbatetsi ditu 2018rako eta 2019rako.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia

Ekonomia garatuak



Azaleratzen ari diren ekonomiak



Iturria: NDF.

Analisia 2017an fokatuta, ekonomiaren hobekuntza orokorra izan zen eta munduko herrialdeetatik bi heren aurreko urtean baino gehiago hazi ziren. Ekonomia aurreratuetan, politika egokitzaleek, familien konfiantzaren hobekuntzak eta enpresen inbertsioaren portaera onak, aurreko urteetako moteltasunaren ondoren sendotasun handiagoa erakutsi baitzuen eta munduko merkataritza areagotu baitzuen, ekonomia jarduerari mesedea egin zioten. Azaleratzen ari diren ekonomietan, politika ekonomiko hedatzaileagoak ezarri izanak, ekonomia garatuen eskariaren hazkundeak eta lehengaien salneurrien norabide aldaketak Txinako jardueraren bizkortze arina, Ekialdeko Europako jardueraren berpiztea eta Brasil, Argentina eta Errusia atzeralditik ateratzea lagundu zuten. Beste aldetik, inflazioa nahiko hazi zen 2017an, neurri handi batean lehengaien salneurrien gorakadaren ondorioz, zeren eta azpiko osagaia egonkorrago mugitu baitzen, banku zentralen helburuetatik urrun.

1.2 Analisia herrialdeka

Azken urteetan, munduko hazkundearen motorra azaleratzen ari diren herrialdeak izan dira. Ekonomia aurreratuak 2009an atzeraldian sartu ziren eta ondorengo urteetan susperraldi nahiko neurritsua erakutsi zuten bitartean, azaleratzen ari diren ekonomiek hazkunde erritmo altu samarrari eutsi zioten, nahiz eta erritmo hori galgatu egin zen, 2010eko %7,4tik 2015eko %4,3ra. 2016an, beheranzko joera hori iraultzea lortu zen eta 2017an eskuratu zen %4,8ko hazkundeak baieztatu zuten.


Azaleratzen ari diren herrialdeen artean, Amerika Latinoaren susperraldia nabarmendu zen. Eremu horrek beheranzko joerari ekin zion 2014an eta %0,6 gutxitu zen 2016an, baina 2017an %1,3 haztea lortu zuen. Hainbat faktorek argitzen dute bizkortze hori. Alde batetik, lehengaien garestitzeak eta Eurogunearen, AEBen, Txinaren eta Japoniaren bilakaera onak munduko salerosketen gehikuntza garrantzitsua lagundu zuten. Eta, beste aldetik, Brasileko susperraldiak, eremu horretako ekonomiarik handiena baita, eremu osoari bultzada eman zion. Brasilek gehien esportatzen dituen lehengaien (petrolioa, burdin minerala eta soia) prezioek izan zuten amiltzeak bi atzerakada eragin zituen 2015ean eta 2016an, %-3,6koa eta %-3,5ekoa, hurrenez hurren. Horrek atzeraldia, inflazio altua eta krisi politikoa ekarri zituen. 2017an, lehen arloaren bultzada handiak, %13,0 hazi baitzen soiaren eta artoaren uzta inoizko handiena izan zelako, familiaren kontsumoaren hazkundeak (%1,0), BPGaren %63,4aren erantzulea baita, esportazioek (%5,2) eta zerbitzuek (%0,3) ekonomia jarduera %1,0 igotzea ahalbidetu zuten. Orobat, inflazioa %2,8an geratu zen 2017an, aurreko urtean %10,7 hazi eta gero. Langabeziak, berriz, %12,2ra murriztu zen.

Asiak 2016ko jarduera erritmoari eutsi zion eta %6,5 hazi zen. Beste urtebete batez, eremu horretako hazkundearen bultzagile nagusia Txina izan zen eta herrialde hartako BPGa %6,9 handitu zen, 2016ko emaitza bi hamarrenetan gaindituz. Gehikuntza horrek merkatuaren igurikimenak eta gobernuak ezarri zuen hazkunde helburua (%6,5) gainditu zituen. Halaber, 2010etik lortzen duen lehen bizkortzea da. Hobekuntza kontsumoaren eta esportazioen portaera onaren ondorioa da. Zorpetzea murrizteko indarrean jarri ziren erreformek, enpresen konfiantzaren igoerak, enplegu sorrerak (langabezia tasa %3,9an kokatu zen), kapital irteeren egonkortzeak eta dolarraren aldean yuanak izan zuen balio irabaziak lagundu zuten bide horretan. Hazteko eredu berria finkatuta dagoela eta sendoa dela ematen du. Halaber, suspertzeko ahalmena duela erakusten du, azken urte zurrunbilotsuen ondoren. Kezka, ekonomia horren zorpetze handian dago, aurreikusi gabeko ondorioak izan ditzakeen finantza krisi bat sortu dezakeelako.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

5. irudia


Amerika Latinoa




Brasil



Txina



India



Iturria: NDF.

Txinarekin batera, Indiak ere azaleratzen ari diren beste herrialde batzuek baino hobeto eutsi dio munduko ekonomiaren moteltzeari. Herrialde esportatzaileetan ez bezala, Indian petrolioaren prezio merkeak mesedea egin zion ekonomiari. Halaber, bertako gobernuak ahalegin handia egin zuen inbertsioak areagotzeko eta horri esker herrialdearen hazkundera bizienetakoa izan zen. Izan ere, Indiako ekonomiaren batez besteko hazkundera azken hamar urtean %7,3 izan da. 2016an eta 2017an, jarduerak indarra galdu zuen, gobernuak hartutako neurrien ondorioz. Neurrien artean, billeteen batzuen desmonetizazioa (2016an) dago. Bi

neurri horiek nabarmen apaldu zituzten kontsumoa eta inbertsioa, eta haiekin batera BPGaren bilakaera. Hala ere, ekonomia jarduera %6,7 gehitu zen.

Garatzen ari diren Europako herrialdeen artean, aipamen berezia merezi du Errusiaren bilakaerak, bi urteko atzeraldiaren ondoren, 2017an berriro hazi zelako. Zehatz-mehatz adierazita, 2015ean eta 2016an Errusiak krisi sakon batean bizi zen, 2002tik inoizko larriena, eta herrialdeko ekonomia %-2,5 eta %-0,2 gutxitu zen, petrolioaren prezioa jaitsi zelako eta Ukrainiako krisiaren ondorioz Mendebaldeko herrialdeek zigorrak ezarri zizkiotelako. Aurreko guztiak nabarmen murriztu zuen familien erosteko ahalmena eta kontsumoaren, inbertsioaren eta esportazioen beherakada garrantzitsua eragin zuen. 2017an, industriaren susperraldiak, %1,2 hazi baitzen, 2016ko datua bikoiztuz, eta gasaren esportazioenak, Alemaniaren eta Austriaren eskari handiagoak bultzatuta bereziki, aukera eman zioten Errusiari suspertzeko eta %1,5 hazteko. Tasa hori garrantzitsua da, baina oraindik urrun dago krisiaren aurretik jasotzen zituen %7,0aren inguruko tasetatik.

Ekonomia aurreratuei dagokienez, horiek hazkunde sendoa erakutsi zuten. AEBetan, kontsumo pribatuaren bilakaera nabarmendu zen, inflazio apalak (%2,1) eta lan merkatu osasuntsuak lagunduta. Bertako langabezia tasa %4,4an zegoen. Horrek esan nahi du enplegu beteko egoera batean dagoela. Beste aldetik, egoitzetan eginiko inbertsioak indartsu suspertu zen, 2016an nozitu zuen beherakada biziaren ondoren. Joera horretatik urrun, kanpo arloak hamarren bat kendu zion jarduerari, inportazioen hazkunde handiagoaren ondorioz. Halere, BPGa %2,3 hazi zen, 2016an baino zortzi hamarren gehiago.


Japonian, ekonomia jarduerak sendotasuna erakutsi zuen. Bertako BPGa %1,7 hazi zen, hots, 2016an baino zortzi hamarren gehiago, eta azken lau urteko gehikuntzarik handiena izan zen. Yenaren balio galerak, urteko une batzuetan dolar bakoitzeko 113 yenetara jaitsi baitzen, esportazioei (%6,8) mesedea egin zien, bereziki Txinara eta AEBetara bideratu baitziren. Izan ere, kanpoan saldutakoak 1,1 puntu ekarri zizkion jarduerari, nahiz eta inportazioen gorakadak datu hori zerbait gutxitu zuen. Beste aldetik, kontsumo pribatua, Japoniako BPGaren %60,0 inguru ordezkatzeko duenez, osagai gakoa da hango ekonomian eta %1,1 hazi zen, 2016an baino puntu oso bat gehiago, finantza baldintza egokitzaileek bultzatuta. Horri esker, agregatua finkatuta geratu zen, 2014an eta 2015ean bizi zituen uzkurduren ondoren. Hala eta guztiz ere, Japoniako BPGaren bilakaera zalantzarikoa da, zeren eta suspertze bakoitzaren ondoren moteltze bat gauzatzen baita (kasu batzuetan jaitsierak gertatzen dira). Horrek agerian uzten ditu egiturazko ahultasunak eta bidea ixten dio susperraldiari.

Japoniako gobernuaren beste kezka iturriak, hots, prezioek, %0,5eko tasan amaitu zuten 2017. urtea. Tasa hori urrun dago %2,0ko helburutik, baina gutxienez eremu positibora itzuli dela adierazten du. Lan merkatuan, langabezia tasa %2,9an kokatu zen, 1994tik inoiz izan duen mailarik apalena baita. Halere, lan merkatuaren sendotasunak ez du berarekin ekarri soldaten hazkundera eta hori beharrezkoa da enpresen mozkinen hazkunderak, soldatek eta kontsumoak osatzen duten zirkulua osatzeko eta duela ia bi hamarkadatik munduko hirugarren ekonomiak bizi duen deflazioari behin-betiko amaiera emateko.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


AEB




Japonia



Europar Batasuna



Alemania



Iturria: NDF eta Eurostat.

Europar Batasunak 2013an hasi zuen ekonomia susperraldia 2017ra ere luzatu zen eta ziurgabetasunen aurrean, hala politikoak (Brexit, Holandako, Frantziako eta Alemaniako hauteskundeak, Kataluniako krisia) nola ekonomikoak (Trumpen erabakiak), daukan eusteko ahalmena frogatu zuen. Izan ere, Europar Batasuneko hazkundera finkatu eta orokortu zen, eta lehenengo aldiz 2007tik, eremua osatzen duten herrialde guztiek hazkunde tasa positiboak lortu zituzten. Kontsumo pribatuari eta, batez ere, inbertsioari mesede egin zien oraindik oso egokiak diren finantza baldintzek eta ekonomiaren hazkunderaren gaitasunean dagoen konfiantzaren hobekuntza azpimarragarriak. Horri esker, Kontinente Zaharra %2,4 hazi zen eta, bigarren urtez jarraian, AEBen gehikuntza tasaren gainean kokatu zen. Kanpo arloak ere lagundu zion jarduerari, puntu erdi bateko ekarpen batekin, esportazioen bilakaera onaren ondorioz, munduko merkataritzaren hobekuntza islatuz.

Zehatz-mehatz adierazita, Alemaniak eta Frantziak 2011tik jaso duten emaitzarik handiena eskuratu zuten. Alemanian, inbertsioaren eta, neurri txikiagoan, kontsumo pribatuaren sendotasunak barne eskaria bultzatu zuen, kanpo arloaren kenketa konpentsatuz. Lan merkatuaren portaera onak, langabezia tasa minimotan eta landunen kopurua maximotan baitaude, familien kontsumoari mesede egin zion. Aurreko guztiaren ondorioz, Alemaniako BPGa %2,2 hazi zen, 2016an baino hiru hamarren gehiago. Ekonomia galiarraren bilakaera alemaniarrenaren antzekoa izan zen, baina hango kontsumo pribatuak ezin izan zion 2016ko hazkunde erritmoari eutsi. Halere, kontsumoaren moteltze hori inbertsioaren ekarpen handiagoak konpentsatu zuen. Beraz, Herrialde hartako BPGa sei hamarren gehiago hazi zen, %1,8 arte, bosgarren urtez jarraian hazkunde tasa bizkortuz.


Beste aldetik, bai Italiak bai Portugalek 2016ko makalaldia gainditu zuten eta 2014an hasitako goranzko norabidea berreskuratu zuten, bi herrialde horien ekonomien egoera ona baieztatuz. Bi kasuetan, hazkundera, inbertsio sendoaren eskutik iritsi zen, Portugaleko kasuan %9,0 baino gehiago hazi baitzen. Orobat, kontsumo pribatuak aurreko urteko emaitzari eutsi zion eta kontsumo publikoa indarge (%0,1 Italian) eta baita eroria ere (%-0,2 Portugalen) agertu zen. Aldakuntza horien ondorioz, Italiako BPGa %1,5 areagotu zen eta Portugalekoa, berriz, %2,7. Beraz, bi herrialde horiek, lehenengo aldiz 2007tik, krisiaren aurrean jaso zituzten hazkunde erritmoak berreskuratu zituzten.

Europar Batasuneko BPGa azken hamar urteko erritmo handiengan hazi bazen, britainiar ekonomiaren joera guztiz kontrakoa izan zen. Hain zuzen ere, Erresuma Batuak %1,8ko gehikuntza jaso zuen 2017an, aurreko urtekoa baino hamarren bat gutxiago eta 2012tik izan duen hazkunde tasarik txikiena. Liberaren balio galerak eragin negatiboa izan zuen familien

erosteko ahalmenean eta horrek kontsumo pribatuan, moteltze garrantzitsua pairatu baitzuen. Esportazioen eta enpresen inbertsioaren bizitasun handiagoak ezin izan zuen kontsumo pribatuaren moteltzea konpentsatu. Beheranzko joera hori baieztatuta geratu da 2018ko lehen hiruhilekoko datuekin (%1,2), britainiar ekonomiak berriro indarra galdu duelako. Badirudi Brexit-etik eratorritzen den ziurgabetasunak herrialdearen ekonomia kaltetzen hasi dela.

BPGaren bilakaera zenbait herrialdetan
Urte arteko aldakuntza tasak

7. irudia



Iturria: NDF eta Eurostat.

Europar Batasuneko ekonomia jardueraren hobekuntza lan merkatura igaro zen, 2013an hasi zuen hobekuntza leunari jarraipena emanez. Izan ere, Europar Batasuneko langabezia tasa %7,6an kokatu zen 2017an, 2008tik jaso duen mailarik txikiena baita. Eremua osatzen duten herrialde guztiek beren balioak hobetu zituzten aurreko urtearen aldean eta 2017an zehar 2.000.000 lanpostu baino gehiago berreskuratu ziren. Are gehiago, eremuko 28 herrialdeetatik bederatzik lan merkaturia krisiaren hasieran baino onbideratuagoa zeukaten 2017an. Beste muturrean, langabezia tasa altuenak Grezian (%21,5), Espainian (%17,2) eta Kroazian (%11,2) zeuden, nahiz eta herrialde horiek gainontzekoek baino gehiago murriztu zuten langabezia 2017an.

Nahiz eta ekonomiaren jarduerak gorantz doan, inflazioa maila neurritsuan ibili zen 2017an zehar eta albo batera uzten bada apirileko datua, %2,0ra iritsi baitzen, iazko gainontzeko hileko guztietan inflazioa EBZk ezarri duen helburuaren azpian kokatu zen. Hala eta guztiz ere, 2016an herrialde guztiek antzeko tasak izan bazituzten, 2017an alde handiak hautematen hasi ziren. Hain zuzen ere, prezioen gehikuntza bi muturretan jarrita, mutur batean Lituaniaren edo Estoniaren %3,7 egongo zen eta bestean Irlandaren %0,3.

1.3 Espainiako ekonomia

Espainiako ekonomia berriro nabarmendu zen bazkideen artean, 2017an izan zuen bizitasunagatik eta sendotasunagatik, %3,1 hazita. Tasa hori bat dator Espainiako Bankuaren zenbatespenekin eta gobernuaren aurreikuspen ofizialekin. Orobat, hirugarren urtez jarraian espainiar ekonomia %3,0 baino gehiago hazi zen. Hazkunde erritmoa oraindik bizia zen arren, 2015ean hasi zen moteltzeko joera arina begi bistakoa da, urte hartan ekonomia jarduera %3,4 areagotu zelako.

Hazkundera bultzatu duten faktoreetako bat kontsumo pribatua da, gorakada garrantzitsua lortu zuelako. Enplegu sorrerak, finantzaziorako kostu txikiak eta kreditu erabilgarritasun handiagoak familien errenta erabilgarria igorarazi zuten, eta horrek kontsumo pribatua. Orobat, inbertsioa, hala eraikuntzan eginikoa nola ekipamendurako ondasunetan eginikoa, sendo hazi zen, 2006tik jaso gabeak ziren tasa batzuk lortu arte. Beste aldetik, esportazioak areagotu ziren, lehiakortasun irabaziarri esker. Aurreko guztiak lagundu zuen hazkunde orekatuko ekonomia bat aurkezten, barne eskariaren aldetik zein kanpo saldoaren aldetik ekarpen positiboak izan dituen. Krisiaren urteetan, hazkundera, neurri handi batean, kanpo arloak eginiko ekarpenean

oinarritu zen. Horren argigarri, 2011n kanpo saldoak BPGari 2,5 puntu ekarri zizkion, nahiz eta hazkundera negatiboa izan zen. Hala ere, 2017an barne eskariak protagonismo ia osoa bereganatu zuen eta bultzatzaile nagusiaren papera hartu zuen, jarduera ekonomikoari 2,8 puntuko ekarpena emanez.

Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiek, maila agregatuan, hazkunde positiboak lortu zituzten, salbuespen bakarra finantza eta aseguru jarduerak zirelarik, berriro behera egin zutelako. Jardueraren datu onek enplegu sorrera ekarri zuten berekin eta lanaldi osoko ia 490.000 lanpostu baliokide sortu ziren 2017an. Horrek esan nahi du urteko batez besteko gehikuntza %2,8 izan zela, 2016an jasotako datuaren oso antzekoa eta lan merkatuaren bizitasun sendoa agerian uzten duena. Azkenik, urte hasieran argindarraren garestitzeak eragin zuen gorakada biziaren ondoren, inflazioak beheranzko joera erakutsi zuen gainontzeko hilekoetan, 2018ko hasierara ere luzatu dena.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015(B)	2016(A)	2017(A)
Azken kontsumoko gastua	-3,8	-2,9	1,1	2,8	2,5	2,2
-Familien gastua kontsumoan	-3,6	-3,2	1,5	3,0	2,9	2,4
-Administrazioaren gastua kontsumoan	-4,7	-2,1	-0,3	2,1	0,8	1,6
Kapital eraketa gordina	-8,6	-3,4	4,7	6,5	3,3	5,0
Esportazioak	1,1	4,3	4,3	4,2	4,8	5,0
Inportazioak	-6,4	-0,5	6,6	5,9	2,7	4,7
BPG	-2,9	-1,7	1,4	3,4	3,3	3,1
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	-9,7	13,6	-1,2	-2,4	6,9	3,7
Erauzketa industriak eta manufaktura industriak	-4,9	-3,9	2,0	5,4	3,6	3,7
Eraikuntza	-8,8	-10,5	-2,0	2,4	1,9	4,9
Zerbitzuak	-1,5	-0,6	1,3	2,6	3,0	2,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	-4,0	-4,3	4,0	8,6	4,4	4,2
Gogoratzekoak:						
-Kontsumo prezioen indizea	2,4	1,4	-0,2	-0,5	-0,2	2,0
-Enplegua	-4,8	-3,4	1,0	3,2	3,0	2,8

(B) Behin-behinekoa (A) Aurrerapena.

Iturria: INE.

2. EAE-KO BARNE PRODUKTU GORDINA

2.1 Ekoizpen arloak

2017an, EAEko barne produktu gordina %2,9 hazi zen eta urtean zehar sendotasuneko eta iraunkortasuneko joera marraztu zuen hazkundean. EAEko ekonomiari mesedea egin zioten EBZren politika hedatzaileak, petrolioaren salneurriak (urteko batez bestean) izan zuen jaitsierak, munduko ekonomiaren testuinguru baikorrak eta turismo arloak izan zuen urte bikainak. Termino nominaletan, EAEko BPGa %3,9 handitu zen aurreko urtearen aldean, deflatoarea %1,0 igo zen bitartean, bere txikian azken zazpi urteko tasarik gorena baita.

Eskaintzaren ikuspegitik, 2017an ekoizpen sektore guztiek ekarpen positiboa egin zioten EAEko balio erantsiari, salbuespen bakarra lehen arloa izan zela. Nekazaritza eta arrantza biltzen dituen sektoreak, berezkoa duen hegakortasunean, %3,0ko beherakada pairatu zuen urteko batez bestekoan, laugarren hiruhilekoa bereziki negatiboa izan zela. Beste aldetik, gainontzeko sektoreetan, hiruhilekokako bilakaerak hobekuntza gehikorra eta dinamikoa izan zuen. Industriari dagokionez, munduko eta barneko ekonomia hazkundearen egonkortasuna beraren jardueraren garapenaren oinarria izan zen. Eraikuntzak tasa positiboak eta esanguratsuak jaso zituen, sektore horrek berriro laguntzen duela EAEko ekonomiaren garapenean agerian utziz. Azkenik, zerbitzuek ere bizkortzeko joera erakutsi zuten 2017an eta ekonomiaren sektore dinamikoena izan zen, beraren azpisektore guztiek hazkunde tasa sendoak eskuratu zituztela.

Dagoeneko adierazi denez, lehen arloaren balio erantsia %3,0 gutxitu zen 2017an, bi urtez jarraian hazkunde positiboak kateatu eta gero. Termino nominaletan, 2017ko aldakuntza tasa %5,0 izan zen, 2016rako zenbatetsi zena baino zertxobait txikiagoa. Datu horiek esan nahi dute sektorearen deflatoarea %8,2ra iritsi zela.

Nekazaritzari dagokionez, 2017an azken ekoizpenak behera egin zuen laborantza azpiatalean eta igo, ordea, basogintzan eta abeltzaintzan. Izan ere, laborantzako produktuen bolumena jaitsi zen zerealen, mahastien eta ortuarien ekoizpena gutxitu zelako. Apirileko izozteak, udaberri lehor eta beroak, errendimenduaren eta ereindako azaleraren jaitsierak eragin zuten laborantzako ekoizpenaren murrizketa. Batez beste, prezioak igo ziren laborantzako azpisektorean, garestitze garrantzitsuak mahats beltzak, zerealek eta tomateak ezagutu zituztela. Beste aldetik, baso ekoizpenak goranzko joera erakutsi zuen mozketetan, bereziki

intsinis pinuarena mendi pribatuetan, hainbat urtez narriadura sakona bizi ondoren. Bolumenaren jaitsierak eta intsinis pinuaren salneurriak izan zuen nolabaiteko susperraldiak basogintzaren azken ekoizpenaren balioa nabarmen handitu zuten, nahiz eta oraindik urrun dagoen azpisektorea hondatu zuen higiezinaren krisiaren aurretik ohikoak ziren emaitzetatik. Abeltzaintzari dagokionez, 2015eko jaitsieraren ondoren, ekoizpenak goranzko joera erakutsi du eta prezioak ere igo dira.

LEHEN ARLOKO ADIERAZLE NAGUSIAK

7. taula

Urte arteko aldakuntza tasak					
	2013	2014	2015	2016	2017
BEG bolumeneko indizea	-3,1	-20,0	13,1	2,0	-3,0
BEG uneko prezioak	0,5	-9,5	3,9	6,4	5,0
Deflatorea	3,8	13,2	-8,1	4,2	8,2
Enplegua	-5,5	-1,3	-1,0	0,6	0,1
Produktibitatea	2,5	-19,0	14,3	1,4	-3,1

Iturria: Eustat.

Arrantzak kanpaina ona aurkeztu zuen 2017an, harrapaketen bolumena handitu zelako eta, batez beste, lonjetan gehien merkaturatzen diren espezien salneurriak goranzko joera hartu zuelako. 2017an ur komunitarioetan ezarri zen urteko harrapaketa kopurua (TAC) onuragarria izan zen EAEko altura armadoreentzat eta kofradientzat. Beste aldetik, sektorearen kezka nagusiak bi esparrutan fokatu dira: batetik, azken hamarkadan EAEko familietan arraina kontsumitzeko ohitura gutxitu da eta, beste aldetik, Lurraren berotzea eta horrek arrantzan eta itsaspeko ekosisteman etorkizunean izango dituen ondorioak.

EAEko industriak %2,7ko hazkundera jaso zuen 2017an, aurreko urtean eskuratutakoa baino bi hamarren txikiagoa baita. EAEko industriaren balio erantsi gordinaren gehikuntza ahalbidetu zuten faktore behinenak izan ziren, alde batetik, EAEko esportazioen helburu esparrua osatzen duten ekonomien hazkunde positiboa eta, beste aldetik, EAEko barneko eskariaren bultzada. Industria jarduerak dagoeneko lau urte pilatu ditu hazkunde tasa positiboak biltzen. Hala eta guztiz ere, 2017an beraren balio erantsia oraindik azken krisiaren aurrean zeukan mailaren azpian zegoen.

EAEko industriaren balio erantsiak urtean zehar erakutsi zuen norabideak bizkortzeko joera gehikorra eta bizia islatu zuen hiruhilekoan aurrera zihoazen heinean. Industria sektorearen joera positibo hori Eustatek zenbatesten dituen IPI adierazlearen serietan ere hauteman zen, 2017an zehar dinamismo positiboari eutsi ziolako. IPIaren bilakaera ziklikoaren barnean, ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkatzen diren talde guztiek hazkunde positiboa izan zuten, salbuespen bakarra ekipamendurako ondasunen ekoizpena izan zelarik. Talde hori moteldu egin zen eta urte arteko hazkunde tasa eremu negatibora igaro zen, nahiz eta zifra txikia izan zen. Gainontzeko talde guztiek bizkortze garrantzitsuak eskuratu zituzten ekoizpenaren hazkunderan.

EAE-KO INDUSTRIAREN BEG-AREN BILAKAERA**8. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak.

	2013	2014	2015	2016	2017
BEG bolumeneko indizea	-2,8	2,2	3,1	2,9	2,7
BEG uneko prezioetan	-2,7	0,8	4,4	2,7	4,2
Deflatoarea	0,1	-1,5	1,3	-0,2	1,5
Enplegua	-4,0	-1,0	1,3	1,7	1,7
Produktibitatea	1,2	3,3	1,7	1,2	0,9
Industria produkzioaren indizea	-3,1	1,4	3,5	2,3	2,9
Industria jarduera indizea	-2,3	-3,5	5,6	-1,9	2,2

Iturria: Eustat eta Iberdrola.


EAEko industria ekoizpenaren analisi zehatzago batek, Eustatek jardueraz argitaratzen dituen hamabost azpisektoreetan oinarrituta, goranzko joera esanguratsua erakusten du industria kimikoan, metalurgian eta kautxua eta plastikoak osatzen duten taldean. Beste aldetik, farmaziako produktuek eta ehungintzak hazkunde tasa negatiboak eskuratu zituzten 2017an zehar.

Industriaren lan merkatuan, enplegua sortzeko prozesua finkatu zen eta aurreko urtearekiko aldakuntza tasa %1,7an kokatu zen, aurreko urtean lortutako datua berdinduz. Emaidza horrek eta sektorearen balio erantsi gordinaren gehikuntzak %0,9an uzten dute 2017ko irabazia produktibitatean. Zenbaki hori apal samarra da sektoreak lortzen dituen kopuruen aldean, produktibitate altuko jarduera delako.


EAEko industria ekoizpenaren ziklo bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera
Urte arteko aldakuntza tasak

8. irudia


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumuko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eraikuntzaren sektoreak susperraldia finkatu du eta 2017an hiru urte kateatu zituen bere balio erantsia areagotzen. Hain zuzen ere, eta urteko batez bestekoan, sektore horren ekoizpena %2,5 handitu zen. Tasa hori esanguratsua da. Sektorearen azpiatalak aztertuta, bi osagaiak portaera ezberdina izan zutela begi bistan geratzen da. Izan ere, eraikinen adarrak bizitasun handia ezagutu zuen eta obra zibilak, ordea, etengabeko narriadura garrantzitsua pairatu zuen berriro.

Kuantitatiboki, Eustatek argitaratzen duen eraikuntzaren koiuntura indizearen arabera, eraikinen azpiatalaren gehikuntza tasa %7,9ra iritsi zen 2017an. Orobat, obra zibilaren beherakada %9,3 izan zen. Bide beretik, eta eraikinen atalak izan zuen bultzada sendoa erakutsiz, etxebizitza berriak eraikitzeke bisatuen hazkundea bereziki garrantzitsua izan zen 2017an.

ERAIKUNTZA ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK**9. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017
BEG bolumeneko indizea	-4,6	-1,7	1,1	1,8	2,5
BEG uneko prezioak	-8,0	-2,1	1,2	2,5	3,2
Deflatorea	-3,6	-0,4	0,1	0,7	0,7
Enplegua	-11,9	-3,4	2,2	0,0	1,6
Produktibitatea	8,3	1,7	-1,0	1,8	0,9
Etxebizitzaren salerosketak	-12,4	8,8	21,1	12,2	5,6
Prezioa €/m ²	-20,8	4,4	-3,7	-18,1	2,0
Hasitako etxebizitzak	-21,8	-7,6	-16,9	77,2	---
Amaitutako etxebizitzak	-32,9	-16,8	15,4	-37,4	8,7
Bisatuak. Etxebizitzaren kopurua	-10,2	0,6	40,1	-14,0	20,2
Zementuaren itxurazko kontsumoa	-23,6	-4,7	-0,2	2,2	5,7

Iturria: Eustat, INE, Oficemen eta Sustapen Ministerioa.

Eraikuntzaren lan merkatuak hobera egin zuen 2017an eta urte osoko hiruhileko guztietan aldakuntza tasa positiboa lortu zuen. Jarduera adar horrek ez zuen enplegurik sortzen 2007tik, salbuespen bakarra 2015. urtea izan zela. Balio erantsiaren eta enpleguaren bilakaerak iradokitzen du sektorearen produktibitatea %0,9 handitu zela, kasu horretan irabazi historikoa hainbat hamarrenetan hobetuz.

Zerbitzuen jardueraren urte arteko hazkunde tasa %3,1 izan zen 2017ko batez bestekoan, aurreko urtean balio erantsian jaso zen gehikuntza baino hiru hamarren handiagoa. Zerbitzuen bilakaera positibo hori orokorra izan zen kontabilitatearen banaketan kontuan hartzen diren azpiatal guztietan. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak dinamismo handiena erakutsi zuen bere jardueran eta bere hazkunde tasa %3,7ra iritsi zen.

Beste aldetik, administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen multzoa %2,7 hazi zen. Hirugarren taldean, gainontzeko zerbitzuak barnean hartzen baititu, urte arteko hazkunde tasak norabide egonkorra marraztu zuen eta aurreko urteko aldakuntza tasa berdindu zuen (%2,8).

ZERBITZU ARLOAREN ADIERAZLE NAGUSIAK**10. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017
BEG bolumenen indizea	-1,0	1,7	3,5	2,8	3,1
BEG uneko prezioak	-0,5	2,0	3,7	3,4	3,7
Deflatoarea	0,5	0,3	0,2	0,7	0,6
Enplegua	-1,6	1,0	2,4	2,1	2,2
Produktibitatea	0,6	0,7	1,1	0,6	0,8
Bidaiarien gualdiak	-3,1	4,0	8,2	8,9	2,6
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,89	1,92	1,91	1,94	1,92
Plazen betetze maila (ehunekoa)	44,3	46,4	49,8	53,0	54,2
Zerbitzuen koiuntura indizea	-5,0	1,3	2,5	2,9	1,8

Iturria: Eustat.

Merkataritza azpiatalaren adierazle estatistikoek portaera ona erakutsi zuten 2017an zehar. Izan ere, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak (ZKI) merkataritza eta motordun ibilgailuen konponketa eta handizkako merkataritza adarretan jaso zen hazkunde garrantzitsua islatzen du. Beste aldetik, 2017rako, txikizkako merkataritza indizeak merkataritza kategorian horretan moteltze arina zenbatetsi zuen, ibilgailuetarako erregaien salmentaren jaitsierak eraginda. Lan merkatuari dagokionez, ZKI indizeak enplegu sorrera garrantzitsua zenbatetsi zuen merkataritzaren sektore osoan, joera hori azpisektore guztietara hedatu zena.

Zerbitzuen koiuntura adierazleak ere hazkunde nabarmena seinatzen du ostalaritzarekin zerikusia duen jardueran eta zerbitzuen sektorearen barruan dagoen azpiatal dinamikotzat jotzen du. Joera bera islatzen duen beste argibide estatistiko bat Eustatek argitaratzen duen establezimendu turistiko hartzaileen inkesta da. Izan ere, turisten batez besteko egonaldia 1,92 egunetan egonkortu zen. Beste aldetik, plazaka neurtutako okupazio maila areagotu zen eta

%54,2ra iritsi zen. Datu horrek errekor historikoa markatu du eta balio maximoa abuztuan lortu zuen, okupazioa %77,7an kokatu zenean. Orobat, EAEko hotel establezimenduen kopurua handitu zen eta, era berean, hoteletan eskaintako plazen eskaintza areagotu zen lurralde osoan. Etorritako bidaiarien kopuruak bilakaera bikaina izan zuen eta %3,6 hazi zen aurreko urteko datuaren aldean. Estatuko gainontzeko erkidegoetatik iritsitako turisten kopurua oso gutxi handitu bazen ere (%0,6), atzerritik etorritakoen kopuruak hazkunde aparta (%8,5) lortu zuen. Nabarmentzekoa da atzerritar turisten kolektiboa bisitari guztien %40 izatera iritsi zela 2017an. Gorakada horretan, azpimarratu behar da Errusiatik, (Ipar zein Hego) Amerikatik eta Asiatik (Japoniatik eta Txinatik) etorri ziren turisten hazkunde handia.

ZERBITZUEN BEG-AREN BILAKAERA AZPISEKTOREKA. BOLUMENAREN INDIZE KATEATUA **11. taula**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017
Zerbitzuak guztira	-1,0	1,7	3,5	2,8	3,1
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-1,5	1,9	5,0	3,3	3,7
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	0,7	2,6	1,5	2,1	2,7
Gainontzeko zerbitzuak	-1,6	1,0	3,6	2,8	2,8


Iturria: Eustat.

Garraioaren azpiatalari dagokionez, beraren jardueraren dinamismoa begi bistakoa da ZKIren 2017ko bilakaera positiboan. Beste aldetik, AENAK argitaratu dituen datuek susperraldia adierazten dute EAEko aireportuetan, batez beste bidaiarien kopurua %9,2aren inguruko hazkunde esanguratsua eta orokorra hazi zelako. Bereziki garrantzitsua da Forondako aireportuan gauzatu ziren eragiketen eta bidaiatu zuten lagunen gorakada, helmuga berriekin lan egiten duelako. Salgaien trafikoari dagokionez ere, Forondako aireportuak bizitasun handia (%16,0) erakutsi zuen. Hala ere, Loiuko aireportua de EAEko erreferentzia nagusia eta bere jarduerak gehikuntza esanguratsua izan zuen.

2.2 Eskaria

EAEko ekonomia jarduera barne eskariaren sendotasunari esker hazi zen 2017an. Barruko eskariaren gorakada familiek azken kontsumoan eginiko gastuaren eta kapital eraketa

gordinaren bilakaera positiboan oinarritu zen. Izan ere, inbertsioa izan zen barne eskariaren agregaturik dinamikoena. Hain zuzen ere, kapital eraketa gordinak %3,5era arte areagotu zuen bere gehikuntza tasa. Kategoria horretan, ekipamendurako ondasunak nabarmendu ziren, gainontzeko inbertsioarena baino bilakaera dinamikoagoa erakutsi zutelako. Beste aldetik, azken kontsumoan eginiko gastuak ere susperraldia finkatzeko zantzuak erakutsi zituen 2017an zehar, familien kontsumoak izan zuen hazkunde garrantzitsuari esker. Kanpo eskariari dagokionez, BPGari eginiko ekarpena negatiboa, baina txikia, izan zen, hamarren bakarrekoa.



Iturria: Eustat.

Familiek azken kontsumoan egin zuten gastua %3,0 hazi egin zen 2017an, urte arteko tasan neurtuta. Kontsumitzaileek konfiantza berreskuratzen jarraitu zuten, ekonomiaren bilakaeraz igurikimen hobekak dituztelako, interes tasa eta prezioak oraindik apalak direlako eta, batez ere, lan merkatuaren portaera hobetu delako. Administrazio publikoen gastuak emaitza motelagoa eskuratu zuen urteko balantzean, urte osoko hazkunde tasa %2,4an kokatu zelako. Oro har, azken kontsumoko gastua %2,8 areagotu zen.

Kontsumo pribatua aztertzen duten adierazle guztiek goranzko bilakaera seinatu zuten. Esate baterako, Eustatek argitaratu dituen datuen arabera, txikizkako merkataritzaren indizeak

hazkunde tasa positiboak jaso zituen 2017an eta bi urte lehenago hasi zuten hedatzeko joera finkatu zuen. Ondasun iraunkorren kontsumoan, turismoen matrikulazioak %8,0ko hazkunde esanguratsua markatu zuen. Beste aldetik, arlo pribatuari bankuek 2017an eman zioten kredituaz Espainiako Bankuak eskaini dituen datuen arabera, mailegatutako kantitatea zertxobait gutxitu zen, 2016ko datuaren aldean ia hutsala baita.

ERRENTEN ADIERAZLEEN BILAKAERA 12. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	-1,7	0,8	2,5	3,4	---
Enplegua	0,9	0,7	0,6	1,0	1,5
Pentsioen kopurua (*)	-2,9	0,2	2,1	1,9	2,1
Batez besteko pentsioa (*)	1,7	1,4	1,2	1,2	1,3
PFEZren diru bilketa	3,2	1,8	2,0	2,0	2,0
Banku arteko interes tasa (urte baterako euriborra)(**)	-1,5	2,9	5,9	4,1	6,0
KPI	0,5	0,5	0,2	0,0	-0,1
Urtean indarrean dagoen soldata igoera	1,6	0,2	-0,3	0,0	2,0

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (**) Hilabeteko batez bestekoekin osatutako urteko batez besteak. Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

EGINDAKO KONTSUMOAREN ADIERAZLEEN BILAKAERA 13. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	-0,9	2,3	3,3	3,1	3,0
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	-1,8	0,7	2,1	2,3	2,4
IPI kontsumo ondasunak. EAE	-5,3	-2,2	5,3	0,2	2,5
IPI kontsumo ondasunak. Estatua	-2,1	1,6	1,3	1,8	0,9
Automobilen matrikulazioa	8,4	19,9	16,6	4,7	8,0
Txikizkako merkataritzaren indizea	-3,9	0,0	1,7	1,6	0,8

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kontsumitzailearen konfiantza areagotu zen 2017an. Laboral Kutxak osatutako indizearen arabera, konfiantza indizearen 2017ko batez besteko balioa 1 izan zen, aurreko urteko -5aren aldean. Iturri horren arabera, joera positibo horren atzean, EAEko kontsumitzaileen igurikimen baikorrak daude, ekonomia orokorraren bilakaeraz eta enpleguaren hobekuntzaz.

Kapital eraketa gordinak hazkundera bizkortu zuen aurreko urteko emaitzaren aldean, %3,5eko aldakuntza tasa batekin. Beraz, hiru urte jarraian kateatu ditu %3,0aren gaineko hazkunderak biltzen. Osagai dinamikoena ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa izan zen. Finantzaziorako baldintza onek, inguruneko herrialdeen ekonomiak izan zuen hobekuntzak eta EAEko barne eskariaren gorakada bikainak lagundu zuten bizkortze horretan.

KAPITAL ERAKETA GORDINAREN ETA BERE ADIERAZLEEN BILAKAERA

14. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017
Kapital eraketa gordina (bolumenen indize kateatua)	-4,9	-0,2	3,8	3,1	3,5
- Ekipamendurako ondasunak	-3,6	3,3	7,3	5,3	4,7
- Gainontzeko inbertsioa	-5,6	-1,9	2,0	1,8	2,7
IPI ekipamendurako ondasunak:	-3,2	1,6	7,4	8,7	-0,2
- IPI garraio materiala	-2,9	0,3	3,8	16,6	2,1
- IPI makineria eta ekipamendua	-0,1	1,3	6,9	2,6	1,4
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	-7,2	-2,3	40,9	12,7	5,6
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-3,0	13,3	32,4	6,2	10,3

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioari dagokionez, maila agregatuan narriadura txikia nozitu zuen arren, garraio materialean eta makineria eta ekipamenduan hazkunde tasa positiboak lortu ziren. Inbertsioaren beste adierazle batzuek, hala nola zama ibilgailuen matrikulazioak eta ekipamendurako ondasunen inportazioak, goranzko joera esanguratsua marraztu zuten. Beraz, koiunturako adierazleen bilakaera dinamikoak, enpresariak EAEko ekonomiaren egoeraz 2017an zuten perspektibak hobetu zituen. Laboral Kutxak enpresarien konfiantzaz egiten duen inkestak agerian utzi zuen EAEko enpresarien baikortasuna handitu zela 2017 aurreko urteko iritziaren aldean. Datuek eskarien bolumena gehitu dela seinatzen

dute. Orobat, ekoizteko ahalmena eta landunen kopurua igotze aldera neurriak hartzeko nahia adierazi dute.

2015ean eta 2016an nazioarteko merkataritzak geldotasun harrigarria erakutsi zuen eta horrek ekonomia aurreratuetakoz zein azaleratzen ari diren herrialdeetako merkataritza jarduerari kalte egin zion. Hain zuzen ere, esportazioak, dolarretan neurtuta, %13,2 eta %2,9 jaitsi ziren, hurrenez hurren, urte horietan. Halere, bizitasun gutxiko epealdi horren ondoren, 2016ko amaieran merkataritza jarduerak erritmo biziagoan hasi zen berriro hazten, 2017ra ere luzatu zena. Izan ere, dolarretan, salgaien munduko merkataritza %10,7 areagotu zen 2017an, 2011tik izan duen gorakadarik sendoena baita.

MUNDUKO ONDASUNEN MERKATARITZA HERRIALDEKA

15. Taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila milioi AEBetako dolarrak

	Esportazioak				Inportazioak			
	Balioa		Aldakuntza tasak		Balioa		Aldakuntza tasak	
	2017	2015	2016	2017	2017	2015	2016	2017
Mundua	17.198	-13,2	-3,0	10,7	17.572	-12,5	-2,9	10,7
Ipar Amerika	2.377	-8,0	-3,4	7,3	3.285	-4,5	-2,8	7,3
AEB	1.547	-7,3	-3,4	6,6	2.409	-4,0	-2,8	7,1
Erdi eta Hego Amerika	583	-21,0	-4,9	13,0	579	-16,3	-14,2	7,8
Brasil	218	-15,1	-3,1	17,5	157	-25,2	-19,8	9,7
Europa	6.501	-12,5	-0,2	9,3	6.521	-13,2	0,4	9,9
Europar Batasuna 28	5.904	-12,5	-0,2	9,7	5.878	-13,3	0,4	10,0
EBE (*)	518	-32,3	-16,5	24,4	402	-32,4	-2,5	20,8
Errusia	353	-31,3	-17,4	25,3	238	-37,3	-0,7	24,1
Africa	417	-29,3	-9,6	18,3	534	-13,9	-10,7	7,8
Ekialde Hurbila	961	-30,3	-7,0	18,0	712	-7,4	-4,5	1,1
Asia	5.842	-7,9	-3,4	10,7	5.541	-14,4	-4,4	15,3
Txina	2.263	-2,9	-7,7	7,9	1.842	-14,3	-5,5	16,0
Japonia	698	-9,5	3,2	8,3	672	-20,0	-6,2	10,6
India	298	-17,1	-1,2	13,0	447	-15,1	-8,1	23,8

(*) Estatu Burujabeen Erkidegoa.

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.

Zehatz-mehatz adierazita, salgaien merkataritzaren 2017ko gehikuntza batez ere faktore ziklikoek bultzatu zuten. Esate baterako, inportazioen hazkundeak, BPGaren osagaien artean inportazioetan eragin handiena duena baita, eta kontsumoak. Orobat, oinarritzko ondasunen garestitzeak natur baliabideen ustiapenean oinarritzen diren ekonomien diru sarrerak areagotu zituen. Aurreko guztiari erantsi behar zaio balizko oinarri efektu bat, zeren eta aurreko bi urteetan jaso zen ahultasunak hazkunde tasa handiagoak ekartzen baititu edozein hobekuntza gertatzen denean, erreferentzia oinarria apalagoa delako.

Salgaien munduko merkataritzak 2017an lortu zuen susperraldia orokorra izan zen eremu nagusi guztietan. Beraien artean, Estatu Burujabeen Erkidegoak jaso zuen gehikuntza dinamikoena, Errusiaren susperraldiak eta energiaren garestitzeak bultzatuta. Hala eta guztiz ere, susperraldiaren zati handi bat, hala esportazioei nola inportazioei dagokiena, Asiaren sendotasunaren ondorioa izan zen, non Txinan eginiko merkataritzaren bizitasunak eta Asiako eskualdeen arteko salerosketek merkataritza jarduera bultzatu zuten. Orobat, Euroguneko jardueraren sendotasunak Europar Batasuneko salerosketak igoarazi zituen. Beste aldetik, dolarraren balio irabaziak, kontsumoaren sendotasunak eta inbertsioaren susperraldiak, batez ere energiaren sektorean, AEBetako salerosketak bultzatu zituzten. Amerika Latinoaren kasuan, Brasil atzeralditik atera izanak lagundu zuen eremu horretako merkataritza harremanak suspertzen.

MUNDUKO ONDASUNEN MERKATARITZA BOLUMENEAN ETA BPG ERREALA
16. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2013	2014	2015	2016	2017
Ondasunen munduko merkataritza. Indizea	2,4	2,7	2,5	1,8	4,7
Esportazioak					
Herrialde aurreratuak	1,7	2,1	2,3	1,1	3,5
Garapen bidean dauden herrialdeak	4,0	2,7	2,4	2,3	5,7
Inportazioak					
Herrialde aurreratuak	0,0	2,4	4,3	2,0	3,1
Garapen bidean dauden herrialdeak	4,6	2,4	0,6	1,9	7,2
BPG errealaren merkatuko truke tasan	2,2	2,7	2,7	2,3	3,0
Merkataritza eta BPG* arteko erlazioa	1,1	1,0	1,0	0,8	1,6

(* BPGaren datuak NDF, ELGE eta Nazio Batuen erakundearen batez besteko estimazioan arabera kalkulatu da. Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA).

Aurreko guztiaren ondorioz, nazioarteko merkataritzaren bolumena ekonomiaren gehikuntza baino gehiago hazi zen. Halakorik ez zen 2010etik lortzen, baina ohikoa zen laurogeietatik, batez ere laurogeita hamarretan, non munduko merkataritzak jarduera globalarekiko zuen elastikotasuna 2tik gorakoa izatera iritsi baitzen. Are gehiago, ekonomiaren krisian gertatutakoa alde batera utzita, azken lau hamarkadetan munduko salerosketak 1982an, 1985ean eta 2001ean bakarrik handitu ziren BPGaren mailan edo horren azpian. Izan ere, 2016an jaso zen elastikotasuna 0,8ra iritsi zen, baina hurrengo urtean munduko merkataritzaren bolumena BPGa baino 1,6 aldiz gehiago areagotu zen, 2016an izan zuen erritmoa bikoiztuz. Ekonomia aurreratuen susperraldiak eta garapen bidean dauden ekonomien barne eskariaren pisu gero eta handiagoak iradokitzen dute merkataritzaren elastikotasuna handituko dela. Horren ondorioz, BPGaren aldean merkataritzaren hazkundeak duen sendotasuna 2018an ere jarraituko dela aurreikusten da.

EAEko merkataritzari dagokionez, C-Interreg datu basean oinarrituta, EAEk Estatuko gainontzeko erkidegoekin (erkidegoen arteko merkataritza) eta EAEko hiru lurraldeen arteko (erkidego barneko merkataritza) ondasunen (zerbitzurik gabe) merkataritza fluxuak aztertu daitezke. Informazio horren arabera, Estatura bidalitako ondasunen esportazioa %15,4 hazi zen 2017an. Beste aldetik, gainontzeko erkidegoetatik ekarritako inportazioak %7,4 handitu ziren. Esportazioen balioa inportazioena baino askoz ere handiagoa izan zen. Beraz, merkataritza saldoa 470 milioi euroetara iritsi zen, EAEren aldekoa. Beste eskualdeekin lortu den merkataritza superabitak 2015eko eta 2016ko joera apurtu du, bi urte horietan defizita eskuratu zelako ondasunen salerosketetan.

EAE-KO ONDASUNEN MERKATARITZA ERKIDEGOEN ARTEAN ETA ERKIDEGOEN BARNEAN 17. taula


Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2012	2013	2014 (B)	2015 (A)	2016 (*)	2017 (*)	Milioi € 2017(*)
Erkidegoen arteko merkataritza							
Esportazioak	-10,2	-10,8	-6,1	4,8	-3,2	15,4	15.196,9
Inportazioak	-12,4	-7,9	-1,3	11,6	-4,6	7,4	14.726,8
Saldoa guztira (milioi €)	1.318,1	766,1	91,0	-784,7	-547,1	470,1	470,1
Erkidegoen barneko merkataritza							
Guztira	-0,2	-0,4	13,3	-1,1	3,1	4,0	11.312,1

(B) Behin-behineko datuak. (A) Aurrerapena (*) Aurreikuspena.
Iturria: C-interreg proiektua.

EAEren eta atzerriaren arteko merkataritza aztertuta, munduko esportazioen kuota, hots, EAEk atzerrian saldutakoak munduko salmenta guztien artean daukan pisua, nahiko egonkor mantendu zen, baina goranzko joera arin bat hauteman zen, 2015eko %0,15etik, 2016ko %0,155era eta gero 2017ko %0,16ra igarota. Inportazioei dagokienez, bilakaera nabarmenagoa izan zen. Hondoa jo zuten 2016an (%0,109), baina gorantz egin zuten 2017an, inbertsioaren gorakadari eta kontsumoaren hobekuntzari esker. Susperraldi horren ondorioz, munduko merkatu kuota ehunen bat igo zen (%0,12).

EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritzarekiko Ehunekoak **10. irudia**



Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta Eustat .

Eustatek argitaratu dituen datuen arabera, atzerrian esportatutako ondasunen balioa %10,5 handitu zen 2017an, azken sei urteko tasarik altuena baita. Horri esker, krisiaren aurreko hogeitun urteetan, batez beste, eskuratu zen hazkunde erritmoa (%10,6) berreskuratu zen. Gorakada horrek esan nahi du EAEko eragileek ia 24.000 milioi euro balio zuten produktuak saldu zituztela atzerrian, gaur arte jaso den diru kopururik gorena baita. Beste urtebete batez, lehengaien salneurrien bilakaerak paper garrantzitsua jokatu zuen salmenta guztien ibilbidean. Izan ere, 2015ean eta 2016an prezioen beherakadak esportazioen balioa hondoratu zuen bitartean, 2017an beraien susperraldiak gorantz bultzatu zuen (petrolioaren salneurria ia %18 garestitu zen 2017an). Hain zuzen ere, erregai mineralen balioa eurotan %32,2 igo zen,

Petronorrek urte hasieran geldialdi teknikoa egin bazuen ere. Halere, esportatutako energia tonen kopurua %3,5 bakarrik hazi zen, prezioen igoera garrantzitsua agerian utziz.

ONDASUNEN MERKATARITZA ATZERRIAREKIN

18. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2012	2013	2014	2015	2016	2017 (*)	Milioi € 2017(*)
Esportazioak							
Guztira	2,4	-1,6	9,1	-2,9	-1,2	10,5	23.856,7
Ez-energetikoak	0,6	-0,8	4,1	0,4	1,8	8,7	21.650,0
Energetikoak	20,8	-8,7	57,5	-23,4	-25,8	32,2	2.206,6
Inportazioak							
Guztira	-8,6	0,9	7,4	-1,8	-7,3	20,5	18.652,6
Ez-energetikoak	-7,3	-1,9	4,2	12,4	0,8	11,4	13.632,4
Energetikoak	-11,2	6,6	13,4	-26,3	-28,8	54,5	5.020,0
Saldoa							
Guztira (milioi €)	5.146,6	4.670,3	5.377,1	5.032,1	6.011,8	5.204,0	5.204,0
Ez-energetikoak (milioi €)	8.185,0	8.234,6	8.556,5	7.284,6	7.544,4	8.017,6	8.017,6


(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Energiaz bestelako esportazioek ere inoizko baliorik gorena lortu zuten, urte osoan 21.650 milioi euroko salmentak eginda. Hiru urteko epean lehen aldiz, EAEko eragileek esportatzen dituzten hiru produktu talde nagusiek gorakada garrantzitsuak eskuratu zituzten. Izan ere, metal arruntak eta beren manufakturen salmenta %15,1 handitu zen eta atzean utzi zituzten bi urteko beherakada jarraituak. Garraio materiala, berriz, %13,5 areagotu zen, 2016an markatu zuen erritmoa baino zertxobait gutxiago, baina oraindik oso esanguratsua dena. Azkenik, makinak eta tresnak biltzen dituen atalak gorakada neurritsuagoa (%3,2) izan zuen, nahiz eta azken bost urteko handiena izan. Gainontzeko taldeetan ere, aldeko joera hauteman zen, baina bizitasun gutxiagorekin. Alde negatiboan, plastikoa eta kautxua kokatu zen berriro, %4,4 murriztu zelako. Beherakada horrek agerian uzten du sektore horren ahultasuna eta 2016an balio positiboak ozta-ozta (%0,2) berreskuratu bazituen ere, bost urte daramatza pisua eta fakturazioa gutxitzen.

Merkataritza ez energetikoa
 Milioi euro eta mila tona

11. Irudia



Iturria: Eustat. 2017ko datuak behin-behinekoak dira.

2003an, helburu geografikoaren arabera salmenten banaketak erakusten zuen ekonomia aurreratuek EAEko esportazio guztien %85 bereganatzen zutela eta azaleratzen ari diren herrialdeek, berriz, EAEko produktuen %15 bakarrik erosten zutela. Krisiaren aurreko urteetan, portzentaje hori ia ez zen ezer aldatu. Baina 2010ean, krisiaren une gordinenean eta ekonomia aurreratuak ahul zeudenean, EAEko eragileek merkatu berriak bilatzea erabaki zuten eta azaleratzen ari diren herrialdeetara bideratu zituzten beren ahaleginak. Izan ere, herrialde horiek EAEko salmenten %15 bereganatetik %25 erostera igaro ziren. Harez geroztik, merkataritza bazkideen pausokako hobekuntzak merkatu tradizionaletara itzultzea ekarri zuen berarekin eta 2017an ELGEko herrialdeek berriro salmenta guztien %82 bereganatu zuten, garapen bidean daudenek gainontzeko %18 erosi zuten bitartean.

Herrialde garatuen artean, lehenengo aldiz 1990etik edo lehenagotik, Alemania Frantziaren aurrean kokatu zen EAEko esportazioen helburu nagusi gisa. Hain zuzen ere, Alemaniara esportatutakoaren balioa 3.775 milioi eurora iritsi zen, %12,4ko gorakada bat jaso, Frantziara, berriz, 3.694 milioi euro balio zuten produktuak bideratu ziren bitartean. Halere, joera hori ez da berria. Izan ere, 2013tik Alemaniak etengabe murriztu dio aldea Frantziari, batez ere automobilen industriaren bultzadari esker eta, zehazkiago, Mercedes enpresari esker, 2017an berriro ekoizpen errekorra lortu zuelako, heren bat zuzenean Alemaniara doana. Orobat,

manufaktura metalikoen bultzadak (%25,5) ere lagundu zuen herrialde horretan eginiko salmentak hobetzen.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN HELBURUA

19. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi de €
	2012	2013	2014	2015	2016	2017(*)	2017 (*)
Esportazioak	2,4	-1,6	9,1	-2,9	-1,6	10,5	23.856,7
ELGE	2,1	-1,0	9,0	-0,7	1,7	10,6	19.467,4
Europar Batasuna	-0,1	-3,6	12,3	-1,6	1,6	9,4	15.515,3
Alemania	-1,8	-0,4	4,8	3,2	4,7	12,4	3.775,5
Frantzia	8,0	-7,2	1,3	3,2	-0,4	3,1	3.693,8
Erresuma Batua	14,8	-13,8	14,0	2,3	-7,7	16,6	1.512,0
Italia	-19,7	-3,7	9,9	13,0	-9,2	2,1	1.100,4
AEB	0,9	12,4	15,0	0,6	-10,5	18,5	1.820,8
Japonian	43,3	20,4	-60,4	90,8	191,9	-29,8	128,6
Errusia	-8,8	4,6	-3,6	-12,3	13,4	23,2	236,0
Txina	-11,1	18,1	28,5	-30,5	18,9	1,1	535,7

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Frantziako merkatuari dagokionez, produktu erdilanduek, hots, enpresek ekoizpenean erabiltzen duten materialek eta osagaiek, lehen tokia hartu zuten salmentetan. Nabarmendu ziren metal arrunten eta beren manufakturak, makinak eta tresnak, eta produktu mineralak, tasa positiboak berreskuratu zituztelako. Petronorren fintzen diren petrolioaren eratorrien salmentak azaltzen du hobekuntza hori. EAEko enpresek Alemanian duten kokapen onak eta herrialde horretara esportatzen diren produktuen balio erantsi altuak bermatzen dute herrialde horrekiko merkataritza fluxuek jarraituko dutela. Frantziarekin ere gauza bera gertatzen da eta merkataritza harremana hurbiltasunak sendotzen du.

EAEko esportazioen hirugarren helmuga nagusia AEBak izan ziren. Petrolioaren eratorriek salmenta guztien %35,0 biltzen dute eta herrialde hartan gehien saltzen den produktua da. Haren atzetik, eta oso hurbil, makinak eta tresnak daude, eta manufaktura metalikoak, 354 milioi euroko langa gaindituta. AEBetara esportatuko dena zalantzan geratu da Donald Trump

presidenteak ezartzen ari den neurri protekzionistengatik Izan ere, Europar Batasunari altzairuan (%25) eta aluminioan (%10) ezarri zaion arantzel igoera mantentzen bada, EAEko esportazioak 41,7 milioi eurotan jaitsiko lirateke eta 137 zuzeneko lanpostu eta beste 135 zeharkako lanpostu galduko lirateke, Cepredekin eginiko ikerketa baten arabera. Produktu horietarako herrialdeak aurkitzea zaila izan daiteke, beste herrialde batzuek ere, hala nola Txinak, bide hori bilatuko dutelako arantzelei aurre egiteko.

ATZERRIAREKIKO EUSKAL MERKATARITZAREN SAILKAPENA. 2017

20. Taula

Esportazioak	Guztiarekiko %	Inportazioak	Guztiarekiko %
Alemania	15,8	Alemania	14,9
Frantzia	15,5	Frantzia	9,7
AEB	7,6	Erresuma Batua	7,1
Erresuma Batua	6,3	Txina	5,6
Italia	4,6	Italia	5,0
Belgika	4,1	Irlanda	3,8
Portugal	3,9	Mexiko	3,8
Herbehereak	3,2	Herbehereak	3,5
Mexiko	2,7	Errusia	3,4
Txina	2,2	Norvegia	2,5

Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat.

AEBen ondoren, ziurgabetasuna sortzen duen beste merkatu bat agertzen da: Erresuma Batua. Herrialde hori Brexitaren prozesu korapilatsuan murgilduta dago, oraingoz EAEko produktuek saihestu dutena. Hain zuzen ere, esportazioak %16,6 handitu ziren eta 1.500 milioi eurotik gora saldu zen, inoizko diru kopururik altuena baita. Merkatu horretan gehien saldu ziren produktuak garraio materiala, bereziki ibilgailu automobilak, makineria eta metalak eta beren manufakturak izan ziren.

Txanponaren ifrentzua Japoniak eskaini zuen, herrialde horretan saldutakoa ia %30,0 gutxitu zelako. Automobilaren salmentak 2016an lortu zuen gehikuntza bikainak esportazioak %192,2 areagotzea lortu zuen, baina 2017an ibilgailu automobilaren salmenta erdira baino beherako jaitsi zen, aipatu den jaitsiera hori azalduz. Hala eta guztiz ere, Japonian saldu ziren EAEko

produktuen balioa 128 milioi eurokoa izan zen, serie historiko osoan agertzen den bigarren baliorik altuena.

Merkatu tradizionaletan saldutakoak gora egiteaz gain, EAEko eragileek azaleratzen ari diren herrialdeetako zenbakiak ere hobetu zituzten. Esportazioen helmuga nagusia Txina izan zen, ia 536 milioi euroko salmenta batekin, 2016an baino %1,1 gehiago. Esportazio horietatik ia %50 industria makineria izan zen, bai elektrikoa bai mekanikoa. Metal arruntek eta beren manufakturek, berriz, %25 bereganatu zuten. EAEko produktu gehien erosi zuen herrialde garatu gabea Asiako herrialdea izan bazen ere, aipamen berezia merezi du Brasilerazuzendutako salmenten gehikuntza, hori izan baitzen herrialde dinamikoena, %33,6 gehitu zirelako, hiru urtez jarraian etengabeko jaitsierak bildu eta gero. Kasu horretan, energiaren eta petrolioaren eratorrien salmentak izan zuen gorakada sendoak eta metalenak azaltzen dute emaitza. Errusiari dagokionez, garraio materialaren eta plastiko eta kautxua eta beraren eratorrien esportazioek %23,2 handitu zuten salmentaren balioa.

Atzerritik inportatutakoari dagokionez, gehikuntza tasa %20,5ean kokatu zen, hots, esportazioen tasa ia bikoiztu zuen. Halaber, gorakada hori bi urteko jaitsieren ondoren gauzatu zen. Produktu mineralen garestitzeak zeharo baldintzatu zuen emaitza. Hain zuzen ere, erregai mineralen erosketa %54,5 areagotu zen, 2000tik izan duen erritmorik dinamikoena baita, nahiz eta eurotan neurtuta ez zuen kopururik gorena jaso. Esportazioetan bezala, prezioak eragin garrantzitsua izan zuen energia arloko inportazioen igoeran, erositako tonen kopurua %22,6 hazi zelako, eurotan handitu zena baino askoz ere gutxiago. Energiatz bestelako produktuen inportazioak ere nabarmen hobetu zuen aurreko urteko emaitza eta %11,4 handitu zuen bere balioa. Esate baterako, metalak eta beren manufakturek %21,6 handitu zuten inportazioa, produktu kimikoek (%12,8), nekazaritzakoek (%10,8), plastikoa eta kautxuak (%10,5) eta garraio materialak (%11,7) batez bestekoaren antzeko gehikuntza tasak izan zuten bitartean. Hazkunde garrantzitsu horietatik urrun, baina eremu positiboan ere, papera (%6,2) eta makinak eta tresnak (%3,1) kokatu ziren.

Inportazioen hazkundera handiagoa izan zen garapen bidean dauden herrialdeetan (%26,9), ELGEko herrialdeetan erositakoa %17,8 handitu zen bitartean. Esportazioetan ez bezala, krisiaren aurreko epealdian erosketen jatorria orekatuagoa izan, zeren eta 2008an inportatu zen guztiaren %44,0 azaleratzen ari diren herrialdeetatik ekarri baitzen, gainontzeko %56,0 ekonomia aurreratueta erosi zen bitartean. Banaketa orekatuago horren arrazoia EAEn mendekotasun energetikoan datza. Izan ere, 2008an inportatu ziren produktuen %34 energia alorrekoak ziren, eta haietatik %81,3 garapen bidean dauden herrialdeetatik ekarri ziren.

Mendekotasun energetikoaren maila horiek bere horretan jarraitu zuten 2014 arte eta inportatutako guztiaren ia %37 izatera iritsi ziren.

Harez geroztik, portzentaje horiek gutxitu ziren, ez horrenbeste atzerriko energia bertokoak ordezkatu zuelako, ez baitzen halakorik gertatu, baizik eta energia nabarmen merkatu zelako, erosketak guztietan duen portzentajea gutxituz. Izan ere, energiako inportazioak eurotan %26,3 jaitsi ziren 2015ean eta %28,8, berriz, 2016an, nahiz eta tonatan %20 inguru hazi ziren urte bakoitzean. 2016an, erositako energia guztiaren %64 ELGETik kanpoko herrialdeek hornitu zuten, baina 2017an portzentaje hori %57,4an kokatu zen.

EAE-REN ETA ATZERRIAREN ARTEKO MERKATARITZAREN JATORRIA

21. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi de €
	2012	2013	2014	2015	2016	2017(*)	2017(*)
Inportazioak	-8,6	0,9	7,4	-1,8	-7,3	20,5	18.652,7
ELGE	3,9	-0,5	11,9	4,0	-6,9	17,8	12.849,9
Europar Batasuna	-4,7	-2,8	25,5	7,8	-7,9	13,4	10.557,3
Alemania	1,9	-6,2	5,2	19,4	9,9	6,8	2.783,0
Frantzia	-6,1	-1,4	-2,2	11,1	-8,9	12,0	1.812,2
Erresuma Batua	-30,6	-5,2	187,8	14,8	-52,5	62,8	1.325,7
Italia	4,0	-16,1	2,8	2,2	3,1	7,7	930,3
AEB	-12,9	40,8	-52,5	3,1	-4,6	18,8	444,6
Japonian	1,7	-14,6	-1,0	2,1	63,5	10,5	222,7
Errusia	-24,3	19,0	-36,0	-47,2	33,7	-43,5	636,9
Txina	-7,6	-3,3	15,7	25,0	-11,1	0,6	1.049,1

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Beste aldetik, epealdi horretan (2008-2017) energiaren hornitzaile nagusien artean, ordezkapena bizi zen. 2008an, Errusia nabarmendu zen EAEko eragileen hornitzaile nagusi gisa, merkatu kuotaren %41 bereganatuta. Kuota horri eutsi zion 2013 arte, nahiko modu egonkor batean. Hornitzaile gehiago zeuden, baina beren partaidetza merkatuan txikia zen. 2014an eta 2015ean dolarraren balio irabaziak eta gatazka soziopolitikoek energia produktuen erosketak tokiz aldatu zuten eta Erresuma Batua bihurtu zuten EAEko eragileen hornitzaile


nagusi, erregai mineralen merkatu kuotaren %25,0arekin. Bitartean, Errusia merkatuaren %12,5arekin geratu zen.

2016an, truke tasaren suspertzeak eta gatazken baretzeak joera hori irauli zuten, aldi baterako bakarrik izan zen arren, zeren eta 2017an Errusiari ezarri zizkioten zigorrek haren merkatu kuota gutxitu baitzuten berriro. Orduko horretan, hornitzaileen mugimendua ez zen batetik bestera pasa eta dibertsifikaziora jo zen. Hori horrela izanda, energiako produktuen erosketa Erresuma Batuan (%15,9), Mexikon (%13,0), Nigerian (%9,2), Norvegian (%7,8) eta Libian (%5,7), beste batzuen artean, handitu zen. Gaur egun, energia hornitzaileen mapak erakusten du energiaren merkatua zatikatuago dagoela eta ez dagoela mendekotasun handirik herrialde jakin batekiko.

Inportazio energetikoak jatorria **12. irudia**
Ehunekoak

2008

2017



Iturria: Eustat. 2017ko datuak behin-behinekoak dira.


Energiako produktuen bilakaeraz landa, Alemania berriro izan zen EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia eta atzerrian erositako guztiaren %14,9 herrialde horretatik iritsi zen. Erosketa horietan, oso pisu handia daukate bai makina eta tresna mekanikoek bai ibilgailu automobilek, guztiaren ia %60 biltzen dutelako. Frantzia da EAEko bigarren hornitzaile behinena, merkatu kuotaren %9,7 batekin. Herrialde horretatik batez ere metal arruntak eta

beren manufakturak eta makineria ekarri zen. Bi atal horiek hazkunde tasa positiboak eskuratu zituzten (%34,1 eta %0,8, hurrenez hurren) eta garraio materialaren jaitsiera konpentsatzea ahalbidetu zuten. Erresuma Batuan erositakoaren gehikuntza ezohikoa (%62,8) erregai mineralen inportazioak eragin zuen bereziki. Izan ere, herrialde horretan erosi ziren energiaz bestelako produktuen balioa %29,2 jaitsi zen, 526 milioi eurotik zertxobait gorago kokatu zen diru kopuru batekin. Zenbaki hori askogatik ez da iristen Italian erosi ziren energiaz bestelako produktuen erosketara bideratutako 925 milioi euroetara. Italiatik batez ere burdina eta altzairu galdaketako manufakturak eta makineria inportatu zen.


Ondasunen esportazioak eta inportazioak ekoizkin motaren arabera Ehunekoak

13. irudia

Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat. 2017ko datuak behin behinekoak dira.

ELGETik kanpoko herrialdeetatik, erregai mineralaz gain, metal arruntak, batez ere burdinarekin eta altzairuarekin zerikusia daukatenak, eta makineria, hala mekanikoa nola elektrikoa, inportatu zen. Deigarria da Txinak produktu horien salmentan nabarmendu ez izatea, herrialde hori EAeko eragileen laugarren hornitzaile nagusia bada ere. Izan ere, Txinatik ekarritako metal arruntak eta beren manufakturak zein makineria oso nabarmen murriztu ziren (%-13,3 eta %-4,0, hurrenez hurren). Aitzitik, garraio materialaren erosketak, bereziki ibilgailu automobilena, eta neurri txikiagoan plastiko eta kautxuarena indartsu hazi ziren.

Laburbilduz, egiaztatuta geratu da inportazioak atzeraldiaren aurreko parametroetara itzuli direla, enpresen ekoizpena suspertu den heinean. Esportazioak, berriz, bizitasun handiko gune batean finkatu dira, lau urtez jarraian 21.500 milioi euroko langa gaindituta. Salerosketa horien ondorioz, merkataritza saldoa EAEren aldekoa eta 5.200 milioi eurotik gorakoa izan zen. Diru kopuru hori azken urteetako superabitaren antzekoa da, baina 2016an kontabilizatu zena baino txikiagoa. Ohikoa denez, energiaren saldoa negatiboa izan zen eta sendo areagotu zen, 2016ko murrizketa atzean utziz. Horrek agerian uzten du EAEren mendekotasun energetikoa. Energiatz bestelako saldoa, ordea, 8.000 milioi eurotik gorakoa izan zen eta 2014an jaso zen maximora hurbildu zen. Saldoak EAEren aldekoak izan ziren herrialde garatuekin eginiko salerosketetan, baina aurkakoak suertatu ziren garapen bidean dauden herrialdeekin trukaturako salmentetan.

Zenbat eta irekiera maila handiagoa izan orduan egongo da ekonomia bat presenteago nazioarteko merkatuetan. Irekiera maila esportazioen eta inportazioen batuketan zati BPGari deritzo. Zenbat eta altuagoa izan adierazle hori orduan eta irekiagoa da ekonomia. Orobat, handiagoa izango da ekonomia horren sentikortasuna atzerriko harremanetan gorabeherak gertatzen direnean. Logikoki, lurraldearen tamainak azken emaitza baldintzatzen du, zeren eta ekonomia txikiak irekiera maila altua izaten dutelako eta lurralde handiek, ordea, aukera gehiago daukate bertan ekoizitakoarekin hornitzeko.


Adierazle horretan oinarrituta, Europako ekonomia nagusien gainean dago EAE. Hain zuzen ere, 2000. urtean EAEko irekiera maila 143,1 izan zen, Herbehereen 126,5aren aldean. Bietatik oso urrun kokatu ziren Alemania (61,4) eta Espainia (60,2). Egoera horrek bere horretan jarraitu zuen 2008 arte, hots, Atzeraldi Handia hasi zen arte. 2009an, merkataritzaren amiltzeak herrialde guztiei eragin zien, neurri handiagan edo txikiagan, eta baita beren irekiera mailari ere, gutxitu baitzen. EAEk 22,2 puntu galdu zituen 2008tik 2009ra bitartean eta irekiera maila 141,9 izatetik (2000tik izan duen bigarren altuena) 119,7 izatera igaro zen. Herbehereek 15,7 puntu galdu zituzten, Alemaniak 10,3, Espainiak 9,3 eta Italiak 9,1. Erresuma Batuak hobeto erantzun zion atzeraldi horri eta bi puntu bakarrik galdu zituen. Beraren irekiera txikiagoak babestu zuen kanpo merkataritzaren hondamenetik.

2010ean, merkataritza salerosketak suspertu ziren eta haiekin batera irekiera gradua. Izan ere, 2011tik 2014ra doan epealdian, EAEko irekiera maila 130tik gorako zenbakietan kokatu zen beti, nahiz eta azken urteetan nolabaiteko jaitsiera hauteman den. Aurreko guztiaren ondorioz, gaur egun EAEko irekiera maila oraindik krisiaren aurretik zeukana baino 12,6 puntu txikiagoa da. Bertoko merkatuaren aldeko joera hori ez dator bat Europako ekonomia nagusiek erakutsi

du ten bilakaerarekin, 2000tik 2017ra doan epealdian irekiera maila handitu dutelako, bereziki Herbehereek (ia 35 puntu irabazi ditu) eta Alemaniak (25 puntu gehiago dauzka orain).

EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak

14. irudia




Iturria: Eustat EAEko datuentzat eta Datacomex eta Eurostat. 2017ko datuak behin-behinekoak dira.

2.3. Atzerriko inbertsioa EAEn

Atzerriko baloreak edukitzeko entitateak (ETVE) Espainian egoitza duten eta helburu nagusia atzerrian kokatuta dauden sozietateen partaidetza edukitzea da. ETVE horiek sozietate instrumentalak dira eta beraien izaera enpresa talde baten barruan optimizazio fiskala lortzeko helburuari erantzuten dio. Kasu askotan, beren inbertsioek ez dute zuzeneko ondorio ekonomikorik. Hori dela eta, atzerriko inbertsioak EAEn izan duen bilakaera aztertzeko orduan ETVE gabeko inbertsio gordinaren datuak hartuko dira kontuan bakarrik, ekoizpena bideratutako inbertsioak direlako.

2008-2012 epealdian geldotasuna erakutsi ondoren, atzerriko inbertsioa indartsu itzuli zen EAEn eta harez geroztik beti egon da 1.000 milioi euroetatik gora, etengabeko hazkunde batean, salbuespen bakarra 2015. urtea izan zelarik, urte horretan inbertsioa 835 milioi euroetara mugatu zelako. Krisiaren ondoren ekonomiaren hazkundeak izan zuen susperraldiak, administrazio publikoek lurraldea sustatzeko egin duten lana eta egonkortasun politiko handiagoak bide eman zuten atzerriko inbertsioa EAEn 2.616 milioi euroetara iristeko 2017an, gaur arte inoiz jaso den kopururik gorena baita.



Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. DataInveXt.

Datu historiko horrek %70,8ko gehikuntza ekarri du 2016an etorritako 1.532 milioi euroren aldean, baina are garrantzitsuagoa da Estatu osora iritsi diren diru kopuru guztietatik %11,0 direla. Hori horrela izanda, EAE hirugarren tokian finkatzen da erkidegoen sailkapenean, Kataluniatik bi puntutara bakarrik. Erkidego horrek 3.093 milioi bereganatu zituen, guztizkoaren %13,0. Lehen tokian, Madril geratu zen, 14.521 milioi euroekin, inbertsio guztien %61,1 eskuratuta.

EAEk izan zuen gorakada garrantzitsua Alemaniako inbertsioaren ondorioa da. Siemens multinazional alemaniarrek sektore eolikoan diharduen Gamesa¹ enpresaren kontrola hartu zuen. Horri gehitzen bazaio Mercedes Benzek Gasteizko lantegian egin dituen inbertsioak, ordaindutako dirua 1.900 milioi eurotik gorakoa da, guztizkoaren %72,8.

Alemaniarren ondoren, EAEn inbertitu zuen bigarren herrialdea Luxenburgoko da, 369 milioi euroekin. Herrialde hori eragiketa korporatibo askoren egoitza fiskala da. Orobat, esanguratsua da Erresuma Batutik iritsitako inbertsioa, hango enpresek 231 milioi euro inbertitu zutelako EAeko lurraldeetan. Rolls Royce talde britainiarrek Industria de Turbo Propulsores (ITP) enpresa erosi izanak azaltzen du diru kopuru horren zati handi bat. Azkenik, Mexikoko enpresa talde batzuek 56,4 milioi euro utzi zituzten EAEn eta estatubatuarrek, berriz, 15 milioi euro baino zertxobait gehiago.

INBERTITZAILEEN RANKINAEZ ETVE. EAE 2017
22. taula

EZ ETVE INBERTSIOAK	ZENBATEKOA. Mila €	GUZTIAREKIKO %
GUZTIRA	2.616.062,87	100,0
Alemania	1.905.275,07	72,8
Luxenburgoko	368.930,37	14,1
Erresuma Batua	231.391,20	8,8
Mexiko	56.404,44	2,2
AEB	15.028,66	0,6
Brasil	9.546,33	0,4
Suitza	5.486,86	0,2
Uruguai	5.006,45	0,2

Iturria: Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa. DataInvent.

¹ Eragiketa xurgapen bidezko bat egitearen bidez bideratu zen. Sozietate xurgatua Siemensen sozietate filial espainiar bat da eta sozietate xurgatzailea, berriz, Gamesa bera. Siemensek bere kontuetan bateratuko du ondoriozko sozietatea. Truke ekuazioaren arabera, Alemaniako taldeak sozietate berriaren %59 kontrolatuko du eta Gamesaren oraingo akziodunek, berriz, gainontzeko %41.

3. LAN MERKATUA

3.1 Biztanleria eta aktibitatea

EAEko biztanleria ia bere horretan geratu da, jaso duen gehikuntza oso apala delako. Orobat, aurre egin behar dio zahartzearen arazo larriari. Horrek biztanleria aktiboaren jaitsiera ekarriko du berekin, enpleguaren eskaria ustez igoko den eszenategi batean. Izan ere, langileak beharko dira, alde batetik erretiroa hartuko dutenak ordezkatu beharko delako eta, beste aldetik, ekonomiaren beraren hazkundeari erantzuna emateko.

Biztanleria aktiboaren analisiak, Eustatek egiten duen BJA inkestaren datuetan oinarrituta, emakumeen partaidetzaren bilakaera positiboa nabarmentzen du, zeren eta 2017an, batez beste, zeuden 1.035.625 pertsona aktiboetatik, %52,2 gizonak baitziren eta %47,8, berriz, emakumeak. Gogoratu behar da 2000. urtean generoaren araberako sailkapena 60/40 izan zela. Beraz, agerian geratu da emakumeek gero eta pisu gehiago dutela lan merkatuan.

Egiturazko ikuspegi batetik, lan partaidetzan hautematen ari den berdintasunerako joera hori zeinu kontrajarriko bi mugimenduen ondorioz gertatzen ari da. Alde batetik, gizonen partaidetza tasa etengabe gutxitzen ari da laurogeietako erdialdetik. Beste aldetik, emakumeen partaidetza etengabe igotzen ari da epealdi horretan, baita atzeraldietan ere. Joera orokor hori etenda geratu da azken bi urteetan eta bai gizonen partaidetza tasa bai emakumeena zertxobait gutxitu ziren 2016an eta 2017an.


Hain zuzen ere, 2017an gizon aktiboaren gutzitzea %1,5 jaitsi zen aurreko urteko datuaren aldean. Aitzitik, emakume aktiboaren kopurua %0,1 apal batean igo zen. Igoera xume horrek ezin izan zuen saihestu beraien partaidetza tasa gutxitzea, dagoeneko adierazi denez. Biztanleria osorako, 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren partaidetza tasa 2016ko %56,9tik 2017ko %56,3ra jaitsi zen. Jaitsiera nabarmen handiagoa izan zen gizonen artean, beraien tasa %62,2tik %61,1era murriztu baitzen, baina eragina izan zuen emakumeen artean ere, iazko tasa %51,9an kokatu baitzen, aurreko urtean zeukana baino hamarren bat beherago, bigarren jaitsiera jarraitua delarik. Lan merkatutik irteteko joera bereziki gazteenen (25 urtetik beherakoak) artean nabaritu zen, prestakuntzarekin jarraitzeko hautuaren alde jotzen baitute. Gazteen partaidetza tasa etengabe gutxitzen ari da, 2014an zeukaten %30,7tik 2017ko %24,0ra. Adin talde ertainak ere ia puntu oso bat gutxitu zuen bere partaidetza epealdi horretan, %89,7ra arte. Azkenik, 45 urtetik gorako pertsonen artean, lan bizitza luzatzeko

erabakia nabaritu da, talde horretako partaidetza tasa %44,3ra igo delako, 2014an zeukatena baino ia bi puntu handiagoa baita.


Jarduera tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn

16. irudia

Gizonak



Emakumeak




Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat

Aipatua izan denez biztanleria aktiboa jaitsi bazen ere, lan merkatua aztertzen duten estatistika iturri guztiak bat datoz 2017an enplegua hobetu zela eta langabezia jaitsi zela seinatzeko orduan. Lan merkatuaren desorekak bideratzeko orduan urrats garrantzitsuak eman diren arren, oraindik bide luzea geratzen da krisiaren aurrean zeuden enplegu mailak berreskuratzeko.

Zehazkiago azalduta, estatistikek erakusten dutenez, 2017an zehar enplegua hazi egin zen aurreko urteko emaitzaren aldean. Hala ere, estatistika bakoitzak tasa ezberdin bat zenbatetsi zuen. Kontu ekonomikoek, lan merkatuaren analisi ekonomikoa egiteko orduan iturri egokiena baita, %2,1ean kokatu zuen enpleguaren 2017ko gehikuntza tasa, Gizarte Segurantzaren afiliazioak jaso zuen tasa bera. Zenbaki horretatik ez oso urrun egon zen Eustatek kalkulatu duen BJA inkestaren %1,7. Aitzitik, INEren BAI inkesta ikuspegi dinamikoko horretatik zeharo alden du zen eta urte horretako hobekuntza %0,3an bakarrik utzi zuen. Azken estatistika horrek gorabehera handienak izaten ditu bere datuak aurkezteko orduan.

Enpleguaren bilakaera EAEn **17. irudia**
Pertsonak



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantzak eta INE.

Kontu ekonomikoen informazioak seinalatzen duenez, enplegua 2017an 2016an baino bi hamarren gehiago hazi zen. Guztira, EAEko ekonomiak lanaldi osoko 935.000 lanpostu baliokide baino zertxobait gehiago zeuzkan, baina oraindik 63.000 enplegu falta ziren krisiaren aurrean zeuden guztiak berreskuratzeko. Hobekuntza hori ekoizpen sektore guztietan oinarritu zen. Zerbitzuak eta industria izan ziren sektore dinamikoenak, hurrenez hurren, %2,2 eta %1,7 hazi baitziren. Hala eta guztiz ere, sektore horiek beren hazkunde erritmoa egonkortu zuten

bitartean, eraikuntzak nabarmen hobetu zuen aurreko urteko emaitza eta %1,6an kokatu zuen urte arteko aldakuntza tasa.

ENPLEGUA SEKTOREKA

23. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Enplegua guztira	-3,3	-2,9	0,2	2,1	1,9	2,1
- Enplegua lehen arloan	0,8	-5,5	-1,3	-1,0	0,6	0,1
- Enplegua industrian	-5,4	-4,0	-1,0	-1,3	1,7	1,7
- Enplegua eraikuntzan	-12,9	-11,9	-3,4	2,2	0,0	1,6
- Enplegua zerbitzuetan	-1,6	-1,6	1,0	2,4	2,1	2,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustateko datuetan oinarrituta.

Gizarte Segurantzako afiliazioaren informazioak bide ematen du sektoreen zehaztasun handiagoa izateko, jarduera adarren arabera datuak biltzen dituelako. Erregistro horren arabera, jarduera gehienek enplegua handitu zuten 2017an. Beraien artean, hezkuntzak (%6,3) eta jardura artistikoei (%5,4) lortu zuten gehikuntza tasa sendoa azpimarratu behar da. Orobat, ostalaritzaren (%3,3), jardura administratiboaren (%3,6) eta garraioaren (%2,6) bizitasuna ere nabarmendu behar da. Manufakturek eta eraikuntzak %1,8ko hazkundea jaso zuten, batez bestekoaren zertxobait azpitik. Beste muturrean, azpimarratu behar da enpleguak finantza eta aseguru jardueretan izan zuen jaitsiera (%-4,1), sektoreak mundu digitalera egokitzeko bizi duen birmoldatzearen barnean, sukurtsalak ixtera behartzen duena.


2017an lortu zen enplegu gorakadak bi generoei egin zien mesede, diferentziala emakumeen aldekoa izan zela. Izan ere, BJA inkestaren arabera, landunen gehikuntza %1,5 izan zen gizonen artean eta %1,9, berriz, emakumeen artean. Bi kasuetan, urte askoan lortutako emaitzarik onena da. Horri esker, enplegu tasa osoa %50,0an kokatu zen, 16 urte eta gehiagoko biztanleria kontuan hartzen denean. Beraz, hirugarren igoera jarraitua da. Halere, oraindik bide luzea geratzen da 2008ko %53,2 hura berreskuratzeko. Generoaren arabera, gizonen zein emakumeen atalean hobekuntza zazpi hamarrenetakoa izan zen, hurrenez hurren enplegu tasa %54,6an eta %45,7an kokatu baitzen. Emakumeen kasuan, tasa hori inoizko altuena izan zen berriro.

Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn

18. irudia

Gizonak

Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.

Iturria: Eustat

Enplegua adin taldeka aztertzen denean, balantze positiboa ateratzen da guztietan, batez ere 25 urtetik gorakoentzat. Izan ere, biztanleria gazteenaren enplegu tasak hondoa ukitu zuen 2013an, %18,2 batekin, eta harez geroztik suspertzeko joera arin bati ekin zion ondorengo urteetan, 2016an eta 2017an %19,1ean kokatu arte. Adin tarte ertainak (25etik 44ra doana) nabarmen hobetu zituen emaitzak epealdi horretan, %74,1etik 2017ko %78,9ra igaro baitzen. Azkenik, adin handieneko taldean (45 urte eta gehiago) gorakada 2,5 puntukoa izan zen, 2013ko %37,4tik 2017ko %39,9ra.


Ikasketen bidez lortzen den enplegarritasuna begi bistan geratzen da enplegu eta langabezia tasak pertsona bakoitzaren hezkuntza mailaren arabera aztertzen direnean. Zehatz-mehatz kontatuta, BAI inkestak zenbatetsi duenez, 2017an enplegu tasa %49,8an kokatu zen, BJAk zenbatetsi zuen %50,0tik hurbil. Tasa global hori ikasketarik gabeko pertsonen tasa apalek eta goi mailako ikasketak dituzten pertsonen tasa oso altuek osatzen dute. Izan ere, azken kasu horretan, enplegu tasa %74,0an kokatu zen, gainontzeko taldeen tasetatik oso gora eta 2016an jaso zuen %73,7aren aldean hobekuntza txiki bat lortuz. Aitzitik, goi mailako ikasketak dituzten pertsonen langabezia tasa (%7,2) urteko batez bestekoa (%11,3) baino nabarmen txikiagoa izan zen. Oro har, zenbat eta prestakuntza handiagoa izan, orduan eta langabezia tasa txikiagoa izaten da.

Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera

19. irudia

Enplegu tasa

Langabezia tasa



Iturria: INE.

Enpleguaren bilakaera positiboak eta biztanleria aktiboaren jaitsierak nabarmen gutxiarazi zuten EAEko langabezia 2017an. Hain zuzen ere, urte osoko langabezia tasa, batez beste, %11,3an kokatu zen urte horretan, hala BJAren terminoetan neurtuta nola BAIren terminoetan. Horrek jarraipena ematen dio aurreko urteetan jasotako beherakadari, 2014an zegoen %16tik gorako tasetatik aipatu berri den zifra horretara, guztira bost puntuko zuzenketa lortu dela hiru urteko epe laburrean. Beraz, EAEko ekonomiak aukera handiak dauzka Eusko jaurlaritzak ezarri zuen helburua, legegintzaldi honetan langabezia tasa %10,0aren azpian kokatzearena, betetzeko.



Langabezia tasaren beherakada neurri handiagoan gizonen langabeziaren jaitsierari esker lortu zen. Arrazoia ez zen izan urte horretan sortutako enpleguaren proportzio handiagoa bereganatu izana, lan merkatutik kopuru handiagoan irten izana baizik, biztanleria aktiboaren lerroaldeetan zehaztu zen bezala. Horren ondorioz, 2016ko langabezia tasen artean egiaztatu zen berdintasunaren aurrean (%1,3 gizonentzat eta %13,6 emakumeentzat), 2017an gizonen langabezia tasaren jaitsiera nabarmen handiagoa izan zen, %10,8an kokatu arte, emakumeena %12,0ra gutxitu zen bitartean. Gazteen langabeziaren jaitsiera deigarria da, hiru urteko epean ia erdira murriztu delako, 2014ko %38,2tik 2017ko %20,4, neurri batean enplegua hazi zelako, baina baita ere lan merkatua utzi zutelako, ikasketak areagotzeko. Gainontzeko adin taldeek ere langabezia tasa moteldu zuten.

Langabezia tasaren bilakaera EAEn

20. irudia

BJA

BAI





Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn

21. irudia

Gizonak

Emakumeak



Oharra: Serie hauek ez dira guztiz homogeneoak hainbat urteetan metodologia aldaketak egin zirelako.
Iturria: Eustat eta INE.

Hala ere, lan merkatuaren atalean gertatu zen guztia ez zen ona izan, zeren eta denborazkotasunaren itzala gero eta handiagoa izan baitzen. Enplegua igo bazen ere eta langabezia, berriz, jaitsi, BJAREN datuen arabera, aldi baterako kontratua zuten soldatapekoen ehunekoa 2003tik inoiz jaso den mailarik altuenetakoan (%28,5) kokatu zen. Dagoeneko sei urtez jarraian gertatu da hori eta EAEko denborazkotasun tasa garbiki urundu da Europar Batasuneko herrialde nagusien emaitzetatik.

3.2 Enpleguaren erregulazioa eta kontratazioa

Eako ekonomiak 2017an erakutsi zuen bizitasunak bide eman zuen bai enplegua erregulatzeko dossierren kopurua bai beraien eraginpean zeuden langileena gutxitzeko, aurreko urteetan hasitako jaitsierei jarraipena emanez. Are gehiago, jaitsiera horiek, bi kasuetan, aurreko urtean jasotakoak baino biziagoak izan ziren.

ENPLEGUA ERREGULATZEKO EUSKADIN BAIMENDU DIREN DOSIERRAK 24. taula

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Dossierren kopurua	2.636	2.426	1.434	695	446	266
Eragindako langileak	37.429	31.790	16.747	8.108	6.283	4.342
<i>Dosier mota</i>						
- Lanaldia murriztekoa	5.466	5.814	3.196	1.530	1.172	481
- Behin-behineko etetea	28.627	24.104	12.091	5.718	4.473	2.864
- Kontratua amaitzekoa	3.336	1.872	1.460	860	638	997

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikak Saila.

Beheranzko joera orokorra izan zen ekoizpen arlo guztietan. Berrito ere, erregulatzeko dossier gehienak (%48,5) zerbitzuetan gertatu ziren, ohi bezala, salbuespena 2016 izan zelarik, urte horretan industriak bildu zituelako pertsona kaltetuen kopururik handiena. Dossier motaren arabera, azpimarratu behar da kontratua amaitzeko helburua duten dossierren gehikuntza nabarmena, 2017an %56,3 handitu zirelako, aurreko bi urteetako zenbakiak gaindituz.

Kontratuei dagokienez, 2017ko hazkundera (%3,0) aurreko urteetan lortutakoa baino askoz ere txikiagoa izan zen. Gorakada bai kontratu mugagabeetan (%8,5) bai aldi baterako kontratuetan (%2,8) hauteman zen. Azken horiek apalago hazi baziren ere, oraindik biltzen dituzte kontratu berrien hamarretik bederatzi. Horren ondorioz, kontratu berrien eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko erlazioa 3,1 izan zen. Hau da, 2017an soldatapeko langile bakoitzak, batez beste, 3 kontratu inguru sinatu zituen.

ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA

25. taula

	Kontratuak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2017	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Guztira	932.989	-6,6	1,1	12,1	14,1	6,5	3,0
Lanaldi osoko mugagabeak	27.641	5,4	5,4	34,0	12,4	-0,2	11,6
Obra edo zerbitzukoak	160.297	-11,8	-3,1	8,7	9,2	1,3	2,2
Abagunekoak	246.493	-12,5	2,1	13,9	20,5	10,9	6,6
Lanaldi laburrekoak	374.219	1,1	5,3	12,3	12,8	8,6	3,7
Prestakuntzakoak (*)	8.707	-13,7	14,3	36,3	29,8	-11,6	5,1
Gainontzekoak	115.632	-8,9	-6,5	8,5	13,2	2,8	-6,2


(*)Prestakuntzako kontratuetan, lanaldi laburreko praktika kontratuak sartzen dira.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Enplegurako Estatuko Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuak erabiliz.

Aurreko informazioa osatuz, 2017an enpresek eskaini zituzten lanpostu hutsen kopurua handitu zen. Izan ere, INEk hiruhilekoan behin argitaratzen duen lan kostuen estatistikaren arabera, batez beste EAEn 4.500 lanpostu huts geratu ziren, aurreko urtekoak baino %22,9 gehiago. Datu horiek Lanbiden izena emanda dauden pertsonen kopuruarekin konbinatuz, lanpostu huts bakoitzeko langabeen ratioa lortzen da. Bada, EAeko ratio hori 2014an, estatistika horren lehen urtea horixe izan baitzen, 78 langabekoa zen lanpostu huts bakoitzeko. Geroztik, ratio horrek beherantz egin du eta 2017an 30 pertsonetara murriztua zen. Are gehiago, 2018ko lehen hiruhilekoan 20 langabe zeuden lanpostu huts bakoitzeko. Beherakada horretan parte hartu dute bai lanpostu hutsen igoera eta langabezian dauden pertsonen jaitsiera. Espainiako kasuan, 2014ko ratioa (82 pertsona lanpostu huts bakoitzeko) EAekoaren antzekoa zen, baina jaitsiera apalagoa izan da, 2017ko datua 44 langabekoa izan zen eta 2018ko lehen hiruhilekoko, berriz, 34 langabekoa.

Langabezian dauden lagun kopurua eskaintako lanpostu bakoitzeko

22. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Lanbideren eta INEren datuetan oinarrituta.

4. PREZIOAK

2017an zehar, prezioek suspertzeko joera bati ekin zioten, atal hori aztertzen duten adierazle guztiek seinalatzen duten arabera. Hain zuzen ere, guztiek jaso zituzten azken urteetako emaitzarik altuenak. Prezioen igoera horretan paper erabakigarria jokatu zuten energiarekin lotura duten produktuek eta, neurri txikiagoan, elikagaiek ere.

4.1 Deflatoreak

BPGaren deflatoea, ekonomia osoaren prezioen bilakaera hobekien jasotzen duen adierazlea baita, %1,0an kokatu zen 2017an, aurreko urtean jasotako emaitzaren zazpi hamarren gorago. Are gehiago, azken zazpi urteko baliorik altuena da, nahiz eta oraindik oso zifra apala den, kontuan hartzen bada ekonomia ekoizpenaren sendotasuna. Deflatorearen osagai gehienek aurreko urteetako baino bilakaera dinamikoagoa erakutsi zuten, baina guztien artean azpimarratzekoa da esportazioen deflatorearen igoera, lau urtez etengabeko jaitsierak bildu ondoren %2,0ko igoera izan zuelako. Orobat, inportazioen deflatoea %1,5 handitu zen. Petrolio gordinak urte horretan izan zuen garestitzeak baldintzatu zituen bi aldagai horien deflatoreak. Modu apalagoan, baina kontsumo pribatuaren deflatoea ere igo zen (%0,9), hiru urtez ia bere horretan gelditu eta gero.

DEFLATOREEN BILAKAERA

26. taula

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
BPGaren deflatoea	0,1	0,4	0,6	0,2	0,3	1,0
Barne eskariaren deflatoea	0,0	0,9	0,0	-0,2	0,2	0,7
Kontsumo pribatuaren deflatoea	2,0	1,6	0,1	-0,2	0,1	0,9
Kontsumo publikoaren deflatoea	-3,4	0,5	0,8	-0,1	0,2	0,1
Inbertsioaren deflatoea	-2,7	-0,8	-0,7	-0,4	0,5	0,6
Esportazioen deflatoea	1,3	-1,4	-2,0	-1,5	-1,3	2,0
Inportazioen deflatoea	1,2	-0,7	-2,7	-2,0	-1,5	1,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta

4.2. Kontsumo prezioak

2017an, lehenago adierazi denez, energiaren prezioek zeharo baldintzatu zuten prezioen bilakaera orokorra. Izan ere, petrolioaren salneurriak urte hasieran izan zuen igoerak eta aurreko urteko bilakaerarekin alderatzeak ekartzen dituen efektuek inflazioa, KPIaren bitartez neurtuta, urteko baliorik gorenetara (%2,9 urtarrilean eta otsailean) eraman zuen. Harez geroztik, petrolio gordinaren salneurria berriro apaldu zenean, inflazioak izan zuen gorakadaren zati handi bat zuzendu zen. Aurreko mugimendu horiengatik, urte osoko batez besteko gehikuntza tasa %2,0an kokatu zen eta aurreko hiru urteetako geldotasunarekin amaitzeko balio izan zuen.

Zehatz-mehatz adierazita, petrolio upelaren salneurriak beheranzko joera erakutsi zuen 2017ko lehen hilekoetako 55 dolarretatik ekaineko 45 dolarretara. Bilakaera horretan, LPEEk ekoizpena murrizteko akordioez sortu zen ziurgabetasunak eta AEBetako eskaintza altuak eragina izan zuten. Hala eta guztiz ere, bigarren seihilekotik aurrera, petrolioaren prezioak gora egin zuen berriro, munduko eskari sendoarengatik, herrialde ekoizle batzuetako horniduraren etenengatik eta tentsio geopolitikoengatik. Aurreko guztiak upelaren salneurria 80 dolarretara eraman du 2018ko erdiko hilekoetan.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

27. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2013	2014	2015	2016	2017	Ekarpena
Inflazioa guztira (%100)	1,6	0,2	-0,3	0,0	2,0	2,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	1,6	0,3	0,7	0,9	1,1	0,8
KPI landutako elikagaiak (%14,3)	3,1	0,0	1,1	0,9	0,0	0,0
KPI industriako ondasunak (%24,5)	0,5	0,1	0,3	0,8	0,3	0,1
KPI zerbitzuak (%43,1)	1,8	0,6	0,8	1,1	1,7	0,7
Hondarreko inflazioa (%18,2)	1,4	-0,6	-4,5	-4,2	6,5	1,2
KPI landugabeko elikagaiak (%7,8)	3,7	-1,2	1,9	2,6	3,7	0,3
KPI energia (%10,4)	0,0	-0,1	-8,4	-8,2	8,2	0,9

Iturria: INE.

Beste aldetik, energiaz bestelako lehengaien prezioak garestitu ziren 2017an, elikagaienak izan ezik. Garestitze horren atzean, batez ere, metalen prezioen gorakada dago, udaren aurreko hilekoetan aldi baterako merkatzea izan zuten arren, gero igoera bizia izan zutelako. Eskari biziak eta herrialde esportatzaile batzuetan gertatu ziren eskaintzaren aldetiko arazoek gorarazi zuten prezioa.

Indize orokorraren bilakaeratik aldenduta, azpiko inflazioak oraindik ez zuen goranzko joera baten zantzurik erakutsi eta maila neurritsuetan (%1,1) jarraitu zuen, 2016ko datua bi hamarrenetan bakarrik gaintituz. Ekoizpenaren bizitasunaren aurrean prezioek duten erantzun eza azaltzeko orduan, adierazi behar da lan merkatuaren hobekuntzek ez dutela beraiekin soldaten igoera esanguratsurik ekarri.

Azpiko inflazioa osatzen duten talde guztiek bere aldakuntza tasa murriztu zuten aurreko urteko datuaren aldean, salbuespen bakarra zerbitzuak (%1,7) izan zirelarik. Hala ere, sektore horren tasa krisiaren aurreko urteetan jaso zituena baino askoz ere txikiagoa da. Beste aldetik, landutako elikagaiek beherantz egin zuten berriro (%0,0), baita datu negatiboak jaso arte ere urteko lehen zatian. Azkenik, energiaz bestelako industria ondasunen prezioen aldakuntza tasa %0,3 hazi zen 2017an, batez beste, 2016an jasotakoa baino puntu erdi bat gutxiago delarik. Beraz, ez dirudi petrolioaren garestitzea ondasun mota horretara igarotzen ari denik.

Gorabehera handienak izaten dituzten osagaien bilakaerari dagokionez, hondar inflazioa delakoak gehikuntza tasa nabarmenak izan zituzten aurreko urteko emaitzen aldean. Izan ere, energiaren prezioen tasa 2016ko %-8,2tik 2017ko %8,2ra igaro da, dagoeneko aipatu den petrolioaren garestitzearen ondorioz. Landugabeko elikagaiek, berriz, goranzko joerari eutsi zioten (2016ko %2,6tik %3,7ra), eguraldi txarraren ondorioz.

Petrolioaren garestitzearen ondorioz, etxebizitzak (%3,7) eta garraioak (%4,3) izan zituzten gorakada bizienak, lehengai horrekin lotura estua dutelako. Izan ere, bi talde horiek aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten aurreko urtean eta 2017an EBZk inflaziorako ezarri duen helburua gaintitu zuten. Etxebizitzaren kasuan, bilakaera horren atzean argindarraren salneurriak izan zuen igoera nabarmena dago. Garraioari dagokionez, berriz, erregaien salneurriak ezagutu zuen gorakada izan zen joeraren erantzulea.

EAE-KO KONTSUMO PREZIOEN INDIZEA

28. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Indize orokorra	2,3	1,6	0,2	-0,3	0,0	2,0
- Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,7	2,9	-0,6	1,4	1,6	1,2
- Edari alkoholdunak eta tabakoa	5,8	6,0	1,0	0,9	0,4	1,7
- Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,1	0,2	0,4	0,8	0,7
- Etxebizitza	5,7	1,1	2,0	-1,7	-4,1	3,7
- Etxeko hornidura	1,1	2,0	-0,4	0,0	0,5	-0,3
- Medikuntza	-0,7	7,5	4,3	0,1	1,0	1,1
- Garraioa	4,3	0,3	-0,5	-4,1	-1,8	4,3
- Komunikazioak	-3,4	-4,3	-6,1	-1,7	2,6	1,3
- Aisia eta kultura	1,0	1,6	-1,2	-0,2	-1,0	1,9
- Irakaskuntza	2,8	3,0	2,7	2,2	0,6	1,6
- Hotelak, kafeak eta jatetxeak	1,0	1,1	0,7	0,3	1,0	1,8
- Besteak	2,4	2,1	1,2	1,7	1,7	0,7

Iturria: INE.


Indize orokorraren igoera, adierazi denez, petrolioaren garestitzeak zeharo baldintzatu zuen arren, berau osatzen duten hamabi taldeen bilakaeran nolabaiteko normaltzea hauteman da. Hain zuzen ere, 2016an oraindik talde batzuek prezioak jaitsi zituzten bitartean, 2017an etxeko tresneriak bakarrik (%-0,3) merkatu zituen bere salneurriak. Are gehiago, dagoeneko eskuragarri dagoen 2018ko informazioaren arabera, talde guztiek igo dituzte beren prezioak urte arteko tasan. Tasa horiek esanguratsuak dira komunikazioetan (%2,5 maiatzean), edari alkoholdunak eta tabakoan (%2,4) eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edarrietan (%2,1), dagoeneko aipatu diren garraioaz (%4,8) eta etxebizitzaz (%2,5) gain.

Euroguneko inflazioarekin alderatuta, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako prezioek portaera dinamikoxeagoa izan zuten, gorago aipatu den bilakaera neurritsu baten barruan. Izan ere, autonomia erkidegoan jaso zen %2,0aren aldean, Eurogunearen datua %1,7 izan zen. Horren ondorioz, aurreko hiru urteetan lortu zen aldeko diferentziala galdu zen 2017an. Zalantzarik gabe, petrolio gordinaren salneurriaren bilakaerak eragin handiagoa dauka EAEn Europako multzoan baino, zeren eta erregaien azken prezioaren osacera atal finkoak EAEn pisu txikiagoa duelako, petrolioaren aldakuntzak gertatzen direnean mugimendu handiagoak


marrartzuz. 2018ko erdialdean, KPIaren diferentziala Eurogunerarekiko hamarren bakarrekoa izan da. Beraz, oro har, ez da portaera ezberdinik hautematen kontsumoko prezioen esparruan.

KPIaren bilakaera 23. irudia Urte arteko aldakuntza tasak

Indize orokorra: EAE



Indize orokorra: Eurogunea




Iturria: INE eta Eurostat.

Indize orokorrean portaera ezberdinik ez egoteak ez du esan nahi lurralde bateko eta besteko produktuen taldeen artean desberdinik ez dagoenik. Hain zuzen ere, analisi zehatzago batek seinatzen du garraioa eta etxebizitza gehiago garestitu zirela EAEn, energiarengatik, baina bi talde horietaz gain, komunikazioak ere askoz gehiago garestitu ziren EAEn Euroguneko batez bestekoan baino. Zehatz-mehatz kontatuta, bi lurraldeen arteko aldea talde horretan hiru puntuetatik hurbil egon zen. Azpimarragarria da hezkuntzaren garestitze handiagoa ere, lehiak eragin txikia daukalako talde horretan. Kasu horretan, EAEko gehikuntza Eurogunearena baino puntu bat eta erdi handiagoa izan zen. Aisia eta kultura biltzen dituen taldearen prezioen igoera gutxi gorabehera puntu bat gehiago igo ziren EAEn Eurogunean baino. Aitzitik, ondasun talde batzuetan EAEko prezioen gehikuntza Europakoa baino txikiagoa izan zen. Halere, kasu guztietan diferentzia horiek ez ziren puntu erdi batera iritsi.

EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tartearen 2017ko batez besteko balioak

24. irudia



Iturria: INE eta Eurostat.

4.3 Industria prezioak

Industriaren prezioek aldakuntza tasa positiboak jaso zituzten 2017an, lau urtez jarraian jaitsierak pilatu ondoren. Berriro ere, adierazi behar da goranzko bilakaera horren atzean petrolio gordinaren garestitzea zegoela. Orobat, 2018ko lehen hilekoetarako eskuragarri dagoen informazioak seinalatzen du lehengai horren presioak urte arteko tasa gorarazi duela berriro, maiatzean %4,0an kokatu arte.

Hain zuzen ere, energiaren atalak %-11,3ko batez besteko bilakaera izan zuen 2016an eta hortik 2017ko %10,0ra igaro zen. 2017ko azken hilekoetan eta 2018ko lehenengoetan indize horrek moteltze garbia erakutsi zuen arren, maiatzean urte arteko tasa berriro %11,4ko maila altuan kokatua zen. Gainontzeko produktu taldeen artean, azpimarratzekoa da bitarteko ondasunen prezioek jaso zuten igoera. Produktu horien artean, industriaren gainontzeko lehengaiak daude. Bitarteko ondasunek lau urteko merkatze jarraituak bizi zituen eta 2017an %2,8 garestitu zituen prezioak, 2018ko maiatzean urte artekoa %3,4an zegoela. Ekipamendurako ondasunak %1,8 neurritsua garestitu ziren 2017an, baina 2018ko hasieran zertxobait leundu dute tasa hori. Azkenik, kontsumorako prezioek %0,9ko tasa txikia izan zuten 2017an, azken datua, 2018ko maiatzarena, %1,7an zegoela. Talde horretan, kontsumo

iragankorreko ondasunek gehikuntza handixeagoa izan dute 2018ko lehen hilekoetan, %2,0aren ingurukoa.

EAE-KO INDUSTRIAKO PREZIOEN INDIZEA

29. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Indize orokorra	2,4	-0,7	-1,1	-2,6	-3,0	3,3
- Kontsumoko ondasunak	1,8	0,1	-0,2	-0,6	0,7	0,9
- Kontsumo iraunkorrak	0,5	0,2	-1,2	-0,3	-0,3	1,0
- Kontsumo iragankorrak	2,3	0,0	0,1	-0,7	1,0	0,9
- Ekipamendu ondasunak	1,2	1,3	-0,4	0,3	0,9	1,8
- Bitarteko ondasunak	0,2	-1,4	-0,7	-0,8	-2,2	2,8
- Energia	7,8	-1,8	-3,6	-11,6	-11,3	10,0

Iturria: Eustat.

5. LEHIAKORTASUNA ETA LAN KOSTUAK

5.1 Produktibitatea


BPGaren hazkunde motelagoak, %3,1etik %2,9ra igaro baitzen, eta enplegu sorreraren bizkortzeak lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %0,8ra eraman zuten 2017an, azken urteetako baliorik txikiena baita. Ezaugarri positibotzat jo behar da jarduera sektore guztiek beren produktibitatea areagotu zutela modu orokorrean, oso antzekoak ziren balioak jasotzen.

Urte jakin batean lortutako irabaziaz gain, interesgarria da EAeko ekonomiaren produktibitatea herrialde lehiakideenarekin alderatzea, bereziki Europako inguruneko herrialdeekin erkatzea. Izan ere, Eurostatek herrialdeentzat eta eskualdeentzat eskaintzen dituen datuak erabilia, agerian geratzen da 28 kidez osatutako Europar Batasuneko kasuan lan egindako ordu bakoitzeko produktibitatea 100 bada, EAeko produktibitatea 120aren inguruan kokatzen dela modu iraunkorrean, prezioen maila erosteko ahalmenaren parekotasunaz (EAP) zuzentzen denean. Bestela esanda, EAEn lan egindako ordu bakoitzak Europako batez bestea baino %20 inguruko balio gehiago sortzen du.


Lan produktibitatea orduko

25. irudia

EB28=100



EB15=100



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eurostateko datuetan oinarrituta.

Alderaketa bera egin daiteke Europar Batasunaren barnean dauden herrialde aurreratuenekin, EB15 delakoan parte hartzen dutenekin, alegia. Talde horrek albo batean uzten du azken zabalpenean sartu ziren ekialdeko herrialdeak. Kasu horretan, EAeko posizio erlatiboa ez da horren ona, baina oraindik herrialde multzo horren batez bestekoaren gainetik kokatzen da. Zehazkiago adierazita, 2010ean eta 2011n ia EB15aren parean kokatu zen, baina ondorengo urteetan haiekiko hobekuntza lortu zen eta 2016an, eskuragarri dagoen azken urtea baita, 103,9ra iritsi zen. Aipatu behar da, alderaketa horretan Espainiaren egoera ez dela horren ona, zeren eta EB28aren 100era ez baita iristen eta EB15aren alderaketan 90aren azpian kokatzen delako.

EAeren produktibitate handiagoa azaltzen duten arrazoietakoa bat ekoizpen egituran dago, industriak pisu handiagoa duelako EAEn Europako egituran baino, eta industria da produktibitate handiena duen sektorea. Hain zuzen ere, 2017an industriak EAeko balio erantsiaren %24 bereganatzen zuen, EB28an %20 eta Estatuan %18 biltzen zuen bitartean. Hala eta guztiz ere, hori ez da arrazoi bakarra. Jarduera adarren azterketa sakonagoak erakusten du EAeko ekonomia produktiboagoa dela haietako gehienetan, hala EAPtan nola eurotan kalkulatzeko bada.

LAN PRODUKTIBITATEA ORDUKO

30. taula

Euroak eta EAP. EB28 = 100.

	Euroak			EAP		
	2000	2008	2016	2000	2008	2016
Guztira	95,5	107,3	104,2	113,1	116,8	115,7
Lehen arloa	203,1	179,7	190,6	240,6	195,7	211,7
Industria	96,8	117,4	118,3	114,6	127,9	131,3
- Manufakturak	98,2	120,2	117,3	116,3	130,9	130,3
Eraikuntza	123,2	152,4	154,3	146,0	166,0	171,4
Merkataritza eta ostalaritza	96,1	106,3	103,5	113,8	115,8	115,0
Informazioa eta komunikazioak	96,8	95,8	82,5	114,7	104,3	91,6
Finantza jarduerak	119,8	153,0	115,8	141,9	166,6	128,6
Higiezinen jarduerak	66,5	118,6	180,2	78,8	129,2	200,1
Jarduera profesionalak	72,1	77,1	82,4	85,4	83,9	91,5
Administrazio Publikoa	113,4	112,2	103,4	134,3	122,1	114,8
Jarduera artistikoak	75,6	85,5	76,6	89,5	93,1	85,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eurostateko datuetan oinarrituta.

Hain zuzen ere, aurreko taularen banaketak bide ematen du bereizteko zein jardueretan da EAE produktiboagoa, zeinetan berdintzen du Europar Batasuneko batez bestekoa eta, azkenik, zeinetan dauka oraindik hobetzeko tartea. Lehenengoen artean, nabarmendu dira higiezin jarduerak (EB28ko batez bestekoaren %180,2an dago kokatuta) eta eraikuntza (%154,3), baina baita industria bera (%118,3) eta finantza jarduerak (%115,8) ere. Administrazio publikoan (%103,4) eta merkataritza eta ostalaritzan (%103,5) ia ez dago alderik Europarekiko. Azkenik, atzerapena begi bistakoa da informazioa eta komunikazioetan (%82,5), lanbide jarduerak eta zerbitzu laguntzaileetan (%82,4) eta jarduera artistiko eta aisialdikoetan (%76,7).

5.2 Soldatak


Produktibitatearen hobekuntza soldaten igoeraren oinarria da. Epe luzean, produktibitatea areagotu ezean, ezinezkoa da ordainketak igotzea. Historikoki, bataren eta bestearen arteko lotura oso estua izan da, baina nazioarteko erakunde batzuek adierazi dute azken urteetan bi magnitude horiek banandu egin direla. Erakunde horietako bat ELGE da eta 2018ko Enpleguaren aurreikuspenak txostenean honakoa adierazi du: *azken bi hamarkadetan, ELGEko herrialde gehienetan, soldaten batez besteko igoera errealak ez da izan produktibitatearen gehikuntzaren tamainakoa.*

EAEko kasuari dagokionez, lan egindako ordu bakoitzeko soldataren igoera oso ondo egokitu zaio produktibitatearen irabaziari, bi aldagai horiek termino nominaletan kalkulatu direnean. Izan ere, epealdiaren hasiera 2000. urtean jartzen bada eta horri 100eko balioa ematen bazaio, 2016an, lan egindako ordu bakoitzaren produktibitate maila 162an kokatzen da eta lan egindako ordu bakoitzaren soldata, berriz, 158ra iristen da. Beherago erakusten diren irudiek hamasei urte horietan gertatu den paralelismoa agerian uzten dute. Beraz, termino nominaletan ondo bete da soldatak produktibitatearen parean igotzea eskatzen duen araua.

Hala eta guztiz ere, oso bestelakoa da egoera bi aldagai horiek termino errealetan alderatzen badira, ELGEren goiko aipamen horretan seinatzen zenez. Jakina, bi magnitudeak BPGaren deflatorearekin zuzentzen badira, aurreko emaitza ez da aldatzen, baina soldaten kasuan KPI indizea erabiltzen bada, adierazle horrek familien erosteko ahalmena hobeto islatzen duelako, garbi geratzen da soldata errealak ez dela produktibitate errealak bezain beste igo. Azken hamasei urteetako bilakaeran, bi epe banandu daitezke. Lehenengo 2000tik 2009ra doa eta bi aldagaiek


antzekotasun handia erakutsi zuten bilakaeran. Hain zuzen ere, produktibitatea 115,5eko balioan kokatu zen eta soldatak, berriz, 114,3an. Beraz, bederatzi urteren ondoren, bi aldagaien arteko aldea puntu bakar batera mugatzen da. Data horretatik aurrera, bide ezberdinak hartzen dituzte eta 2016an produktibitatea 125ean kokatuta bazegoen, soldata errealak bere horretan zeuden, atzerago ez bazeuden, eta 111 apal batean zeuden.

Produktibitatearen eta soldaten bilakaera 26. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eurostateko datuetan oinarrituta.

INEk urtean behin soldaten egituraz argitaratzen duen inkestak soldata nominalen bilakaera krisia hasi zenetik sakonago aztertzea ahalbidetzen du. Estatistika horren arabera, 2008an langile bakoitzeko batez besteko soldata (gordina eta urte osoarena) 25.547 eurokoa zen EAEn. Zortzi urte beranduago, zenbaki hori 27.481 eurotara igoa zen, guztira %7,6ko gehikuntza tasa delarik, urte bakoitzeko igoera %1,0 izan zela. Erreferentzia gisa, adierazi behar da zortzi urteko epealdi horretan, KPI indizea %9,2 igo zela. Beraz, soldata nominalak %7,6 igo ziren arren, soldata errealak puntu bat eta erdi inguru gutxitu ziren.




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Lan egindako ordu bakoitzeko analisi batean, aipatu den iturri estatistikoak adierazten du batez besteko soldata 2008an 16,16 eurotan zegoela eta 2016an 18,17 eurotara igo zela. Horrek esan nahi du zortzi urteetarako gehikuntza, guztira, %12,4 izan zela, hots, ia %1,5 urte bakoitzean. Kasu horretan, soldata errealaren igoera positiboa, baina txikia, izan da. Langileko eta orduko kalkuluetan agertzen den desberdintasuna batez besteko lanaldiaren murrizketatik dator. Lanaldiaren jaitsiera hainbat arrazoiengatik gertatu daiteke: aparteko orduak murriztu dira, lanaldia murriztea xedea duten enplegua erregulatzeko dossierren igoera edo lanaldi laburreko kontratuen erabilera handiagoa.

INERen soldaten egituraz eginiko inkestak urrats bat gehiago ematen du datuak biltzeko orduan eta soldata guztien artean, 10. pertzentila (soldata apalenak jasotzen dituen %10) eta 90. pertzentila (gehien irabazten duen %10) bereizten ditu. Bi kolektibo horien bilakaera ezberdina izan da. Izan ere, 10. pertzentilak, batez beste, 9.996 euro gordin irabazi zituen 2008an, baina diru kopuru hori 9.550 eurotara jaitsi zen 2016an. Beraz, soldatak, oro har, epealdi horretan %7,6 nominala hazi ziren arren, banaketa ez zen berdina izan pertzentil guztietan eta, zehazkiago esanda, soldata apalenak zituzten pertsonak igoera horretatik kanpo geratu ziren.

Soldataren bilakaera
 2008. urtea=100

28. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Aitzitik, dezil altuenean (90. pertzentila), 2008ko 42.336 euroetatik 2016ko 46.823 euroetara igaro zen, batez beste, zortzi urte horietarako gehikuntza tasa %10,6 izan zelarik, batez besteko igoeraren gainekoa. Beraz, estatistika horren arabera, krisia hasi zenetik arrakala sortu da soldaten banaketaren bi muturren artean, talde zaurgarrienean jaitsiera txikia gertatu den bitartean, soldata altuena duten kolektiboan batez bestekoaren gaineko gehikuntza jaso delako. Horren ondorioz, 90. pertzentilaren eta 10. pertzentilaren arteko erlazioa 2008ko 4,2tik (gehien irabazten duen %10aren soldata gutxien kobratzen duen %10arena baino 4,2 aldiz altuagoa da) 2016ko 4,9ra igaro da. Beraz, soldaten dispersioa handitu dela egiaztatuta geratu da.

Aurreko lerroaldean aipatzen den desberdintasunak genero osagaia eduki dezake, baina urte batetik bestera estatistika horrek argitaratzen duen informazioak diferentzia garrantzitsuak izaten ditu, joera garbi ikustea zaila egiten dutenak. Izan ere, 10. pertzentilean hautematen da 2008tik 2016ra doan epealdian gertatu zen soldata jaitsierak eragin handiagoa izan zuela emakumeen artean, batez beste 2008an kobratu zutenaren %12 gutxiago jaso zutelako 2016an. Gizonen kasuan, berriz, %5eko galera hauteman zen 2016an, nahiz eta aurreko urteko datuek hobekuntza iradokitzen zuten. Halere, pertzentil horretako gizonen soldaten bilakaera 2013an bakarrik izan zen emakumeena baino okerragoa, estatistika hori argitaratu den gainontzeko urte guztietan emakumeen egoera erlatiboki okerragoa izan zen bitartean. Beraz, emakumeei kalte egiten dien portaera diferentziala dago.

Soldataren bilakaera
2008. urtea=100

29. irudia




Iturria: INE. Soldaten egitura.

Banaketaren beste muturrean, 90. pertzentilaren datuek iradokitzen dute bai emakumeen soldata bai gizonena igo egin zela. Lehen kasuan, 2008arekiko gehikuntza %14,6 izan zen eta bigarrenetan, berriz, %11,2. Hala eta guztiz ere, pertzentil horretako batez besteko soldata nabarmen handiagoa zen gizonentzat (50.071 euro) emakumeentzat (42.445 euro) baino 2016an.


Soldataren bilakaera
 2008. urtea=100

30. irudia

90. pertzentila. Emakumeak



90. pertzentila. Gizonak



Iturria: INE. Soldaten egitura.

Guztira, gizonen eta emakumeen batez besteko soldataren arteko diferentzia (soldata arrakala) 1.000 eurotan baino gehiagotan handitu da 2008tik 2016ra doan epealdian eta azken urte horretan 7.573 eurotan kokatu zen. Aurreko irudietan ikusi denez, arrakalaren handitze hori batez ere soldata apalenetan gauzatu da. Hain zuzen ere, 10. pertzentilean arrakalaren igoera 329 eurokoa izan da, baina 90. pertzentilean 353 euroko hurbilketa gauzatu da bi generoen arteko soldatetan.


Soldaten egiturazko inkesta erabiliz aztertu daitekeen beste alderdi bat lan egiten den sektore ekonomikoaren araberrako soldaten aldakuntza da. Izan ere, hiru sektore nagusietan igo dira soldatak 2008an jaso ziren batez bestekoen aldean, baina industriak jaso du gehikuntzarik handiena.

Zehazkiago adierazita, industrian lan egiten zuen pertsonak, batez beste, 28.670 euro gordin irabazi zituen 2008an, eta zortzi urte beranduago zenbaki hori 32.664 euroetara iritsi zen, aldakuntza tasa pilatua %13,9 izan zelarik. Beste aldetik, zerbitzuetako batez besteko soldata 2008ko 24.248 euroetatik 2016ko 25.765 euroetara igo da, %6,3ko igoera pilatua delarik. Eraikuntza tarteko egoera batean geratu da maila aztertzen denean (2016ko batez besteko

soldata 26.759 eurokoa zen) eta egoera okerragoa aldakuntzari begiratuta (%5,5). Emakumeak zerbitzuetan bereziki lan egiteak azaltzen du neurri batean genero bakoitzaren soldaten diferentzia, oro har zerbitzuen soldata batez bestekoarena baino txikiagoa delako.

Soldataren bilakaera 2008. urtea=100

31. irudia



Iturria: INE. Soldaten egitura.


Aurrekoari lotuta, adierazi behar da EAEko ekonomia, gainontzeko ekonomia garatuetan ere ohikoa denez, zerbitzuen hedatzea ezagutzen ari dela bere ekoizpen ehunean. Beraz, zerbitzuen pisua, soldata txikiagoa baitu, gero eta handiagoa da, industriak pisua galtzen ari den bitartean. Zehatz-mehatz adierazita, industriaren balio erantsia balio erantsi guztiaren %28,3 zen 2008an eta bere pisua %24,2ra murriztu zen 2017an. Aitzitik, zerbitzuek beren partaidetza handitu dute epealdi horretan, 2008an zeukaten %61,4 hartatik 2017ko %69,1era. Bilakaera horren zati bat industrian bertan egiten ziren zerbitzu batzuk kanpora atera izanak azaltzen du. Orobat, kontuan hartu behar da krisiak eragin handiagoa izan duela industrian zerbitzuetan baino. Azkenik, jendartearen sofistikazioak berak zerbitzu gehiago eskatzea ekarri du berarekin. Beraz, epealdi horretan soldatek izan duten bilakaera apalaren arrazoietakoa bat sektoreen osaera aldatu izana da.

Soldaten bilakaera aztertzen denean garrantzia duen beste ezaugarrietako bat egiten den okupazio motarena da. Soldaten egiturazko inkestan, aldagai hori hiru talde handitan sailkatzen da: goi mailako okupazioa (prestakuntza handia), okupazio ertaina eta behe mailako okupazioa (prestakuntza txikia). Estatistika horrek agerian uzten du goi mailako okupazioek ia etengabe handitu dutela beren soldata erreferentziako epealdi osoan, behe mailako okupazioetan lortu den hobekuntza oso mugatua izan den bitartean. Zehazkiago, 2008tik 2016ra bitartean, goi mailako okupazioen batez besteko soldata %13,2 igo zen, urte guztietako balioak 100aren gainetik zeudela. Halere, behe mailako okupazioetan, batez besteko soldata 2008koa baino beherago egon zen urte askotan eta 2015era arte itxaron behar izan zen igoera esanguratsu bat ikusteko, hurrengo urtean %1,5era mugatu zena.


Soldataren bilakaera
 2008. urtea=100

32. irudia

Goi mailako okupazioa



Behe mailako okupazioa



Iturria: INE. Soldaten egitura.


Generoen arteko banaketak iradokitzen du behe mailako okupazioetan lan egiten duten pertsonen artean, emakumeen kontrako alborapena dagoela. Izan ere, 2008tik 2014ra bitartean, emakumeak ez du inolako hobekuntzarik ikusi bere soldatan eta 2015ean bakarrik hauteman zen hobekuntza txiki bat (%1,6) 2008ko soldataren aldean, 2016an ezeztatuta geratu zena. Behe mailako okupazioetan lan egiten duten gizonen kasuan, bilakaera hobe izan da eta 2008-2016 epealdian lortutako gehikuntza %5,5 izan da. Halaber, behe mailako okupazioa

duten pertsonen artean nabaritzen da bereziki soldata arrakala gero eta handiagoa, 2016an 10.585 euroetara iritsi zena, langile guztien multzoan arrakala hori 7.573 eurokoa izan zen bitartean. Aitzitik, zenbat eta altuagoa izan okupazioa, orduan eta txikiagoa da soldata arrakala, nahiz eta oraindik garrantzitsua den.


Soldataren bilakaera
2008. urtea=100

33. irudia

Emakumeak. Behe mailako okupazioa



Gizonak. Behe mailako okupazioa



Iturria: INE. Soldaten egitura.


Horrek agerian uzten du hezkuntzaren eta beraren errentagarritasunaren garrantzia emakumeentzat. Esate baterako, 2016ko zenbakiak adierazten dute, batez beste, goi mailako okupazioan lan egiten zuten emakumeek 33.564 euro irabazi zutela, behe mailako okupazioetan 15.157 euro bakarrik irabazi zuten bitartean. Beraz, soldata halako bi baino gehiago irabazi zuten. Gizonen kasuan, dagozkien kopuruak 40.708 euro eta 25.743 euro dira, hobekuntza %58,1 bakarrik delarik.

Langilearen kontratu mota ere garrantzitsua da soldaten banaketa aztertzeko orduan, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) europar ekonomientzat egiten duen azterketaren arabera. Izan ere, aldi baterako enpleguak, pertzentil guztietan egon arren, pisu handiagoa dauka soldata txikiagoa dutenetan. INEk egiten duen soldaten egiturazko inkestak ez du ahalbidetzen

analisia zehaztasun horrekin egitea, baina baieztatzen duenez, aldi baterako kontratua duten langileen batez besteko soldata kontratu mugagabea dutenena baino txikiagoa da. Hain zuzen ere, 2016an lehenengoek 19.410 euro jaso zituzten, bigarrenek 29.098 euro jaso zituzten bitartean. Diferentzia horren zati handi bat adinak azaltzen du, zeren eta aldi baterako kontratuak ohikoagoak baitira gazteen artean, enpresan antzinasun gutxiago dutenak eta, horren ondorioz, soldata txikiagoa.

Batez besteko soldaten bilakaerari dagokionez, kontratu motak diferentzia garrantzitsua eskaintzen du langileen multzoan 2008-2016 epealdi horretan. Izan ere, kontratu mugagabea zuten langileen soldata %5,9 handitu zen bitartean, aldi baterako kontratua zuten pertsonen soldata %0,9 bakarrik igo zen, baina urte bakoitzeko emaitzetan gorabehera garrantzitsuak jaso ziren. Orobat, gizonen artean multzo bakoitzaren igoera %7,6 eta %7,3 izan ziren, nahiko antzekoak diren tasak baitira. Aitzitik, kontratu mugagabea zuten emakumeen soldataren eta aldi baterako kontratua zutenen ordainketaren artean, nolabaiteko diferentzia hauteman zen. Kasu horretan, lehenengo soldata %8,0 handitu zen eta bigarrenena, ordea, %7,8 murriztu zen. Diferentziak 2015ean nabarmen murriztu ziren, baina 2016an berriro handitu ziren.

Soldataren bilakaera **34. irudia**
2008. urtea=100



Iturria: INE. Soldaten egitura.

Soldaten bilakaeran garrantzia duen beste alderdi bat adina da. Oro har, adin gazteenetan ez da soldataren igoerarik egon 2008-2016 epealdian eta gehikuntza guztia 35 urtetik gorako pertsonen bereganatu dute. Zehatz-mehatz adierazita, 25 urtetik beherako pertsonen oso urrun zeuden 2016an zortzi urte lehenago zeukatzen batez besteko soldata berreskuratzetik. Izan ere, 2008an, batez beste, irabazi zuten 15.406 euroen aldean, 2016an kolektibo horren batez besteko soldata 12.100 eurokoa izan zen, hots, %21 txikiagoa. Beste aldetik, 25 eta 34 urte bitartean zeuden pertsonen ere ezin izan zuten orduko soldatari eutsi, 22.233 euroetatik 22.046 euroetara igaro baitzen beren soldata.

Soldaten igoera 35 urteetatik gorakoan artean hasten da nabaritzen, baina ez die adin talde guztiei mesede egin neurri berean. 35 urteetatik 44etara doan taldeak etengabeko gehikuntza izan du eta 2008ko 25.649 euroetatik 2016ko 27.470 euroetara igaro da, igoera metatua %7,1 izan zelarik. Hurrengo taldean, ez da inolako hobekuntza nabarmenik gauzatu (%0,8) eta beraien batez besteko soldatak oraindik 29.500 euroen azpian jarraitzen du. Azkenik, 55 urte eta gehiago dutenen taldean %6,7ko hazkunde pilatua jaso da zortzi urte horietako epean, batez besteko soldata 29.975 eurotan kokatuta.


Adina eta generoa konbinatzen direnean, agerian gelditzen da ez dagoela alde handirik adin talde bakoitzean lortutako gehikuntzen artean, baina genero bakoitzaren soldata maila oso ezberdina da. Alde batera uzten bada 25 urtetik beherako taldea, inkesta horretan oso pisu txikia duelako, adin talde guztietan gizonen batez besteko soldata emakumeena baino altuagoa da.

Oro har, jasotako soldatetan dauden diferentziak gero eta handiagoak dira adina aurrera doan heinean, baina hurbiltze bat hautematen da 55 urte eta gehiagoko taldean. Hain zuzen ere, guztizkoaren aldea 7.573 eurokoa izan zen 2016an. Adin taldeka, emakumeek gizonen baino 3.972 euro gutxiago kobratu zuten 25 eta 34 urte bitarteko taldean, 7.229 euro gutxiago 35 eta 44 urte bitarteko taldean, 9.012 euroko aldea zegoen hurrengo taldean eta 8.543 euro gutxiago 55 urtetik gorako multzoan. Aurreko urteetako zenbakiak antzekoak dira, baina arrakala zabaldu dela hautematen da. Izan ere, batez besteko soldata 2008ko 25.547 euroetatik 2016ko 27.481 euroetara igaro da, ia 2.000 euroko igoera baita. Epealdi berean, generoaren arabera soldata diferentzia 1.000 euro inguru handitu zen, garai hartako 6.498 euroetatik 2016ko 7.573 euroetara.


Soldataren bilakaera
2008. urtea=100

35. irudia


Adin guztiak




25 urte baino gutxiago




25-34 urte bitartekoak




35-44 urte bitartekoak



45-54 urte bitartekoak



55 urte eta gehiago




Iturria: INE. Soldaten egitura.

5.3 Lan kostuak

INEk argitaratzen duen lan kostuen hiruhilekokako inkestak langile bakoitzeko batez besteko lan kostuaren bilakaera ezagutzea ahalbidetzen du. Aldagai horrek 2017an erakutsi zuen ezaugarria da aurreko hiru urteetako emaitza negatiboekin apurtu izana. Hain zuzen ere, batez besteko lan kostua 2.961,49 eurotan kokatu zen, urte arteko aldakuntza tasa %0,5ean utziz. Aldakuntza tasa apal hori Estatuan (%0,2), urte berean, jasotakoaren antzekoa da.

Bilakaera aztertzen bada epe luzeago batean, begi bistakoa da EAEko eta Estatuako lan kostuek antzeko joera izan dutela. Bi kasuetan, mende honetako lehen hamarkadan langile bakoitzeko kostuak %3,0 baino zertxobait gehiago hazi ziren batez beste, baina 2011tik 2015era doan epealdian jasotako gorakada nabarmen txikiagoa izan zen. Bosturteko horretan agerikoa da enpresek, krisiaren ondorioz, pairatu zituzten zailtasunak eta bideratu zuten soldaten eustea, Europako hegoaldeko herrialde gehienetan ezarri zen barne devaluazioaren barnean. Beste aldetik, ordu bakoitzeko kostuei eskaini den informazioak lehenago adierazi den bilakaeratik ez da asko desbideratzen. Hain zuzen ere, kostu horren 2017ko gehikuntza %0,2 izan zen EAEn eta %0,1, berriz, Estatuan.



Iturria. INE

Lan kostuen igoeraren geldotasuna agian leunduko da datozen epealdietan, landunen ordainketak hobetuz. Patronalak eta sindikatu batzuek adostu duten soldata igoera gutxienez %2,0 izatea eta gutxieneko soldata 1.000 eurotan finkatzea horren froga bat da. Halaber, azken urteetan langabeziak izan duen murrizketa biziak soldaten goranzko presioa ekarriko du berarekin, enpresek dauzkaten lanpostu hutsak betetzeko orduan zailtasunak agertuko diren heinean.

Lan Harremanen Kontseiluak aurkeztu dituen emaitzen arabera, 2017ko hasieran, langileen %26,0k indarrean zeukan bere lan hitzarmena, beste %53,2k aurrekoa luzatuta eta berritu gabe zeukan berea eta gainontzeko %20,8k hitzarmena bertan behera zeukan. Urte amaieran, portzentaje horiek, hurrenez hurren, %39,2, %41,5 eta %19,3 izan ziren. Negoziatzeko marjina (hitzarmen luzatuak eta bertan behera geratutakoak) handia zen arren, beste urtebete batez negoziazio jarduera oso txikia izan zen, zeren eta urte amaieran indarrean zeuden hitzarmenen %39,2 hartatik, %16,7 bakarrik sinatu ziren azken urtean.

Soldaten gehikuntzari dagokionez, batez beste, EAEn indarrean dauden lan hitzarmenek %1,6ko gorakada jaso zuten, Estatuan izan zuten tasatik oso hurbil dagoen zenbakia baita. Azken lau urteko gehikuntzarik handiena da. Aurreko urteetan ez bezala, ez zen alderik egon urte batzuetarako sinatutako hitzarmenen eta 2017an bertan adostutako hitzarmenen artean. Oro har, sektore mailan eta enpresa mailan izenpetutako soldata igoerak oso antzekoak izaten ari dira eta ez dirudi negoziazioa maila hurbilago batera eramateak soldata igoera txikiagoa ekartzen duenik.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK
31. taula

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Indarrean dauden hitzarmenak	2,7	1,3	0,7	0,6	1,0	1,6
- Urtean zehar sinatutakoak	2,0	1,0	0,5	0,8	1,2	1,6
Negoiazio esparruaren arabera:						
- Sektoreko hitzarmenak	2,7	1,3	0,8	0,6	1,0	1,5
- Enpresako hitzarmenak	2,6	1,2	0,6	0,6	1,2	1,6

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

6. ARLO PUBLIKOA

6.1. Itundutako zergen diru bilketa

Zerga itunduen bidez bildutako diru kopuruak baieztatzen du azken lau urteko bilakaera positiboa. Are gehiago, 2017an emaitza onenak jaso ziren 2005etik, 2016ko datuen aldean %11,8ko gehikuntza tasa lortuta, aurreko urtean jasotako hazkundea baino bederatzi puntu luze gehiago. Guztira, 14.500 milioi euro inguru bildu ziren. Gorakada bizi hori ulertzeko kontuan hartu behar da 2007-2016 urteetako kupoen kitapenez lortutako akordioa. Oro har, portaera hobea izan dute berriro zuzeneko zergek (%7,2) zeharkakoek (%2,9) baino.

Izan ere, zuzeneko zergek, guztira, 6.615,9 milioi euro bildu zuten 2017an, aurreko urteko 6.168,9 milioi euroren aldean, bai PFEZren gorakadari (%6,0) bai sozietateen gaineko zergari (%10,9) esker. Azken zerga horrek gehikuntza handiagoa lortu zuen arren, zuzeneko zergen diru bilketaren zati handiena (guztizkoaren %77,6) PFEZk bildu zuen berriro. Zerga horren diru bilketaren hazkundearen atzean batez ere enplegu sorrera dago, baina baita ere soldaten igoera, neurri txikiagoan bada ere.

Zerga hori sakonago aztertuta, azpimarratu behar da beraren osagai batzuen bilakaera. Garrantzia handiena duenarekin hasita, lan errenten gaineko atxikipenak %3,7 handitu ziren, batez ere enpleguaren hazkunderari esker, gorago ere aipatu denez. Izan ere, 2007an enplegua %2,0 baino gehiago hazi zen. Gainontzeko atxikipenei dagokienez, nabarmenena kapital higiezinaren errendimenduengatik atxikipenen hazkunde garrantzitsua (%10,7) izan zen, nahiz eta gehikuntza horren aurretik, 2016ko beherakada esanguratsua bizi zen. Hazkunde horren arrazoi nagusia azken urtebetean errenta aldakorreko baloreek izan duten hobekuntza da.

Beste aldetik, sozietateen gaineko zerga balio positiboetara itzuli zen, lehenengo aldiz 2013tik. Kasu horretan, hobekuntza sozietateen mozkinak iaz izan zuten portaera onak ekarri zuen. Bilakaera positibo hori dagoeneko zergaren kuota diferentzial garbiaren portaeran islatuta geratua zen, zergan pisu gehien duen osagaia horixe baita.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA

32. taula

Mila euro


	Zergak		Urte arteko aldakuntza (%)				
	2017	2012	2013	2014	2015	2016	2017
PFEZ	5.132.194	0,2	-1,5	2,9	5,9	4,1	6,0
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	4.767.619	-1,0	-1,8	1,8	1,6	2,8	3,7
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	166.782	11,0	-11,1	-8,7	-11,0	-13,8	10,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	80.996	3,0	-1,8	-3,3	-1,8	-2,9	1,9
- Ondare irabazien atxikipenak	44.768	36,1	47,6	11,9	59,7	-44,5	52,0
- Esp. zergak hainbat loteria sarien gain	24.169	-	-	-	25,5	-63,8	57,5
- Prof. eta enpresarien ordainketa zatikatuak	158.761	-1,9	-5,1	-2,6	3,8	2,3	6,7
- Kuota diferentzial garbia	-110.901	3,8	7,2	6,9	35,1	43,9	38,9
Sozietateen gaineko zerga	1.111.661	-2,5	7,5	-4,7	-10,4	-3,5	10,9
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	166.782	11,0	-11,1	-8,7	-11,0	-13,8	10,7
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	80.995	3,0	-1,8	-3,3	-1,8	-2,9	1,9
- Ondare irabazien atxikipenak	44.768	36,1	47,6	11,9	59,7	-44,5	52,0
- Kuota diferentzial garbia	819.115	-7,2	13,3	-4,5	-13,8	1,9	10,2
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	33.233	-60,1	31,6	-77,8	-669,3	95,6	-
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	117.912	16,1	17,7	6,6	1,2	-2,4	6,2
Ondarearen gaineko zerga	163.227	-	19,6	10,4	-0,9	6,8	1,2
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	24.823	-	-	-	98,6	-0,4	2,1
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	32.847	-	-	15,1	32,2	-13,9	2,2
ZUZENENKO ZERGAK GUZTIRA	6.615.897	1,0	1,7	1,2	1,6	3,5	7,2
BEZaren bertoko kudeaketa	3.762.184	-4,4	6,0	13,2	2,5	0,9	2,3
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	144.420	-18,9	-10,0	25,5	12,7	19,3	19,0
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	38.854	-29,4	-6,9	-4,9	19,3	-10,2	-0,9
Garraibide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	21.733	-29,9	-21,4	9,3	10,8	8,6	21,1
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.671.354	0,9	10,7	0,9	0,9	4,6	1,7
Aseguru sarien gaineko zerga	75.694	-4,6	-3,8	-1,1	3,2	2,4	2,0
Joko jardueren gaineko zergak	5.957	-	-	-	-46,6	20,6	20,5
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	4.164	-	-	-	266,7	-16,3	65,2
Iraungitako zergak	-7.615	0,4	-74,7	-97,6	-3.891,3	15,0	20,6
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.734.743	-3,6	5,9	9,1	2,1	2,3	2,9
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	106.798	-0,4	3,5	-8,5	10,9	4,7	-11,5
BERTON KUDEATUTAKO Z/ ITUNDUAK	12.457.438	-1,1	3,5	4,7	1,9	3,0	5,0
BEZaren doikuntza	2.274.142	7,8	5,9	8,5	5,1	3,0	70,0
Zerga berezian doikuntza	-257.652	-57,4	-96,0	-18,9	5,2	-19,9	-4,1
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	14.473.928	-0,6	3,0	4,8	2,4	2,7	11,8

Iturria: Foru Aldundiak.

Zeharkako zergek ere emaitza positiboak eskuratu zituzten berriro eta aurreko bi urteetako gehikuntza tasak gaingitu zituen. Hazkunde horretan lagundu zuen bertan kudeatutako BEZak, bosgarren urtez jarraian hazkunde tasa bat (%2,3) jaso zuelako, nahiz eta gehikuntza hori gainontzeko zerga nagusia baino txikiagoa izan zen.

Azkenik, zerga bereziek gorakada (%1,7) izan zuten 2016ko emaitzaren aldean, hidrokarburoen bilakaerari esker, portaera positiboa izan zuten bakarrak izan zirelako. Diru bilketaren gehikuntza automobilentzako gasolinaren eta gasolioaren kontsumoak eragindako diru sarreretan oinarritu zen eta argindarra sortzeko erabiltzen den gas naturalaren kontsumoaren hazkundera ere, urte hidrografikoa txarra izan zelako. Gainontzeko zergek beherakadak pairatu zituzten. Beraien artean, nabarmendu zen tabakoaren laboreena, multzo horretan pisu handia duelako. Kasu horretan, 2016ko amaieran iragarri zen tipoen igoerak erosketak aurreratu zituen, 2017ko diru bilketa gutxiaraziz, nahiz eta ezarri ziren tipoak altuagoak izan.

Itundutako zergen diru bilketa eta BPG nominala **37. irudia**
Urte arteko aldakuntza tasak eta %BPG



Iturria: Eustat eta Ogasun eta Ekonomia Saila.

2017an zehar, aipatu diren zerga itunduen presioa aurreko urteetako baino altuagoa izan zen, krisia hasi zenetik daturik altuena markatuz. Zehazkiago, 2017ko zerga presioa BPGaren %19,7aren baliokidea izan zen. BPG nominala ere hazi bazen ere, diru bilketak abiadura handiagoan gehitu zen eta, horren ondorioz, zergen pisua esanguratsuagoa izan zen.

ZERGA NAGUSIEN DIRU BILKETA (%BPG)

33. taula

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
PFEZ	6,5	6,0	6,1	6,4	6,6	6,6	6,6	6,8	6,8	7,2
Sozietateen gaineko zerga	2,5	1,9	1,5	1,7	1,7	1,9	1,7	1,5	1,4	1,6
BEZa	6,2	5,4	6,8	6,1	6,1	6,6	7,2	7,2	7,1	8,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Aurrekontu Egikaritzaren Estatistiken datuak erabilia.

Bilakaera positibo horretan, zerga nagusi guztiak izan ziren erantzuleak, zeren eta 2017an guztiek areagotu baitzuten nabarmen beren pisua BPGarekiko. Zerga nagusien kasuan, hots, PFEZren eta BEZaren kasuetan, diru bilketan izan zuten garrantzia azken urteetako altuena izan zen, balio erantsiaren gaineko zergak aipamen berezia merezi duelarik. Bi zerga horien arteko arrakala berriro handitu da, gorago aipatu den Kupoaren gaineko akordiotik eratorritako BEZaren doikuntza positiboaren ondorioz.

6.2. Eusko Jaurlaritzaren jarduera ekonomikoa

Azken urtebetean, Eusko Jaurlaritzak kontsolidazioko ahalegina esanguratsua egin zuen, aurreko ekitaldietako defizit publikoen ondoren, BPGarekiko %0,3ko superabita lortu zelako. Halako emaitzarik ez zen lortu krisiaren aurreko urteetatik. Adierazi denez, 2017an Eusko Jaurlaritzako diru sarrera arruntak %11,8 handitu ziren, izaera bereko gastuak %3,3 gehitu ziren bitartean. Bi bilakaera horien ondorioz, aurrezki gordina %409,8 harrigarri batean handitu zen, 963,4 milioi euroetara arte.

Aurrezki publikoaren bilakaera positiboaren ondorioz, 447,3 milioi euroko finantzazio behar batetik 200,9 milioi euroko finantzazio ahalmen batera igaro zen. Emaitza hori are handiagoa izan zitekeen, kapitaleko diru sarrerak aurreko urteko datuaren aldean (%-21,2) gutxitu izan ez balira, kapitaleko gastuak oraindik goranzko joerari eutsi (%11,0) zioten bitartean.

EUSKO JAURLARITZAREN ERAGIKETA ERREALAK

34. Taula

BGParen %

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
1. SARRERA ARRUNTAK	13,3	12,6	13,0	12,8	12,8	13,4
2. GASTU ARRUNTAK	13,2	12,8	12,9	12,6	12,5	12,5
Langileen gastuak	2,7	2,9	2,8	2,8	2,8	2,7
Funtzionamenduko gastuak	5,0	4,9	5,0	4,8	4,8	4,7
Finantza gastuak	0,3	0,3	0,4	0,3	0,3	0,3
Transferentzia arruntak	5,3	4,6	4,7	4,7	4,7	4,8
3. AURREZKI GORDINA (1-2)	0,1	-0,2	0,1	0,2	0,3	1,0
4. KAPITALEKO SARRERAK	0,7	0,6	0,5	0,2	0,3	0,2
5. KAPITALEKO GASTUAK	2,0	1,4	1,4	1,1	1,1	1,2
Inbertsio errealak	0,8	0,7	0,5	0,3	0,3	0,3
Kapitaleko transferentziak	1,2	0,7	0,9	0,8	0,8	1,0
6. FINANT. AHAL (+) EDO BEHAR (-) (3+4-5)	-1,2	-1,0	-0,8	-0,8	-0,6	-0,1

Iturria:Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

Aurreko guztiarengatik, aurrekontuetako kontuek azken urteetako superabitik handiena (%1,3) aurkeztu zuten kutxa terminoetan, 2016ko emaitza onak bikoiztuz. Hobekuntza hori diru sarrera autonomikoen portaera onari esker gertatu zen, bereziki, Kupoaren kitapenetik eratorritako baliabide gehigarriek bultzatuta.

Kontuen oreka horri esker, Eusko Jaurlaritzak aurreko urtean baino zor publiko gehiago amortizatzeko aukera izan zuen. Halaber, bigarren urtez jarraian, finantza pasiboak gutxitu zituen. Laburbilduz, finantza eragiketei dagokienez, 2017ko bilakaera oso positiboa izan zen, diru bilketaren hazkundera hasieran aurreikusi zena baino handiagoa izan zelako, gastuak gutxi igo zirelako eta zorpetzea murriztu zelako.

EUSKO JAURLARITZAREN ERAGIKETA FINANTZARIOAK**35. taula**

BGParen %

	2012	2013	2014	2015	2016	2017
1. BALIABIDEAK						
Finantzazio ahalmena (+) edo beharra (-)	-1,2	-1,0	-0,8	-0,8	-0,6	-0,1
Pasiboen gehikuntza eta aktiboen murrizketa	1,7	1,9	1,8	1,8	1,7	1,3
Ordaintzeko dauden obligazioak	1,3	1,1	0,9	0,9	0,9	1,1
2. ENPLEGUAK						
Aktiboen gehikuntza eta pasiboen murrizketa	0,4	0,6	0,9	1,1	1,0	1,0
Kobratzeko dauden eskubideak	1,5	1,0	0,8	0,3	0,3	0,4
Aurrekontu superabit/defizita kutxa terminoetan	0,0	0,4	0,2	0,5	0,7	1,0

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (Aurrekontu gauzatzearen estatistikak).

7. FINANTZA ARLOA

7.1. Moneta politika

Munduko finantza krisiaren une gorena 2008ko irailean gertatu zen, Lehman Brothers banku estatubatuarraren porrotarekin bat eginez. Data horretatik aurrera, banku zentral nagusiek tentsioak baretzeko eta ekonomiaren hazkundera bultzatzeko neurriak hartu zituzten. Horretarako, ohiko eta ezohiko politika hedatzaileak abiarazi zituzten. 2017an, hura gertatu eta hamar urtera, badirudi krisia gaituta dagoela, egonkortasunak eta munduko hazkunderaren sendotasunak erakusten dutenez. Horren ondorioz, banku zentral nagusiak beren politikak aldatzen eta gehiegizko pizgarriak kentzen hasi dira.

Esate baterako, Europako Banku Zentralak (EBZ) ez zuen esku hartzeko tasa igo (%0,0an dago 2016ko martxotik), baina 2017ko urrian QE programaren tamaina gutxitzen hasi zen. Hain zuzen ere, 2018ko urtariletik erdira murriztu du zorraren erosketak. Horrek esan nahi du hileko bakoitzean sartzen zituen 60.000 milioi euroren ordean, 30.000 milioi euro bakarrik sartzen dituela orain. Diru kopuru horrek bere horretan jarraituko du 2018ko iraila arte edo Gobernu Kontseiluak inflazio ibilbidearen doikuntza iraunkorra, berarentzat ezarri zen helburuarekin bateragarria izango dena, egiaztatu arte.

BANKU ZENTRALEN INTERES TASAK

36. taula

	99-02	03-06	07-10	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018 ekaina
Europako Banku Zentrala	3,40	2,40	2,10	1,0	0,75	0,25	0,05	0,05	0,0	0,0	0,0
Erreserba Federala	3,75	3,18	1,25	0,25	0,25	0,25	0,25	0,50	0,75	1,5	2,0
Japoniako Bankua	0,30	0,20	0,30	0,1	0,1	0,1	0,1	0,1	-0,1	-0,1	-0,1
Ingalaterrako Bankua	4,90	4,50	2,10	0,5	0,5	0,5	0,5	0,5	0,25	0,5	0,5
Txinako Bankua	---	---	6,1	6,56	6,00	6,00	5,60	4,35	4,35	4,35	4,35
Indiako Bankua	---	6,63	6,30	8,50	8,00	7,75	8,00	6,75	6,25	6,00	6,25
Brasilgo Banku Zentrala	---	16,4	11,25	11,00	7,25	10,00	11,75	14,25	13,75	7,00	6,50

Iturria: Europako Banku Zentrala, Reuters Agentzia eta Espainiako Bankua.

Erreserba Federalak, berriz, 25 oinarri puntuko hiru igoera onartu zituen 2017an zehar eta beste bi gehiago 2018ko lehen hilekoetan, esku hartzeko tasa %2,0an kokatu arte. Orobat, 2018ko bigarren erdian beste bi igoera onartuko dituela aurreikusten da. Fedek erabaki horiek hartu zituenean, kontuan hartu zituen herrialdearen hazkunde ekonomiko indartsua eta lan merkatuaren sendotasuna, 2017ko abenduan %4,1eko langabezia tasa zuena, azken hamazazpi urteetako apalena. Halaber, erakunde horrek iraileko bileran erabaki zuen pausuak emango zituela 4,4 bilioi dolarreko bere zorro erraldoia gutxitzeko. Diru kopuru horren ia %80, munduko finantza krisia 2008an lehertu zenetik erosi du banku zentralak, ekonomia berriro suspertzeko inoiz egin den ahalegin handienera.

Ingalaterrako Bankuak ere hamar urteko lehen neurri monetario murriztailea onartu zuen eta bere esku hartzeko tasa 25 oinarri puntutan igo zuen, %0,5era arte, herrialde horretarako aurreikuspen ekonomikoak oso positiboak ez diren arren. Brexitak eta Europar Batasunetik irteteak sortu duen ziurgabetasunak kaltea egin diete kontsumoari eta inbertsioari. Horren ondorioz, hazkundera moteltzen ari da. Hala ere, aktiboak erosteko programari eutsi dio eta oraindik 10.000 milioi libera erosten ditu. Orobat, 435.000 milioi libera esterlina balio duten bonu subiranoen erosketarekin jarraitzen du.

Japoniako Bankua, ordea, gainontzeko banku zentralen erabakietatik aldendu zen eta aldaketarik gabe eutsi zion moneta malgutzeko programari, prezioak %2,0aren inguruan modu egonkorrean igotzea lortu nahi duena. Hori dela eta, BoJ-k %-0,1ean utzi zuen erreferentziako tasa eta aktiboak erosteko programa ez aldatzea erabaki zuen. Orobat, urtean 80 bilioi yen balio duten Estatuko bonoak erosten jarraituko du.

Txinako Banku Popularrak ere bere horretan utzi zuen bere moneta politika. Ekonomia adierazleen egonkortasunak lagundu zuen joera horretan. Aitzitik, Brasileko eta Indiako banku zentralek politika hedatzaileari ekin zioten. Hain zuzen ere, Brasileko Banku Zentralak hamar aldiz jaitsi zuen erreferentzia tasa (azkena 2018ko martxoan) %6,5ean kokatu arte, ekonomiaren ahultasunari aurre egiteko. Maila hori inoizko apalena da eta ekonomia brasildarraren susperraldian lagundu zuen, beste faktore batzuekin batera, 2017an bertako BPGa %1,0 haztea lortu baitzuen, bi urtez jarraian %3,6ko eta %3,5eko jaitsierak jaso ondoren. Azkenik, Indian interes tasak puntu laurden bateko murrizketa izan zuten, %6,25etik %6,0ra, hamar hilekoz bere horretan egon eta gero. Herrialdeak azken hilekoetan izan duen testuinguru makroekonomiko onak bultzatu zuen jaitsiera hori. Hala ere, 2018an, tasa berriro %6,25era igo da.

Nahiz eta ziurgabetasun politikoa egon, interes tasak igo, moneta pizgarriak kendu eta Brexitaren negoziazioarekin jarraitu, lasaitasunak markatu zuen zor subiranoko merkatuen bilakaera. Izan ere, 2017an eskuratutako errendimendua aurreko urtean lortutakoaren antzekoa izan zen, goranzko joera txiki batekin. Salbuespena periferiako herrialde batzuk (Portugal eta Grezia) izan ziren. Esate baterako, Alemaniako bonuaren errentagarritasuna 23 oinarri puntutan igo zen 2017an, %0,43ra arte. Espainiaren eta Alemaniaren arteko diferentziala (arriku saria) 114 puntutan kokatu zen, hots, 2016ko amaieran zegoena baino 5 puntu beherago. Diferentzial hori txikiagoa izan zen udako hilekoetan (uztailean 94 puntuetara murriztu zen), baina urte amaierako krisi kataluniarrak gorantz eraman zuen azken emaitza. Harez geroztik, 2018an arriku sariak ehun puntuen inguruan jarraitu du.

10 URTERAKO ZOR PUBLIKOAREN ERRENDIMENDUA

37. taula

	Errendimendua (%)							Alemaniarekiko aldea (oinarri puntuak)							
	10-11	2012	2013	2014	2015	2016	2017	10-11	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018 Ekaina
Alemania	2,4	1,3	1,9	0,5	0,6	0,2	0,4								
Frantzia	3,3	2,0	2,4	0,8	1,0	0,7	0,8	87	67	49	30	36	47	35	36
Italia	5,9	4,5	4,1	1,9	1,6	1,8	2,0	347	321	215	134	98	161	157	237
Erresuma B.	2,7	1,9	3,0	1,8	2,0	1,2	1,2	27	53	110	122	133	103	76	97
Espainia	5,3	5,3	4,1	1,6	1,8	1,4	1,6	289	399	220	107	117	119	114	102
Irlanda	8,9	4,5	3,5	1,2	1,2	0,8	0,7	646	321	153	70	52	56	24	53
Portugal	10,2	7,0	6,0	2,7	2,5	3,8	1,9	782	568	410	215	191	357	151	147
Grezia	23,3	11,8	8,6	9,6	8,4	7,1	4,1	2.087	1.052	663	906	772	690	363	365
AEB	2,6	1,8	3,0	2,2	2,3	2,5	2,4	16	44	109	163	164	224	198	253
Japonia	1,1	0,8	0,7	0,3	0,3	0,1	0,1	-138	-53	-120	-21	-36	-16	-38	-28


Iturria: Espainiako Bankua.

Erresuma Batuan, esku hartzeko tasaren igoerak zor publikoaren errendimendua handitu zuen urte amaieran, baina urte osoko batez bestean ez zuen inolako eraginik. Goranzko joera hori 2018ko lehen hilekoetara ere luzatu da. AEBetan, 2017an errendimendua zertxobait jaitsi bazen ere, 2018ko otsailean zerga erreforma onartu izanak hamar urteko bonuen errendimendua 24 puntutan gorarazi zuen, martxoan %2,9an kokatu arte.

7.2. Truke tasak

Dibisen merkatuari dagokionez, euroak balioa irabazteko joera garbia erakutsi zuen dolarraren aldean. Hala ere, beraren kotizazioa hegakortasun handiko testuinguru batek baldintzatu zuen, Europan zegoen ziurgabetasun politikoak eta Donald Trump presidentearen plan politiko eta ekonomikoen zehaztugabetasunak eraginda. Izan ere, euroak 1,20 dolarreko langa gainditu zuen abuztuan, lehenengo aldiz 2015eko urtarriletik. 2018ko lehen hilekoetan, euroa 1,25 dolarren gainetik egotera iritsi zen.

EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak **38. irudia**
 Moneta unitateak euro bakoitzeko



Iturria: Espainiako Bankua.

Hala ere, 2018ko apirilean truke tasa hori aldatu zen eta euroaren balioa 1,19 dolarretara jaitsi zen. Hain zuzen ere, dolarrak balioa irabazi zuen euroaren aldean Trumpek Europar Batasuneko herrialdeei altzairuan eta aluminioan arantzelak jartzeko erabakia atzeratu zuenean eta geroztik bere horretan geratu zen estatubatuar ekonomia Europar Batasunarena eta Erresuma Batuarena baino hobeto dagoela ulertzeak ekarri zuen baikortasunaren ondorioz.

Beste aldetik, diru europarraren sendotasuna libera esterlinarekiko truke tasan ere nabaritu zen, 2017an euro baten balioa 0,93 liberetara iritsi baitzen, 2009ko urritik inoiz izan duen baliorik gorena. Euroak libera esterlinaren aldean irabazi duen balioaren arrazoiak ezberdinak dira. Kasu horretan, Euroguneko ekonomiaren bilakaera onari britainiar txanponaren balio galera gehitu zitzaion, Brexitak eragindako ziurgabetasunetik eratorria. Euroaren sendotasunak kalte egin zion yenari ere. Hain zuzen ere, Japoniako dirua %9,0 baino gehiago baliogutxitu zen 2017an euroaren aldean.

7.3. Baloreen merkatua

Atlantikoaren bi aldeetan datu makroekonomikoak onak izanda eta finantzaziorako baldintzak egokiak izanda, burtsen adierazleek portaera positiboa izan zuten. Izan ere, AEBetan burtsa maximo historikotan kokatu zen eta Europan irabazi garrantzitsuak eskuratu ziren. Zehazkiago adierazita, Ibex-35 indizeak bultzadari eutsi zion, urte amaieran ziurgabetasun politikoa bizi zen arren, eta urte osoko errentagarritasuna %7,4ra iritsi zen. Datu horri esker, burtsa espainiarrak bere maila berreskuratu zuen, aurreko bi urteetako jaitsieren ondoren (2016an %-2,0 eta 2015ean %-7,15). Hobekuntza hori bereziki urteko lehen erdian gauzatu zen, zeren eta azaroan eta abenduan, Katalunian tentsio handiena zegoen uneekin bat eginez, Espainiako eragiketa aretoak galerak izan baitzituen. Urteko datua ona izan zen arren, Europako burtsa handienen artean, espainiarra hazi zen gutxien. Londresekoak %7,6ko irabazia eskuratu zuen, Frankfurtekoak %12,5, Parisekoak %9,3 eta Amsterdamekoak, azkenik, %12,7.

EAEko enpresei dagokienez, Ibex-35ean kotizatzen duten hemeretzi enpresetatik hamahiruk balioa irabazi zuten 2017an. Hamahiru horietatik, hamaikak Ibex-35ek eskuratutakoa baino portaera hobea izan zuten, batez besteko balio irabazia 2017an %10,0tik gorakoa izan zela. Nabarmendu ziren Másmovil (%230,4), Burtsaren Ordezko Merkatutik Ibexera igaro baitzen, Vidrala (%72,7), Dominion (%37,9), Azkoyen (%36,2) eta CIE Automotive (%30,7). Orobat,

BBVA eta Iberdrola, 2016an galerak izan zituzten arren, 2017ko irabazleen artean kokatu ziren. Txanponaren ifrentzua Siemens Gamesak (%-29,0), Euskaltelek (%-19,2) eta Tubos Reunidosek (%-13,2) osatu zuten.

Atlantikoaren beste aldean, merkatu iparramerikarrek sendotasun handia erakutsi zuten berriro, Fedek moneta politika aldatu bazuen ere. Izan ere, 2017. urtea aurrekaririk gabeko urtea izan da Dow Jones industria indizearentzat, ez bakarrik inoizko baliorik gorenak etengabe markatu zituelako, baizik eta urte osoan zehar hileko bakar batean jaitsi zelako. Zehazkiago adierazita, Dow Jones indizeak 24.700 puntuen gainetik itxi zuen 2017. urtea, are gorago kokatu zen 2018ko urtarrilean (26.100 puntu) eta %24aren inguruko errentagarritasuna lortu zuen.

Halere, 2018ko urtarrilaren azken astetik aurrera, galera orokorrak jaso ziren nazioarteko burtsa nagusietan eta galera horiek jarraipena izan zuten 2018ko lehen hiruhileko osoan. AEBetako inflazioaren eta soldaten igoeraren datuak espero zirenak baino altuagoak izan ziren eta horrek tentsioa eraman zuen herrialde hartako burtsara, gainontzeko burtsetara ere hedatu zena. Geroztik, gobernu estatubatuarrak altzairuaren eta aluminioaren inportazioari arantzelak ezarriko zizkiolako iragarpenak martxora arte luzatu zituen galerak. Esate baterako, Dow Jones indizeak urte hasieratik %2,5 galdu du, Eurostoxxek %4,1 eta Nikkei 225ek %5,8. Ibex 35ek %4,4ko galerak pilatu ditu urte hasieratik.

Euriborrak 2008ko irailean jaso zuen bere baliorik gorena, %5,4an kokatu zenean. Harez geroztik, hipoteken erreferentzia tasak beheranzko joera leuna baina etengabea bizi du. 2016ko otsailean, euriborra eremu negatiboan sartu zen, lehenengo aldiz bere historia osoan, EBZren politika ultrahedakorraren ondorioz, eta 2018ko ekainean, hots, bi urte beranduago, indizeak bere hogeita bederatzigarren hilekoa eman zuen %0aren azpian. Are gehiago, EBZk bere pizgarriak kenduko ez dituen ez, epe laburrean euriborrak oraindik balio negatibotan jarraituko duela pentsarazten du.

7.4. Aurrezkiak, kredituak eta gordailuak


EAEko ekonomiak nolabaiteko pisua zeukan saldo positibo bat lortzen zuen normalean finantza aurrezki gordinean. Hala ere, saldo hori negatiboa izatera pasa zen laurogeita

hamarretako atzeraldian eta, hamarkada horretako amaieran oreka berreskuratu zen arren, defizit garbia jaso zen berriro hurrengo zikloan, 1998tik aurrera. Egoera defizitario horrek gaur arte irauten du.


Aurrezki finantzario garbiaren bilakaera eta kreditu eta gordailuak BPGaren ehunekoetan
Urte arteko aldakuntza tasak

39. irudia

Aurrezki finantzario garbia



Kredituak eta gordailuak guztira



Iturria: Eustat, Espainiako Bankua eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Beste aldetik, historikoki, EAEko ekonomiak saldo positiboa lortu ohi zuen ekonomiaren finantzazioan parte hartzen duten banku sistemaren bi tresna nagusien artean, hots, kredituen eta gordailuen artean. Laurogeita hamarretako erdialdea arte, gordailuen diru kopuruak kredituena baino %20tik %30era doan portzentaje batean gainditzen zuen, 1989an tasa hori %38,4ra iritsi zela. 1996tik joera hori iraultzen hasi zen eta 2003an kredituen guztizkoak gordailuen kopurua gainditu zuen. 2007an, Atzeraldia handia hasi zenean, kredituen diru kopurua gordailuena BPGaren 25 puntutan gainditzera iritsi zen. Hori izan da ohiko joera 2013 arte.

Kredituaren gehiegizko gorakada eta aurrezkiaren jaitsiera, neurri handi batean, higiezinaren osagaiak irabazi zuen pisuaren ondorioa da. Hipoteken kreditua 1994tik 2007ra bitartean %21,6 areagotu zen. Finantza alorreko berrikuntza «sortu banatzeko» ereduaren erabilera ugaritzea izan zen. Hau da, kredituak azkar eta gutxi aztertu gabe ematea gero kreditu hori


titulizazio helburu bihurtzeko eta bigarren zein hirugarren deribatuko beste aktibo batzuk bihurtzeko. Prozesu horrek finantza krisia eragin zuten produktu toxikoak sortu zituen. Higiezinaren kredituaren pisua finantza panoraman hain handia izan zen ezen laurogeita hamarretako erdialdetik hipoteka kreditu berriaren garrantzia arlo pribatuari emandako kreditu guztien hedatze garbiaren antzekoa izan baitzen. Are gehiago, nolabaiteko inertziaz jokatu zuen 2011 arte, nahiz eta arlo pribatuari emandako kreditua osorik hondoratu zen 2009tik.

Aurrezki finantzario garbiaren bilakaera eta kreditu eta gordailuak BPGaren ehunekoetan **40. irudia**
Urte arteko aldakuntza tasak

Hipoteka kreditu berria eta kreditu osoaren hazkundera



Etxebizitzaren prezioaren hazkundera
ELGE (1994-2007)



Iturria: Espainiako Bankua, INE, ELGE eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


2008. urtea gogoratuko da urte horretan etxebizitzarekin zerikusia zuen guztia erortzen hasi zelako. Prezioak, eraikuntza, inbertsioa eta finantzazioa hondoratu ziren. Horren ondorioz, familien aberastasunak galera garrantzitsua izan zuen, zorpetze maila garrantzitsua pilatu zuten une batean. Hondoa 2012an jo eta gero, etxebizitzaren salneurria suspertzen hasi zen eta 2015etik igoera neurritsuak hauteman dira. 2017an jaso zen batez besteko gehikuntzak (%5,0) ELGE osatzen duten herrialdeen multzoak lortutakoarekin bat egin zuen.

EBZren likidezia etengabeak finantzaziorako baldintza egokiak ahalbidetzen dituen arren, lan merkatuak hobera egin duen arren eta enpresei zein familiei emandako maileguak onartzeko orduan erabiltzen diren irizpideak lasaitu diren arren, kredituen bilakaerak 2007an hasi zuen

beheranzko joerari (2015eko eta 2016ko suspertze arina izan zen salbuespena) jarraipena eman zion eta 2017an joera hori areagotu zen %1,0 murriztu arte. Are gehiago, lehenengo aldiz hamahiru urtean, EAEko eragileen zorpetze maila BPGaren balioaren azpian kokatu zen. Zehatz-mehatz adierazita, 2017an kredituak BPG osoaren %96,2 izan ziren. Maila hori 2004an jasotako %98,0 hura baino are beherago dago. Murrizketa horren oinarrian, EAEko familiek beren egoera onbidertzeko egin zuten ahalegin handia eta, neurri txikiagoan, arlo publikoak hasitako zorgabetze prozesua daude.

Etxebizitzaren prezioaren (nominalak) alderaketa eta bilakaera, eta kredituak BPGaren ehunekoetan
Urte arteko aldakuntza tasak

41. irudia




Iturria: Espainiako Bankua, ELGE eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Hain zuzen ere, arlo publikoaren kreditu biziak %5,5 murriztu ziren, 2007tik izan duen lehen jaitsiera baita. Hala eta guztiz ere, arlo publikoaren zorpetze maila oraindik 2007an kontabilizatu zena baino askoz ere handiagoa zen eta bide luzea dauka aurrean krisiaren aurreko mailara itzultzeko, garai hartan BPGaren %2,0 baino ez zenean, 2017an %9,0 delako. Dena dela, datu horiek hobekuntza garrantzitsua erakusten dute 2016an jaso zen zorpetzearen aldean, urte horretan BPGaren %9,9ra iritsi baitzen, inoizko daturik gorena. Hobekuntza horren zati bat 2017ko superabitak azaltzen du.

Arlo pribatuak oso presente dauka krisian bizi zuen egoera zaila. Garai horretan, zorpetze maila BPGaren %125,2ra iritsi zen. Beraz, ez dago prest maila horietara berriro iristeko. Izan ere, azken datuen arabera, familien oraingo zorpetze maila 2008an izan zuen maximoaren %24,8 beherago dago. Horrek esan nahi du denbora horretan 21.141 milioi eurotan gutxitu duela bere zorra.

Kredituen bilakaera 42. irudia
Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro



Iturria: Espainiako Bankua.

Espainiako Bankuak argitaratu dituen datuek joera hori baieztatu dute. Beraietan, bankuen 2017ko berankortasuna txikiena izan zen krisiaren une okerrenetik. Ekonomia eta lan merkatua hobetu diren heinean, familiek arazo gutxiago izan dituzte kredituen kuotak ordaintzeko. Une txarrena 2013ko abenduan bizi zen, garai hartan berankortasuneko indizea kontratatutako kredituen %13,6tik gora kokatu zenean. Harez geroztik, etengabe egin du behera, gaur eguneko %7,8ra iritsi arte. Edozein modutan, zenbaki hori oraindik 2008ko krisia hasi zenean zegoena baino altuagoa da. Izan ere, 2008an emandako kreditu guztietatik %2,0 bakarrik geratu zen ordaindu gabe.

Gordailuen ordainsariei dagokienez, 2016. urtea *annus horribilis* moduan gogoratuko da, EBZk ezarri zuen zero mailako tasen politikaren ondorioz. Bada, 2017 ere berdina izan zen. Hain zuzen ere, ageriko gordailuek %0,04ko errentagarritasuna lortu zuten iaz eta %0,08koa, berriz, eperako gordailuek. Bi tasa horiek 2016an jasotako %0,06 eta %0,11 baino are txikiagoak dira. Maila apal horiek bere horretan jarraitu dute 2018ko lehen hilekoetan. Beraz, produktu mota horietan inbertitzea ez da bat ere erakargarria.

Hala ere, badirudi EAEko eragileak ez direla errenta aldakorraz asko fidatzen inbertitzeko aukera gisa, eta berriro jokatu zuten gordailuen alde, zeren eta interes tasak igoko direlako eszenategi posible baten aurrean ez baita zuhurra epe ertaineko eta luzeko errenta finkoan inbertitzea. Zehazkiago adierazita, gordailuak %4,7 handitu ziren, 2008tik aurrera inoiz izan duten gorakadarik handiena, arlo publikoak (%11,2) zein pribatuak (%4,4) produktu horietan egin zuten gehikuntzari esker.

GORDAILUEN BILAKAERA

38. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2008 - 2017 arteko aldea	
							Mila €	Tasak
Guztira	-3,9	2,5	-2,0	3,3	1,9	4,7	3.317,9	4,3
Gordailu publikoak	-8,1	5,0	6,1	3,0	-0,2	11,2	-2.506,7	-43,7
Gordailu pribatuak	-3,7	2,4	-2,3	3,3	2,0	4,4	5.824,7	8,2
Ageria eta aurrezkoa	-0,5	4,6	7,0	18,2	15,4	20,9	31.228,6	115,7
Epera	-6,2	0,5	-10,3	-12,0	-16,6	-27,3	-25.404,0	-58,2

Iturria: Espainiako Bankua.

Zortzi urtez jarraian gordailutan eginiko inbertsioak murriztu eta maila neurritsuetan utzi ondoren, arlo publikoak joera hori irauli zuen 2017an eta ekarpen berriak egin zituen. Horren ondorioz, gordailu publikoen diru kopurua 3.226 milioi eurotik gora iritsi zen, 2010etik inoiz izan den kopururik gorena baita.

Arlo pribatuari dagokionez, errentagarritasun guztiz hutsaleko eszenategi batean (%0,04, %0,08aren aldean), EAeko familiek berriro segurtasuna eta dirua edukitzeko berehalakotasuna lehenetsi zituzten agertu daitezkeen eszenategi zailei aurre egiteko, eta ageriko zein konturako gordailuen alde jo zuten berriro. Ekonomiaren hobekuntzak aurrezteko ahalmena areagotu zuen. Horri erantsi behar zaio ordura arte eperako gordailuetara bideratu zen diruaren zati handi bat mugitu zutela. Bi arrazoi horiengatik, ageriko eta konturako gordailuak %20,9 handitu ziren eta guztira 58.200 milioi euro baino gehiago bildu zuten. Likideziaren aldeko hautu horrek kalte egin zien eperako gordailuei, laugarren beherakada jarraitua izan baitzuten. Hain zuzen ere, 2017an bakarrik, EAeko eragileek 6.853 milioi euro atera zuten eperako produktuetatik. Datu hori 25.400 milioi euroetara iristen da 2008ko amaieran produktu horietan inbertitu zen diru kopuruarekin alderatzen bada.

Espainiako Bankuak argitaratu dituen azken datuek egiaztatzen dute arlo pribatuak bere egoera finantzarioa onbideratzeko hartu duen joera. Hain zuzen ere, Estatu mailan osatu diren 2017ko finantza kontuen arabera, familien aberastasun finantzario garbia, finantza aktibo guztiei pasiboak kentzen lortzen baita, %3,8 areagotu zen 2017an, 1,37 bilioi euroko diru kopurua pilatu arte. Datu hori BPGaren %118aren baliokidea da eta, bosgarren urtez jarraian, bilioi eurotik gorako langa gainditu du. Orobat, finantzaz bestelako sozietateen eta familien eta irabazteko asmorik gabeko erakundeen zor gordin bateratuak 1,840 bilioi eurotan amaitu zuen pasa den urtea, BPGaren %158,1ean, hots, 2016an jasotako emaitza baino 8,6 puntu beherago eta krisiaren aurreko maila baino 50 puntu gutxiago. Datu horiek agerian uzten dute arlo pribatuak bere zorpetze maila gutxitzeko eta aberastasuna handitzeko aurrera eraman duen doikuntza garrantzitsua.

7.5. Familien finantza egoera


Etxebizitzaren merkatuak suspertzeko joerari jarraipena eman zion EAEn, hala salerosketen kopuruan nola prezioan. Izan ere, Sustapen Ministerioak argitaratu dituen estatistiken arabera, 2017an, EAEn 20.900 eragiketa inguru jaso ziren, hots, aurreko urtean eginikoak baino %11,5

gehiago. Beraz, hazkunde positiboa lortu da laugarren urtez jarraian. Halaber, zifra horrek 2013an eginikoak (10.736), huraxe izan baitzen krisiaren urte txarrena, ia bikoizten ditu. Dena dela, urrun dago 2007an, higiezinaren burbuila lehertu aurreko azken urtean, egin ziren 26.573 salerosketetatik. Prezioek ere 2013an hasitako goranzko joerari segida eman zioten eta %5,2 hazi ziren, etxebizitzaren prezioen indizearen arabera. Deigarria da egiaztatzea EAEk jaso zituela eragiketen gehikuntza tasa txikiena autonomia erkidego guztien artean, baina laugarren toki hartu zuen prezioen igoeran, Madril (%11,4), Katalunia (%9,6) eta Balearrak (%8,0) bakarrik aurrean dituela. Hala eta guztiz ere, etxebizitzaren kostua EAEn oraindik 2007an jaso ziren maximoetatik %25 inguru beherago dago.


Etxebizitzaren hipoteken bilakaera. Mila

43. irudia

Formalizatutako hipoteken batez besteko zenbatekoa



Formalizatutako hipotekak



Iturria: INE.


Salerosketa horiek ordaintzeko modua aldatu da. Izan ere, Notarriotzako Kontseilu Nazionalak argitaratutako datuen arabera, 2017an erosi ziren etxebizitzaren %80,0 bankuen finantzazioaren bitartez ordaindu ziren. Beraz, hamar etxebizitzatik bi, eskura ordainduz erosi ziren. Atzeraldiak salerosketen kopurua eta finantzazioa murriztu zituen, hala familien egoera ekonomikoa zailagoa zelako hola finantzazioa lortzeko baldintzak gogortu zirelako. Hori dela eta, portzentaje hori gutxituz joan zen eta 2014an %55,0ra iritsi zen. Urte horretan hondoa jo zuen. Bakarrik 11.500 salerosketa egin ziren, 2006an baino %73,0 gutxiago. Eta haietatik erdian bakarrik jo zuten erosleek banku baten mailegu batera.

2017an, interes tasa apalek, kreditu erakundeek finantzaziorako eskaintzen zituzten baldintza onek eta EAEko familien egoera ekonomiko onbideratuak etxebizitzak erosteko sinatu ziren hipoteken gehikuntza ahalbidetu zuten, %4,4 areagotu baitziren eta salerosketa guztien %65,0 izatera iritsi ziren. Zehatz-mehatz adierazita, 2016an baino 683 hipoteka gehiago sinatu ziren eta beraietan zehaztu zen diru kopurua %2,9 altuagoa izan zen. Are gehiago, 2014an baino 4.788 hipoteka gehiago onartu ziren 2017an, urte hartan 11.469 hipoteka bakarrik sinatu zirelako, gaur arte gauzatu den kopuru txikiena baita. Halere, azken urtean erritmoa moteldu da eta urrun dago oraindik 2006an lortutako errekorretik, non 43.328 hipoteka sinatu baitziren. Badirudi 2018ra ere luzatuko dela goranzko joera hori, nahiz eta oraingoa baino erritmo apalxeagoan.


Beste aldetik, euriborraren jaitsierak, batez ere 2016an, bankuak bultzatu ditu tasa finkoko hipotekak eskaintzera, tasa aldakorren ordez. Izan ere, Kutxabank-ek eta Servatasek (tasazioen EAEko zerbitzuak) elkarrekin egiten duten urteko azterketaren arabera, iaz EAEn onartu ziren hipoteka eragiketa guztien %43,0 tasa finkoan edo mistoan emandako maileguak izan ziren. Orobat, hipotekadun berriaren argazkia honakoa da: 35 urtetik beherako bikotea, ohiko etxebizitza bigarren eskukoa erosten duena eta batez beste 175.000 euroko hipoteka hartzen duena.

Interes tasen bilakaera **44. irudia**

12 hileko euriborra



Hipotekak interes tasak



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Ekonomia egoeraren hobekuntza Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen duten pertsonen artean ere hauteman zen. Krisi ekonomikoak jasotzaileen kopurua gorarazi zuen 2015. urtera arte, urte horretan 66.000 baino gehiago izan zirelarik. Harez geroztik, lan merkatuaren hobekuntzak eta ekonomiaren egoerak beheranzko joeraren hasiera ekarri zuten, 2017an areagotu zena. Hain zuzen ere, jasotzaileen kopurua 2.726 pertsonatan jaitsi zen iaz. Murrizketa are handiagoa da inoizko kopurua handiena jaso zuen 2015eko hartzaileen kopuruarekin alderatzen denean, 3.500 baino gehiagokoa izan zelako. Diferentzia handiagoa da alderaketa abenduko jasotzaileekin egiten bada, 60.000ko langa gutxigatik gainditu baitzuen, eta are handiagoa 2018ko lehen hilekoekin egiten bada, lehengo aldiz bost urtean 60.000 onuradunen azpitik kokatu zelako. Astiro baina etengabe jaisten ari da kopurua. Ekainean, hartzaileen kopurua 57.917etara murriztu zen.

DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN BILAKAERA**39. taula**

Batez besteko hartzaileak eta urte arteko aldakuntza tasak

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2015etik 2017ra
Hartzaileak	41.958	53.286	54.522	58.151	60.237	64.931	65.578	64.799	62.073	-3.505
Bertokoak	--	--	--	40.135	43.542	46.744	47.833	46.957	45.103	-2.730
Atzerritarrak	--	--	--	18.206	16.834	18.187	17.745	17.842	16.928	-817
Aldakuntza tasak	--	27,0	2,3	6,7	3,6	7,8	1,0	-1,2	-4,2	-5,3
Bertokoak	--	--	--	--	8,5	7,4	2,3	-1,8	-3,9	-5,7
Atzerritarrak	--	--	--	--	-7,5	8,0	-2,4	0,5	-5,1	-4,6


Iturria: Lanbide.

7.6. Gizarte aurreikuspena

EAEko borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetan (BGAE), funtsa osorik edo horren zati bat berreskuratu daiteke gaixotasun larria dagoenean, iraupen luzeko langabezian dagoenean edo plana ireki zenetik hamar urte igaro direnean. Enplegu planetan, ordea, ezin da berreskuratu, salbuespena 2012ko martxoaren 7 baino lehen horrela jasota zutenak dira, data horretan pentsio planen EAEko legea erreformatu baitzen. Horrek data hori arte ekarritako diru kopurura mugatzen du berreskuratu ahal dena.

Ezaugarri horretan oinarrituta, BGAEen erreskateak areagotu ziren ekonomiaren atzeraldian, zeren eta harpidedun asko behartuta egon ziren diru hori berreskuratzera finantzazioko beharrei aurre egin ahal izateko. Hain zuzen ere, 2013an 301 milioi euro berreskuratu ziren, hots, 2012an baino 19 milioi gehiago; 2014an 221 milioi eta 2015ean, ezagutarazi den azken datua baita, 203 milioi atera ziren. Halere, azken urteetan ekonomiaren susperraldiari esker erreskateen gaineko presioa lasaitu den arren, prestazioen diru kopuruak ekarpenena gainditzen du 2012tik, funts metatuetan tentsioa sortuz. Joera hori ondorengo ekitaldietara ere luzatu da, baina urtez urte diferentzia murriztu da. Hori horrela izanda, 2013an diferentzia 197 milioi euroetara zabaldu zen eta hortik aurrera prestazioek beheranzko joera bati ekin zioten, baina beti ekarpenen gainetik kokatuta. Bost urte geroago, 2017an, desoreka 100 milioi eurotik beherakoa zen. Zehatz-mehatz adierazita, 67 milioi euroetara mugatu zen.

Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE). 45. irudia



Iturria: Euskadiko Gizarte Emendiotarako Borondatezko Erakundearen Batakuntza.

Ondareari dagokionez, 2017an ere gora egin zuen eta 25.000 milioi euroetara hurbildu zen, aurreko ekitaldiko datuak ia 666 milioi eurotan gaindituz. Beraz, %2,8ko hazkundera lortu zen. Ondare hori EAEko barne produktu gordinaren %33,7tik gorako kopuruaren baliokidea da. Portzentaje hori Estatuaren sistemena (%9,5) baino askoz ere handiagoa da eta hurbil dago EB-15aren batez bestekotik (%36,0), nahiz eta urrun egon eremu horretan garatuen dauden herrialdeetatik, beraien ratioak %49,0aren eta %181,0aren artean baitaude. 2017ko ekarpenak 770 milioi eurotik gorakoak izan ziren.

Azkenik, bazkideen kopurua, kontuen bitartez neurtuta, berriro jaitsi zen. Enpleguko kategoriak bakarrik handitu zuen bere bazkideen kopurua, gainontzeko hirurek, hots, elkartekideek, banakakoek eta zehaztugabeek, behera egin zutelako. Zehazkiago, bazkideen kopurua %1,6 jaitsi zen, 2016ko murrizketa baino 0,5 puntu gehiago.

8. AURREIKUSPENAK

8.1. Ingurunerako aurreikuspenak

NDFk munduko hazkundearentzat egin dituen aurreikuspenek %3,9an kokatzen dute BPGaren gehikuntza tasa 2018an eta 2019an. Aurreikuspen horiek aurreko txostenean argitaratu zirenekin bat datoz. Halere, orain ez da espero hazkundera horren uniforme izatea eta arriskuak areagotu dira. Ekonomiaren susperraldi ziklikoa gertatu zenetik bi urte igaro direnean, badirudi bizitasunak maximora iritsi dela herrialde batzuetan eta moteltzeko joera hautematen da. Eszenategi makroekonomiko horretan dauden oinarritzko hipotesien artean, moneta politikaren normaltzea ekonomia aurreratuetan, barne eskariaren bizitasuna, bereziki inbertsioaren atalean, kanpo merkataritzaren neurri protekzionistak eta merkatuetan oro har dagoen baikortasuna.

Aurreikuspen ekonomikoak
Urte arteko aldakuntza tasak

40. taula

	BPG		Aurreikuspenak		Aldea aurreko txostenarekiko	
	2016	2017	2018	2019	2018	2019
Munduko ekonomia	3,2	3,7	3,9	3,9	0,0	0,0
Ekonomia aurreratutak	1,7	2,4	2,4	2,2	-0,1	0,0
AEB	1,5	2,3	2,9	2,7	0,0	0,0
Eurogunea	1,8	2,4	2,2	1,9	-0,2	-0,1
Alemania	1,9	2,5	2,2	2,1	-0,3	0,1
Frantzia	1,1	2,3	1,8	1,7	-0,3	-0,3
Italia	0,9	1,5	1,2	1,0	-0,3	-0,1
Espainia	3,3	3,1	2,8	2,2	0,0	0,0
Erresuma Batua	1,8	1,7	1,4	1,5	-0,2	0,0
Japonia	1,0	1,7	1,0	0,9	-0,2	0,0
Garapen bidean dauden ekonomiak	4,4	4,7	4,9	5,1	0,0	0,0
Txina	6,7	6,9	6,6	6,4	0,0	0,0
India	7,1	6,7	7,3	7,5	-0,1	-0,3
Errusia	-0,2	1,5	1,7	1,5	0,0	0,0
Brasil	-3,5	1,0	1,8	2,5	-0,5	0,0

Iturria: NDF (2018ko uztaila).

NDFk kontuan hartu dituen arriskuak epe laburrean beheranzkoak dira eta aurreko txostenetan aipatu zituenak baino handiagoa dira orain, bereziki merkataritzako eta finantzako tentsioekin lotura dutenak. Izan ere, AEBek inportazio multzo handi bati arantzelak ezartzeak eta ekonomia aurreratu batzuek nazioarteko integrazio ekonomikoari gero eta bultzada txikiagoa emateak munduko ekonomiaren bizitasunarentzat galga larria dira. Halaber, oraindik ekonomiatik kanpoko hainbat mehatxu daude, hala nola ziurgabetasun politikoak, arrisku geopolitikoak eta zaugarritasuna muturreko gertakari klimatikoen eta natur hondamendien aurrean.

Azaleratzen eta garatzen ari diren ekonomien artean, oso hazkunde tasa ezberdinak aurreikuspen dira. Finantzaziorako baldintzak, oro har, onak izango dira, baina oinarri ekonomiko ahulagoa duten edo arrisku politikoak dituzten herrialdeetan, kapitalaren sarrera jaitziko dela espero da. Beste aldetik, hainbat faktorek indarra kenduko diote ekonomiaren hazkundeari, hala nola petrolioaren garestitzeak, AEBetan errentagarritasuna handitzeak, merkataritzako tentsioak areagotzeak eta eremu politikoan eta ekonomikoan dagoen ziurgabetasunak. Herrialde bakoitzaren perspektiba ezberdina izango da faktore horiek idiosinkrasiazko barne elementuekin izango duten interakzioaren arabera.

Ekonomia aurreratuetan, dibergentzia handiagoa espero da, alde batetik, AEBen hazkundearen eta, beste aldetik, Europaren eta Japoniaren bilakaeraren artean. NDFren aurreikuspenek %2,4ko eta %2,2ko hazkundera espero dute, hurrenez hurren, 2018rako eta 2019rako, herrialde garatuen multzoarentzat. Aurreko txostenaren aldean egin duen beheranzko zuzenketa handiena Euroguneko ekonomietan eta Japonian fokatu da. Eskualde horietan hazkundearen apaltzea biziagoa izango da, hainbat hiruhilekoz potentzialaren gainetik hazi eta gero.

AEBetan, hainbat faktorek, hala nola zerga pizgarriak eta barne eskari pribatuaren sendotasunak, hazkunde tasa %2,9ra eramango dute 2018an eta %2,7ra, berriz, 2019an. Orobat, langabezia tasa azken 50 urteetan jasotako mailaren azpitik kokatuko da. Ekonomia estatubatuarrak aurkeztu dituen perspektiba onek inflazioaren presioak eta kontu korronteko defizita areagotuko dituzte.

Euroguneko ekonomiari buruz, aurreikuspenak beherantz zuzendu ditu Alemanian eta Frantzian, 2018ko lehen hilekoetan jarduera espero zena baino gehiago ahuldu zelako. Italian, berriz, ziurgabetasun politikoak barne eskaria galgatu zuelako.

Espainiaren ekonomiak sendotasuneko irudia eskainiko du datozen urteetan. Funcasek osatzen duen panelaren arabera, BPGak gora egingo du 2018an eta apaltze neurritsua izango du 2019an, hazkunde tasak, hurrenez hurren, %2,8 eta %2,4 izango direla. Enplegu sorrerak, kanpoko testuinguru positiboak eta ekonomia eragileen baikortasunak ekonomiaren jarduerari bultzada emango diote.

Espainiarentzako aurreikuspen ekonomikoak (2018ko uztaila)
 Urte arteko aldakuntza tasak

41. taula

	BPG		Kontsumo pribatua		Kontsumo publikoa		KFEG		KFEG eraikuntza		KFEG ekipamenduan	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AFI	2,9	2,4	2,5	2,0	1,5	2,0	4,6	3,7	5,2	4,2	4,1	3,4
Axesor	2,9	2,6	2,4	1,8	2,0	2,2	4,2	5,5	6,3	7,4	2,0	4,1
BBVA	2,9	2,5	2,2	2,0	1,7	1,9	4,8	5,4	4,7	5,4	5,2	5,3
Bankia	2,9	2,3	2,4	2,0	1,4	1,1	4,4	3,9	4,2	3,9	4,8	4,0
CaixaBank	2,8	2,4	2,6	2,0	1,5	0,8	3,4	3,0	4,8	3,2	1,6	2,6
Cámara de Comercio	2,7	2,4	2,5	2,1	1,4	1,5	4,2	4,1	4,3	4,2	4,0	4,0
Cemex	2,7	2,3	2,5	2,1	1,6	1,2	3,9	3,8	4,3	4,0	3,8	3,8
CEEM-URJC	2,7	2,4	2,2	1,8	1,4	1,3	4,4	4,2	5,2	5,0	4,0	3,5
CEPREDE-UAM	2,7	2,3	2,5	2,1	1,6	1,6	4,0	3,8	5,0	4,0	3,0	3,9
CEOE	2,8	2,6	2,6	2,3	1,4	1,7	4,4	4,5	5,2	4,8	3,7	4,1
Ee	2,8	2,5	2,3	2,1	1,7	1,9	4,1	4,2	4,3	4,9	4,2	3,9
FUNCAS	2,8	2,4	2,1	1,8	1,4	1,2	5,5	4,6	5,8	5,1	5,2	4,1
ICAE-UCM	2,7	2,4	2,3	2,0	1,5	1,4	4,7	4,2	4,5	4,0	4,8	4,5
IEE	2,8	2,3	2,5	2,0	1,4	1,4	4,2	3,4	3,2	3,1	6,0	4,7
Intermoney	2,8	2,4	2,4	2,0	1,6	1,7	4,5	4,0	4,8	4,2	4,4	4,0
Repsol	2,6	2,4	2,3	1,6	1,8	1,5	4,0	4,7	5,4	4,9	2,3	5,2
Santander	2,9	2,4	2,5	2,0	1,8	1,6	4,0	4,0	5,4	4,3	2,3	3,6
Solchaga Recio	2,8	2,3	2,5	1,9	1,6	1,5	4,0	3,7	5,3	4,3	3,1	4,0
Batez bestekoa	2,8	2,4	2,4	2,0	1,6	1,5	4,3	4,1	4,9	4,5	5,3	4,0
Pro memoria:												
Gobernua (04/18)	2,7	2,4	2,0	1,8	1,1	1,2	4,7	4,4	--	--	--	--
Espainiako B.(18/06)	2,7	2,4	2,4	1,8	1,5	1,3	4,2	4,2	5,7	4,5	2,5	4,2
Euro.Batz (18/05)	2,9	2,4	2,3	1,9	1,9	1,3	4,6	3,9	--	--	5,0	4,3
NDF (18/04)	2,8	2,2	2,3	2,0	1,0	0,7	4,5	3,6	--	--	--	--
ELGE (18/05)	2,8	2,4	2,3	1,8	1,2	1,1	4,4	4,3	--	--	--	--

Iturria: Funcaseko Panela.

Enpleguaren hazkundera positiboa izango da. Kontsentsuaren zenbatespenaren arabera, 2018an enplegua %2,4 haziko da eta 2019an, berriz, %2,0. Horri esker, langabezia tasa 2018an %15,3ra jaitsiko dela espero da eta 2019an ere beherantz egingo duela aurreikusten da, urte horretan langabezia tasa %13,6aren inguruan kokatzeko. Proiekzio horiek ez dira aldatu aurreko panelean jaso zirenen aldean.

Espainiarentzako aurreikuspen ekonomikoak (2018ko uztaila) **42. taula**
Urte arteko aldakuntza tasak

	Barne eskaria		Esportazioak ond. eta zerb.		Inportazioak ond. eta zerb.		KPI (urteko batez bestea)		Enplegua		Langabezia (BAI)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019	2018	2019
AFI	2,7	2,3	4,5	3,5	4,4	3,6	1,7	1,4	2,4	2,0	15,5	14,1
Axesor	2,8	2,7	3,5	4,2	3,7	4,7	2,0	1,9	2,3	1,9	15,1	13,3
BBVA	2,6	2,6	4,8	6,1	4,2	6,9	1,5	1,6	2,6	2,2	15,3	13,7
Bankia	2,6	2,3	4,9	3,6	4,2	3,6	1,8	1,9	2,5	1,8	15,3	13,9
CaixaBank	2,6	2,0	3,7	4,2	3,2	3,2	1,6	1,9	2,4	2,1	15,4	13,7
Cámara de Comercio	2,6	2,4	4,2	4,3	3,8	4,3	1,9	1,4	2,4	2,0	15,5	13,8
Cemex	2,6	2,2	4,0	3,8	3,9	4,0	1,7	1,7	2,5	1,8	15,4	14,0
CEEM-URJC	2,4	2,2	4,6	4,5	4,2	4,1	1,8	1,5	2,4	1,9	15,0	13,3
CEPREDE-UAM	2,6	2,3	3,2	3,8	2,8	3,7	1,5	1,6	2,2	1,9	15,6	14,1
CEOE	2,7	2,5	4,2	4,0	4,3	4,3	1,6	1,3	2,5	2,3	15,3	13,4
Ee	2,5	2,3	4,7	4,2	4,2	4,1	1,7	1,6	2,6	2,3	15,1	13,6
FUNCAS	2,7	2,3	4,8	4,6	4,7	4,3	1,9	1,5	2,5	2,1	15,1	13,2
ICAE-UCM	2,6	2,4	3,7	4,4	4,1	5,0	1,8	1,5	2,6	2,2	15,2	13,8
IEE	2,8	2,2	3,9	4,6	4,0	4,5	1,6	1,4	2,4	1,9	15,4	14,3
Intermoney	2,6	2,4	4,5	3,8	4,4	4,0	1,8	1,8	2,4	1,9	15,0	13,5
Repsol	2,4	2,2	3,5	3,2	3,1	2,9	1,9	1,6	2,4	2,3	14,9	12,6
Santander	2,7	2,4	3,9	3,6	3,5	3,5	1,7	1,7	--	--	15,3	13,8
Solchaga Recio	2,8	2,3	3,8	4,3	3,9	4,3	1,8	1,8	2,4	2,0	15,3	13,6
Batez bestekoa	2,6	2,3	4,1	4,1	3,9	4,2	1,7	1,6	2,4	2,0	15,3	13,6
Pro memoria:												
Gobernua (04/18)	--	--	4,8	4,6	4,1	4,2	--	--	2,5	2,3	15,5	13,8
Espain. B.(18/06)	--	--	4,6	4,8	4,5	4,6	1,9	1,7	2,4	2,0	15,2	13,4
Euro.Batz (18/05)	--	--	5,0	4,7	4,7	4,5	1,4	1,4	2,6	2,3	15,3	13,8
NDF (18/04)	2,5	2,1	4,7	4,2	4,3	4,1	1,7	1,6	2,0	0,8	15,5	14,8
ELGE (18/05)	2,6	2,2	4,6	4,5	4,2	4,2	1,6	1,5	2,2	2,0	15,5	13,8

Iturria: Funcaseko Panela.

8.2. EAE-ko ekonomiaren aurreikuspenak

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaz prestatu zituen aurreikuspenak eguneratuak izan dira argitaratu diren azken adierazle ekonomikoekin eta inguruneke informazioarekin. Aurkezten den eszenario makroekonomikoa 2018-2020 epealdirako, hainbat aldagai exogenori buruzko hipotesi batzuetan oinarritzen da, hala nola interes tasaz, truke tasaz eta EAEko ekonomiaren jardueran eragina duten eremu ekonomikoen hazkundeaz.

Nazioarteko inguruneari dagokionez, ekonomiaren etorkizuneko bilakaeraz egin diren aurreikuspenek seinalatzen dute hazkunde neurritsua egongo dela, kontuan hartu den denboran zehar moteltzeko joera garbia erakutsiko duena. Interes tasei buruz, euriborrek goranzko joera hartuko du datozen epeetan, EBZk joera aldaketa erakutsiko duen heinean. Europako agintaritzak martxan jarriko duen moneta politika normaltzeko prozesua kontuan hartuta dago ekonomia analisigileen aurreikuspenetan. Euroaren eta dolarraren arteko truke tasaz pentsatzen dena da dolarrak sendotasuna areagotuko duela euroaren aldean.

Eszenario makroekonomikoaren hipotesiak (2018ko uztaila)

43. taula

	2016	2017	2018	2019	2020
Euriborra	-0,264	-0,329	-0,270	-0,050	0,745
Truke tasa (euro/dolar)	0,904	0,888	0,815	0,801	0,798
ELGEren BPGaren hazkundera	1,8	2,5	2,6	2,4	1,7
Eurogunearen BPGaren	1,8	2,5	2,3	1,9	1,7
Espainiako BPGaren hazkundera	3,3	3,2	2,7	2,3	2,1

Iturria: CEPREDE eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Aipatu diren hipotesietatik eta eskuragarri dauden adierazleetatik abiatuta, EAEko taula makroekonomikoak ekonomiaren hedatzea iragartzen du, kontuan hartu den epealdian moteltzeko joera arina izango duena. Izan ere, 2018an espero den batez besteko hazkunde tasa %2,8an kokatzen da orain eta tasa hori 2019an %2,3ra eta 2020an %2,0ra apalduko dela aurreikusten da

EAE-ko ekonomiaren aurreikuspen ekonomikoak (2018ko uztaila)
Urte arteko aldakuntza tasak

44. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020
BPG	3,1	2,9	2,8	2,3	2,0
Azken kontsumoa	2,9	2,8	2,6	2,1	1,8
Kontsumo pribatua	3,1	3,0	2,7	2,1	1,9
Kontsumo publikoa	2,3	2,4	2,2	1,8	1,6
Kapital eraketa gordina	3,1	3,5	3,5	2,9	2,4
Barne eskariaren ekarpena	3,0	3,0	2,9	2,4	2,0
Kanpo eskariaren ekarpena	0,1	-0,1	-0,1	-0,1	0,0
Lehen arloa	2,0	-3,0	-6,7	-4,6	4,1
Industria eta energia	2,9	2,7	3,3	2,3	1,8
Eraikuntza	1,8	2,5	2,3	1,8	1,3
Zerbitzuak	2,8	3,1	2,9	2,4	2,1
Balio erantsi gordina	2,7	2,9	2,8	2,3	2,0
Produktuen gaineko zergak	6,8	3,0	2,6	2,0	1,9
BPG nominala	3,4	3,9	4,0	3,8	3,7
BPGaren deflatoarea	0,3	1,0	1,2	1,5	1,6
Enplegua	1,9	2,1	1,9	1,4	1,0
Langabezia tasa	13,4	11,3	10,8	10,0	9,6

Iturria: Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Datozen urteetan ere, EAEko ekonomiaren hazkundearen motorra barne eskaria izango da. Kontuan hartu den epealdian, barne eskariaren ekarpenak moteltze arineko joera erakutsiko du eszenategi makroekonomiko berri horretan. Agregatu horrek 2,9 puntu ekarriko dizkio BPGari 2018an, 2,4 puntu, berriz, 2019an eta 2,0 puntu, azkenik, 2020an. Familiek kontsumoan egiten duten gastuaren bizitasuna errenta erabilgarriaren gehikuntzan, lan merkatuaren hobekuntzan eta kontsumitzaileen konfiantza ingurunean oinarrituko da. Beste aldetik, kapital eraketa gordinak hazkunde tasa esanguratsua erakutsiko du. Interes tasa apalek eta enpresarien igurikimenez, ustez ona izango den testuinguru ekonomiko batean, izango duten hobekuntzak inbertsioari lagunduko diote. Kanpo eskariari dagokionez, BPGari egingo dion ekarpena oso txikia izango da, egonkortasuneko perfila markatuz.

Eskaintzaren ikuspegitik, hazkunde orokora espero da jarduera adar guztietan, salbuespen bakarra lehen arloa delarik, bere bilakaeran ezegonkortasun handia izaten baitu. Beste aldetik, argitaratu den aurreikuspen epealdian industriak izango duen batez besteko gehikuntza tasa %2,5ean kokatuko da. Eraikuntzak hazkunde positiboak lortuko ditu datozen urteetan, apaltzeko joera baten barruan. Azkenik, zerbitzuek hazkunde dinamikoa erakutsiko dute, %2,0tik gorako gehikuntza tasak jasoz.

Prezioei dagokienez, BPGaren deflatorearen aldakuntza tasak gero eta altuagoak izango dira urtetik urtera, 2018an jasoko duen %1,2tik 2020ko %1,6ra bitartean. Gehikuntza hori, nagusiki, energia alorreko produktuen garestitzeak eragingo du.

Lan merkatua dela eta, ekonomiaren hazkundeak enplegu tasaren igoera eta langabezia tasaren jaitsiera ekarriko ditu. Enpleguaren gehikuntza tasa 2018an %1,9 izango dela aurreikusten da eta 2019an zein 2020an aurreikusten diren aldakuntza tasak, hurrenez hurren, %1,4 eta %1,0 dira. Langabezia tasa, berriz, %10,8ra jaitsiko da 2018an eta beheranzko joerari eutsiko dio ondorengo epealdietan, 2020ko batez bestekoa %9,6an kokatu arte. Beraz, Eusko Jaurlaritzak ezarri zuen helburua, legegintzaldi honetan langabezia tasa %10,0aren azpian kokatzearena, beteko da.